

Xabier Bengoetxea fitxatu du Catak

Fagor Etxetresnetako presidente ohia da | 4



ENEKO AZKARATE

Manu Gomez, pantaila handian eta txikian diharduen zinegile oñatiarra | 32



Batzorde berri batek antolatuko du danborrada Oñatin | 19



Presoen aldeko Elkartasun Eguna Arrasaten musika taldeekin | 20



Bizikletak egunero erabili behar direlako

Erabilera sustatu nahi dute, besteak beste, Arrasateko eta Eskoriatzako mugikortasun asteetan | 11 eta 24

Bizikletak lagatzeko gunea Arrasaten, Musakola auzoan.

JAGOBA DOMINGO



Ane Pirata eta Porrotx, Arrasaten. | JAGOBA DOMINGO

Elkartasuna eta euskara Bizipozaren Jaian

Irailaren 21ean Arrasate txikiaren jai-gune bihurtuko da Irrien Lagunen eskutik | 13

943 71 48 45

Hemen
GARBIKETAK

www.hemen-garbiketak.com

Zure konfiantzako garbiketa enpresa

Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:

- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegia, anbulatorioak, eta abar.

Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

Bidegorria saretzen

- Herri arteko loturak egitea oso garrantzitsua da Aldundiarendako
- la herri guztietan dituzte mugikortasuna hobetzeko planak martxan

IRATI GOITIA | ARRASATE

Gero eta ugariagoak dira bidegorri edo bizikletentzako bideak Debagoienean eta poliki-poliki badoa osatzen sarea.

Herrien arteko lotura

Herrien arteko bidegorrien esku-mena Foru Aldundiarena da. Guztira, 18.485 metro dira dagoeneko eginda dituenak eta beste 26.680 metro dira egitea planifikatuta daudenak. Adibidez, Bergara eta Elorregiko tartea edo Eskoriatza eta Arabako muga lotuko lituzkeena. Proiektu batzuk beste batzuk baino aurreratuago daude. Bergara eta Elorregi artekoa, esaterako, hilabete honetan dira hastekoak. Lanak Campezo enpresari esleitu zaizkio. Aurrekontua 740.889,35 euro da eta amaituta egon behar dute hiru hilabeteko epean. Hala ere, Tavex enpresa ingururaino iritsiko litzateke zati hori eta 500 metro geldituko lirateke egiteko. Aldunditik adierazi dute Udalarekin

eta lursailen jabeekin bidegorriaren trazatua adostutakoan eman beharreko pausoak emango direla azken zati hori egiteko.

Debagoiena Arabarekin lotuko lukeen bide berdearen proiektua 2007an egin zen, 6,6 milioi euroko aurrekontuarekin. Aldunditik uste dute egitasmo hori merkatu egin daitekeela eta euren asmoa dela datorren urtean hastea zati batzuekin.

Antzuolan, bide berdea

Antzuola eta Bergara komunikatzeko ardura ere Aldundiari dago, eta proiektua idazten dabil-tza une honetan. Asmoa da datorren urtean egitea zati hau eta baita GI-632 saihezbidearen lanek kaltetutakoak ere.

Herritar talde bat, baina, tren-bide zaharraren plataforma erre-kuperatzeko auzolanean aritu da. "Lan hori ikusirik, Aldundia, Udalaren parte hartzearekin batera, plataforma errekupe- ratzen hasiko da zatika eta lehenengo

zatia egiten urrian hastea aurrei- kusten da, 1,2 kilometro inguru. Era horretara, Bergarainoko lotu- ra egiteko aukera ireki nahi da", adierazi dute Aldunditik. Egun, Bergaratik abiatuta, 6 kilometro inguruan, erabilgarri dago bide berde izaera duen zati hori.

Bergaran, herria zeharkatzen

Bergara Elorregirekin eta Antzuola- rekin lotuko dituen bidegorriak Diputazioaren esku daude, beraz, eta, gehiago edo gutxiago, mar- txan dauden proiektuak dira. Bergara eta Elorregiko tarte horretan badago puntu beltz bat, Labegaraletan. Izan ere, bizikleta bideak errepidea zeharkatzen du eta puntu arriskutsua da. Aldundiak altuera bat jarrita zeharkatu nahi du bidea, baina Udala ez dago ados. Proposatzen du 100 metro aurrerago zeharka- tzea, ikuspegia hobea delako. Lanak esleitura daude dagoeneko, baina oraindik plana aldatu ahal izango dela uste dute Udaletik,

eta adostasuna lortu ahal izango dela.

Herri barruan ere osatu nahi du bidegorria Udalak. Eta hala, hainbat proiektu ditu esku artean une honetan. "Labegaraletatik erdial- dera datorren zatia azoka ondoan amaitzen da, baina ez dago lotura- tik kiroldegi ingurura doan paseoa- rekin", adierazi du Joseba Moñuxek, Lurralde Antolamendurako batzor- deburuak. Bada, irailaren 17an hasiko dira Oxirondo azoka ingu- ruan egingo den bidegorriko lanak eta azaro amaiera alderako amai- tuta egotea espero da.

Udala lantzen dabilen beste proiektu bat Lorentxoko eta Laz- piur fabrika ingurua lotuko ditue- na da. Berez, Soraluzeraino dago bidea asfaltatuta, baina bidegorri bezala, Mekolaldetik Soraluzera bakarrik. Kasu honetan, proiektu- a eskatuta dago, eta esleitzeko bidean. Lanak Gabon aurretik hasiko direla uste du Moñuxek.

Lan horiek egin ostean, Bergara bizikletaz zeharkatzeko



Arrasate eta Elorregi arteko bidegorrian jendea oinarritzen.

moduan geldituko litzateke. Bai- na erdigunean ere bultzatu nahi du bizikletaren erabilera Udalak. Horrela, beste neurri batzuk ere hartu nahi ditu. Zehazki, 30 km/h mugako guneak ezarri nahi ditu. "Bilera bat egin genuen orain



BISITA GIDATUAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN JAUREGIAN

Ezagutu jauregiaren historia eta aretoek gordetzen duten ondare artistikoa

Taldea osatu eta eskaera egin
info.gipuzkoa@gipuzkoa.net helbidean



www.gipuzkoa.eus

IKASTURTE BERRIAREN HASIERA!!!

BASLIDA

INGELESA

- PET.
- FIRST.
- ADVANCED.

- Irailetik aurrera, ikastaro trinkoak prezio ezin hobean!
- Azterketak Arrasaten bertan, Bastida akademian egiteko aukera.
- IRAILEAN INGELESEAN IZENA EMAN, ETA MATRIKULA DOAN IZANGO DUZU.



ESKOLA PARTIKULARRAK

- Lehen Hezkuntza
- Bigarren Hezkuntza
- Batxilergoa
- Sarbide probak
- Ingeniaritza
- Enpresa Ikasketak

INFORMATIKA

- Word.
- Excel.
- Access.
- Power Point.
- Mekanografia.
- Internet.
- Sistema eragileak.



Araba Etorbidea, 3 - 1 • 20500 • Arrasate • Tel.: 943 79 35 33
bastida@bastida.es • www.bastida.es



neze eta bizikletan. | JAGOBA DOMINGO

dela hilabete batzuk herritarrekin euren ekarpenak jasotzeko. Guztiak aztertu ostean, badugu proposamen bat. Hala, laster egingo dugu beste bilera bat bergarrei horren berri emateko", azaldu du Moñuxek.

Arrasaten, herritarrekin batera Arrasaten garatuta dago Gesalibar auzotik araztegrainoko herri barruko bizikleta sarea –oinezkoen zumarditik doana–, baina badira egokitzapenak behar dituzten zatiak. Horrela, Udalak, herri mugikortasuna bermatze aldera,


sarea osatzen jarraitu nahi du, eta hainbat bide zati garatu nahi ditu lehenbailehen. Horiek dira, besteak beste: Takolo-Goiru bizikleta bidea eta Etxaluze-Musakolakoa. Lehenengoa eremu horretarako onartutako urbanizazio proiektuaren baitan dago. Bigarrenean dauden bizikleta bidearen aukerak eta bideragarritasuna aztertzeko, hainbat aukera aztertu dira eta proiektua jendaurrean jarri nahi da. Izan ere, Udalak herritarren iritzia jaso eta kontuan izan nahi du [informazio gehiago 11. orrialdean].

Bestalde, Arrasate eta Aretxabaleta lotuko dituen zati bat –73 metro– falta da egiteko, hori Aldundiari dagokio eta laurteko honetan dira egitekoak.

Aretxabaletan, hobetzea nahi Aretxabaletan ere badoa kolore gorria gailenduz pixkanaka. Udalak hainbat proiektu ditu garatze bidean. Une honetan, udala Basabeazpi ikastolaren eta Santakurtz kaleko 15. zenbakiko zatiaren proiektua idazteko kontratazioa egiteko dago. Bidegorri horrek bi zati izango lituzke: lehena Geltoki plazari dagokiona eta bigarrena Santakurtz kalekoa (27. zenbakitik 15. zenbakirainoko tartea). Lan horiekin bidegorria Kurtzebarri eskolaren aurrealdera ekarriko litzateke, eta, horrela, jolastokitik pasatzea saihestu. Proiektua idazteko aurrekontua 24.000 euro da, BEZa barne. Hasiera baten, baina, ez dago lanak hasteko datarik eta 2015eko udal aurrekontuetan sartuko dira.

24.000 euroko kostutik, 7.920 euro jarriko ditu Foru Aldundiak. Izan ere, Aldundiak 250.000 euro banatuko ditu mugikortasun iraunkorraren alde, Gipuzkoako 19 udalen artean. Debagoienean, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarak jasoko dute laguntza. Arrasateko Udalak Anboto kaleko bidegorriko lanak egiteko –7.020 euroko diru laguntza– eta Bergarako Udalak aipatutako merkaturako bizikleta bidea atontzeko –35.602 euroko laguntza.

Eskoriatzatik Arabara Iparraldetik hegoalderaino zeharka daiteke bidegorriz Eskoriatza. Lanak eginda daude. Hala ere, hainbat hobekuntza dira egitekoak. Hala nola argiteria aldatu nahi dute Fagor enpresatik Olazar auzoraino. Led sistemako bonbillak jarri nahi dituzte. Bes-



talde, Torrebason ume zein helduentzako aisialdirako azpiegiturak jarri nahi dituzte.

Eskoriatzan bertan amaitzen da Debagoieneko bidegorri sarea punta bat. Aurrez aipatu bezala, bada Leintz Gatzagarekin eta Arabarekin lotura egiteko proiektua. Joxemari Hercek, Obra eta Zerbitzuetako batzordeburuak, honako hau esan du horren gainean: "Autobideko lanek eragindako kalte edo ondorioen kalteordain bezala egin behar zen, baina ordutik urte asko pasa dira eta erantzule asko desagertu. Jakin badakigu abuztuan Diputazioko teknikari batzuk neurketak egiten eta laginak hartzen izan direla. Gaiaren gainean bilera bat egingo dela ere jakin dugu".

Oñatin, bizkarrezurra sortzen "Orain arte, garrantzi handiena zuena egin da. Hau da, herria bailarako herrieekin lotzen duen bidegorria", adierazi du Mikel Biain alkateak. Gaineratu du proiektuak oso harrera ona izan duela herritarren aldetik, eta erabiltzaile asko dituela, bai lane-ra joateko eta bai aisialdirako.

Orain, herri barruko sarea osatzen joatea gelditzen da. Hainbat kaletan badago bizikletentzako bidea (Errekalde, Euskadi etorbidea, Lazarraga...), baina

hainbat lotura falta dira. "Herriaren beste alderaino eraman nahi dugu, bizkar hezur bat bailitzan. Era horretan, alderik alde oinezko eta bizikletadunen segurtasuna bermatuko lukeen bidegorria izango genuke", dio Biainek.

Hori gauzatzeko hainbat proiektu ditu esku artean Udalak. Olabarrieta-Ugarkalde, Ugarkalde-San Lorentzo eta Obabarrietako azpi-pasoaren proiektuak eginak daude jada. Olabartako azpiko pasabidearen aurrekontua 209.503,67 euro da BEZ barne. Lanak noiz hasi eta esleipenaren epeak ez daude zehaztuta. Aurretik, lurzoru industrialen prozesuari dagozkion hainbat pauso eman behar direlako. Horretaz gain, Jaurilaritzaren tramite baten zain dira Udalekoak eta badirudi atzerapena izango duela. Paso hori Ugarkalde-Olabarrieta bidegorri tartea eta Ugarkalde-Olakua tartearekin lotuta dago. Hirurak lotuta geldituko lirateke elkarren artean eta errepide nagusia ukitu gabe Olabarrietatik Murgia auzora pasatu ahal izango litzateke. Eta hala, "eraztun berde" bat sortu, oinezko eta bizikletadunen segurtasuna bermatuz.

Euskadi etorbideko bidegorria aldatzea ere proposatzen da Mugikortasun Planean, espaloï gainera ekarrita. Hori, baina, ez dago zehaztuta, hainbat zailtasun tekniko daude-eta.

Aramaio, Elgeta eta Gatzaga Aramaioko Udaletik adierazi dute ez dagoela bidegorri proiekturik herrirako. Elgetan, paperean ez dute planik, baina badituzte asmoak. Elgeta eta Asentsio lotuko lituzkeen bidegorriaren ideia lantzen jardun du Udalak. Leintz Gatzagan Eskoriatzatik Arabaraino joango litzatekeen bizikletentzako bidearen zain daude, bestalde.

UNE HONETAN BAILARAKO HERRIETAN GARATZEN DABILTZAN BIDEGORRI ZATIAK

ANTZUOLA Antzuola eta Bergara arteko bidegorria egiteko lanak Aldundiaren ardura dira eta GI-632 errepidearekin amaitzean egingo dira, datorren urtean. Proiektua idazten dabilta orain.



BERGARA Labegaraieta eta Elorregi batuko dituen bideko lanak hilabete honetan dira hastekoak. Bada Aldundia eta Udala bat ez datozen puntu bat (argazkikoa). Zehazteko dago bidegurutzea nola zeharkatuko den.

OÑATI Herria zeharkatuko duen bizkarrezurra sortu nahi dute. Udalak orain esku artean duen proiektuetako bat Olabartako azpi-pasoarena da. Errepidea azpitik pasako luke tunel horrek.



ELORREGI Bergara, Oñati eta Arrasateko herrien arteko lotura egiteko dago oraindik. Aldundiak Tavex enpresa ingururainoko lanak hastear ditu. Hala ere, 500 metro geldituko dira egiteko, lotura amaitzeko.

ARRASATE Hainbat bizikleta bide garatu nahi ditu Udalak lehenbailehen; adibidez, Takolo-Goiru eta Etxaluze-Musakola. Bigarren hori egiteko proiektu aukerak jendaurrean jarriko ditu Kulturaten.



ESKORIATZA Hemen amaitzen da bidegorri sarea, oraingoz. Leintz Gatzaga eta Araba lotuko lituzkeen bide berdea egitea falta da. Aldundiak zati batzuk datorren urtean hastea espero du.



ARETXABALETA Kurtzebarri eskolaren aurrealdera ekarri nahi dute bidegorria, jolastokitik pasatzea saihesteko. Proiektua idazten dabilta eta 2015ko aurrekontuetan joango da.

Ura bezain garrantzitsua delako, 'Euskaraz blai'

- Matrikulazio kanpaina aurkeztu dute eskualdeko udal euskaltegiek
- Aurtengo helburuetako bat da euskakaren erabilera ere bultzatzea

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Arrasateko, Bergarako, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako udal euskaltegiek ikasturterako eskaintza berria aurkeztu dute. Aurtengo erronka nagusia izango da erabileran eragitea. Eskaintza akademikoa aurreko urteetako berbera izango da eta matrikulatzeko aukera dago iraileko azken astera arte.

Euskaraz blai da aurtun aukeratu duten leloa: "Meteorologia-ren gaia aukeratu dugu, gurean hain ohikoa dena, euria hizkuntza bezain beharrezkotzat hartuz. Izan ere, euririk gabe, urik gabe, ez dago bizitzarik eta euskararik gabe euskaldunik ere ez", adierazi zuen Arrasateko Udal euskaltegi zuzendari Elena San Martinek.

Era berean, azken bi ikasturteetako datuen berri ematerakoan, nabarmendu zuten talde kopuruan eta eskola orduetan gora egin dutela, iaz duela bi urte baino ikasle gutxiago izan arren: "Azken urteetako gure garapena ona izan



Euskaltegiako arduradunak eta udal agintariak. | JOKIN BEREZIARTUA

da; ea aurtun beste horrenbeste gertatzen den", esan zuen Oñatiko Udal Euskaltegi zuzendari Roberto Altunak. Euskalduntze eta alfabetatze maila guztiak, auto-ikaskuntza ikastaroak eta bestelako ikastaro berezi batzuk

eskainiko dituzte eta bertako euskalkia zein hitanoa ikasteko aukera ere emango dute.

Erabilera bultzatu

Aurtengo erronka nagusia, hain ere, ikasleek euskara ikasteaz apar-

ESANAK

"Urik gabe ez dago bizitzarik eta ezta euskaldunik euskararik gabe"

ELENA SAN MARTIN | ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIKO ZUZENDARIA

DATUA

4

UDAL EUSKALTEGI

Eskualdean lau udal euskaltegi daude, herri nagusietan.

te, erabiltzea da: "Ezagutzaren eta erabileraren artean jauzi handia dago, ezagutza handiagoa da erabilera baino", azaldu zuen Leintz Udal Euskaltegi zuzendari Kar-mele Agirregabiriak.

Udal euskaltegiek erraztasunak emango dituzte euskara ikasteko. Euskaltegi bakoitzean epeak ezberdinak dira, baina, eskolak urrian hasiko direnez, iraileko azken astean ere aukera egongo da izena emateko.

Sarek autobusak antolatu ditu Bilboko presoek aldeko ekitaldirako

J.B | ARRASATE

Presoen sakabanatze politikaren aurka batu eta gizartea "aktibatu" gura du Sarek. Irailaren 20an ekitaldia egingo dute Bilboko Miribilla kirol pabiloi publikoan —Bilbo Arena bezala ere ezagutzen da—, 18:00etatik aurrera. Ekitaldia aurkezteko eginiko agerraldian, Sarek adierazi du datorren zapatukoa "sakabanaketa amaitzeko mugarrria" izango dela.

Euskal preso, iheslari eta deportatuen eskubideen aldeko topagune herritarra da Sare, eta Bilborako autobusak egongo dira Debagoienetik abiatuta.

Autobusak noiz eta nondik

Debagoieneko Sare topagunetik adierazi dutenez, honako herri hauetatik eta adierazitako orduetan abiatuko dira autobusak zapatuan: Arrasateetik 16:30ean irtengo da, Garibaitik; txartelak Taupan eta Iratin eros daitezke. Bergaratik 16:00etan irtengo da eta txartelak ohiko lekuetan daude salgai. Oñatin, Arrano eta Oñati tabernetan daude txartelak salgai. Eta Antzuolan, azkenik, izena emateko zerrendak gaztetxean eta Arin tabernan jarrita daude; Antzuolan 16:00etan aterako da autobusa, gaztetxe paretik.

Buruzagi ohiek ez zuten Fagor Etxetresnen lur-jotzea eragin, epailearen arabera

J.B | ARRASATE

Hartzekodunen Konkurtsoaren gidari den Pedro Jose Malagon epaileak dio Fagor Etxetresnen gainbehera merkatuko "lehiak eta krisiak" ekarri zutela, eta ez Txema Gisasola, Fabian Bilbao eta Sergio Treviño azken zuzendari nagusien kudeaketak. Hori frogatzen duen txostena eta Gipuzkoako Fiskaltzaren

babesa ditu ebazpen horretarako. Errekurtsorik ez du erabakiak, eta, horrenbestez, Estatuko Abokatutzaren eta Ordaindu eta Eskuratu plataformen erantzukizun eskaerak bertan behera utzi ditu epaileak.

Kaudimenik eza behin konkurtsoan sartzeko eskaera boluntarioa egin eta gero geratu zen agerian, Malagonen ustez.



Ordaindukoak astelehenean Olandixon protestan. | JAGOBA DOMINGO

Kanpaldia egingo du Ordainduk "negoziazio mahaia" osa dadin

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Mondragon taldeko arduradunekin negoziazio mahaia lortzeko asmoz kanpaldia hasi dute astelehenean, eta han eman dute astea Ordainduko eta Eskuratu-ko kideek. Kanpaldia hasteaz gain, manifestazioa egin zuten astelehenean Mondragonek Olandixon duen egoitzaraino, eta bertan hiru idatzi entregatu zituzten. Lehenengoa, Iñigo Lamarca Arartekoak idatzitakoa, korporazioko arduradunei, Ordaindurekin eta Eskuraturekin negoziatzeko eskatzen duena. Bigarrena, arduradunekin hitzordua eskatzeko idatzia, eta, azkena, elkarrekin idatzitakoa. Idatzian, kooperati-

ba "etikoago eta sozialagoa" eskatzen dute, "aberastasuna eta lana banatzen dituen kooperatiba".

Atzo beste manifestazio bat

Bizi duten egoera beste behin salatu ostean, iragarri dute kanpaldia egingo dutela irailaren 19ra arte Jose Maria Arizmendiarrira ibilbidean. Negoziazio mahaia lortzeaz gain, euren defentsaren berri eman zuten Ordaindukoek. Kanpaldia 09:00etatik 17:00ak artean egiten dihardute, "egoera salatu eta herritarrei informazioa zabaltzeko" prest. Horrez gain, atzo, eguna, beste mobilizazio bat egitekoak ziren Mondragoneko egoitzaraino.

Catarekin lan egingo du Xabier Bengoetxeak

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Xabier Bengoetxea Fagor Etxetresnetako Kontseilu Errektoreko presidente ohiak Catarekin fitxatu du eta enpresa katalanak Fagorreko lantegi berrietarako osatzen diharduen zuzendaritzako kideetako bat izango da. Ez da bakarra. Haren bidea jarraitu dute lehengo Fagor Etxetresnetako beste bi buruk: Alberto Lopez Sayas zuzendari finantzario izan zenak eta Ekialde Ertaineko eta Afrikako merkatuetako arduradun izan zen Alberto Ahedok.

Gainera, Goienak jakin duenez, Francisco Martin Catako zuzendari orokorra izango da hemengo zuzendaritzako burua ere.

Erosketa hil amaieran

Bestetik, hil honen amaieran gauzatuko da Fagor Etxetresnen erosketa CNAren aldetik. 42,5 milioi euroko eskaintza egin zuen CNAk Fagor Etxetresna Elektrikoen marka eta ondasunengatik. Eta prezio horren truke hari saltzea erabaki zuen uztailan Pedro Malagon epaileak.

Bixente Atxa da MUko errektore berria, Josu Zabalen orde

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Bixente Atxa (Oñati, 1966) Eskola Politeknikoko zuzendariak Josu Zabalen lekukoa hartuko du urte berriarekin Mondragon Unibertsitatean. Hura izango da, horrenbestez, MUko errektore berria.

Oñatiarra azken zortzi urteetan izan da Goi Eskola Politeknikoko zuzendaria. Elektronikako goi mailako ingeniaria da eta doktore Erresuma Batuko Staffordshire Unibertsitatean.

Maiatzean jakinarazi zuten egungo errektore Josu Zabalak MUko errektore izateari laga egingo ziola. Errelebia hartu bitartean, lau hilabatez, elkarrekin ariko dira.



Bixente Atxa. | E.A.

Gipuzkoako eskualde sarea, sinergia sortzeko elkarlanean

Abian dauden lurralde garapeneko proiektuak eta esperientziak partekatu dituzte Arantzazun

MIREN ARREGI | OÑATI

Egoera sozio-ekonomikoari irten-bidea emateko asmoz, Gipuzkoako hamaika eskualdetako arduradunak bildu ziren eguaztenean Arantzazuko Gandiaga topagunean. Besteak beste, nazioartekotasuna, energia eta enpresen lehiakortasuna aztertu zituzten Eskualde Arteko Mahaian.

Duela urtebete ekin zioten Gipuzkoa Sarean proiektuari, eta, oraingoan, Urola Erdiko,

Debabarreneko eta Bidasoako esperientziak ezagutu dituzte mahaiko kideek; hemendik aurrera, bi hilabete behin elkartuko dira, eta, pixkanaka, eskualde guztietako esperientziak ezagutu eta estrategiak partekatzea lortu nahi dute egitasmo horrekin. Era berean, Pedro Iturbe Lurralde Garapeneko foru zuzendariak azaldu duenez, Gipuzkoa Sarean proiektuak "sinergiak ahal beste aprobetxatzea" du helburu, eskual-

deetako eragileen arteko ezagutzaz, "koordinazioa hobetzeko".

Ordezkaritza zabala

Eskualdeetako arduradunak bakkarik ez, EHUKo, Deustuko eta Mondragon unibertsitateak ere ordezkaturik daude Eskualdeen Mahaian, baita zentro teknologikoak eta Gipuzkoa Berritzen.

Guztira, 30 lagun inguru biltzen ditu taldeak, eta Iturbek argi dauka eragile eta ordezkari guztien topaketa positiboa dela proiektuarentzat. "Taldea handi bat sortzeko lanean ari gara. Gipuzkoa Sarean lanean ari da sarean lan egin dadin eta proiektu partekatu bat egon dadin; eskualde bakoitzak ideiak eta proiektuak partekatu eta mahai gainean jar ditzan", gaineratu du Iturbek.



MIRARI ALTUBE

Arantzazuko Amaren eguna

Ohiturari eutsiz, oñatiar askok erromesaldia egin zuten martitzenean Arantzazura. Jose Ignazio Munillak eman zuen meza nagusia, eta bertan, fededunak elizara gerturatzeaz eta bakegintzan egindako urratsez mintzatu zen. Ordezkarik politikoa ugari ere gerturatu ziren: lehendakaria, Gipuzkoako diputatu nagusia eta Oñatiko alkatea, besteak beste. Euskal presoan aldeko elkarretaratzea ere izan zen.

Ikasturte berrirako matrikula zabalik da UNED-Bergaran

Behar eta maila guztietara egokitutako hezkuntza eskaintzen jarraituko du aurten ere UNED-Bergarak. 26 gradu, 50etik gora graduondoko eta lau hizkuntza ikasteko aukera eskainiko dute, besteak beste. Unibertsitate ikasketez gain, ikastaroak ere antolatuta dituzte eta izen-ematea martxan da jada maila guztietan.

Irukurutzetako gainean erromeria ospatuko dute domekan

Arribiribilletako zutarria berriz tente jarri ondoren, domekan, hilak 14, erromeria egingo dute Irukurutzetan. 11:30ean hasita, dantzariak eta txistulariak izango dira eta gazteenek arbasoen bizi-modua nolakoa zen ikasteko aukera izango dute *Arbasoen deia* tailerrean. Salda eta txorizorik ere ez da faltako.



Eskualde Arteko Mahaiko kideak Arantzazuko Gandiaga Topagunean elkartu ziren eguaztenean. | MIREN ARREGI

Ikus itzazu argazkiak, inon baino lehenago Asteleheneko Goienan!

UDAKO ARGAZKIEN X. GOIENA LEHIAKETA
Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak eta irabazi sari bikainak!



Argazki guztiak fotoblog honetan: blogak.goiena.eus/argazkiak

Baita hemen ere: [f udakoargazkiak](#) [t udakoargazkiak](#)



XABIER ATXA ZUGASTI. 2013ko Sari Nagusiaren irabazlea.



ARKAITZ LASURAIN. 2013ko bigarren sariaren irabazlea.

Har ezazu parte!



MIKEL ZAMORA. 2013ko hirugarren sariaren irabazlea.

Oinarriak*

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 5 argazki aurkez ditzake. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak eta herria.
 - Harremanetarako telefonoa.
 - Argazkia noiz eta non ateratakoa den.
 - Argazkian zer eta nortzuk agertzen diren.
- Argazkiak bidaltzeko epea: uztailaren 11tik irailaren 21era (biak barne).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (paperean, ondo erreproduzitzeko adinak bereizmenarekin).
- Udako argazkiak izango dira: berdin da aurtengo udan ateratakoak izatea edo beste uda batekoak.
- Irakurle/ikusleei aukera emango diegu argazki onenari botoa emateko blogean. Botoa ematen parte hartzen duten guztien artean beste sari bat zozketatuko da.
- Bidali argazkiak eta datu GUZTIAK e-postaz: argazkiak@goiena.com helbidera, edo Goienara ekarri: ARRASATE: Oñalora Lizentziaduna 31, Arrasate.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiak.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 7an jakingo dugu, asteleheneko Goiena paperean.
- Jasotako argazki guztiak argitaratzerik ez badago, Goienak aukeraketa egingo du egokien iruditzen zaizkion irizpideen arabera.
- Jasotako argazkiak Goienako artxiboan gordeko dira, eta, aurrerantzean erabiliz gero, egilearen izena adierazi egingo da.

HAR EZAZU PARTE SARE SOZIALETAN!

- Twitter eta Facebook bidez ere parte har daiteke lehiaketan, honela: **Twitter bidez**, [@udakoargazkiak](#) helbideari aipamena eginda argazkia bidaltuta, eta argazkiaren deskribapena eginda. **Facebook bidez**, [facebook.com/UdakoArgazkiak](#) orriaren horman argazkia partekatuta, eta argazkiaren deskribapena eginda.
- Twitterrez eta Facebookez aurkezten diren argazkiak lehiaketako blogean agertuko dira, baina daukaten kalitatearen arabera argitaratuko dira Goiena paperean. Hau da, ez badaukate paperean argitaratzeko moduko kalitatetik, ez dira argitaratuko euskarri horretan, baina sari nagusirako kontuan hartuko dira.

* Oinarri guztiak: ttiki.com/70956

Sariak

1. saria: Nikon D3100 reflex argazki-kamera digitala eta 18-55 mm-ko objektiboa. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendaren eskutik. 14,2 megapixel / Full HD bideo-grabazioa. / 3 hazbeteko pantaila / Auto-fokatzeko sistema, 11 puntuko. ISO 100-3200 sentsibilitatea. Integratutako edizio funtzio ugari.



2. saria: Oriko Aisia hotelean, zirkuitu termala eta bazkaria edo afaria, Arrasate Bidaia-en eskutik.

3. saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jaetxean.

Herritarren saria: SPC 5604S liburu elektronikoa irakurgailua Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.

Boto emalleentzat saria: Munduko kafe ezberdinen otarra, Arrasateko Karibu dendaren eskutik.

ANTOLATZAILEA:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:

KB
photoestudio
www.kbphotoestudio.com

ARRASATE BIDAIAK

GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurrekin

karibu
munduko zaporeak
karibumundukosaporeak.com

ZABALIK

INAZIO ARREGI
goiena.net/komunitatea/



Oporren ostekoak

Oporren osteko sindrome, ohiturak eta sorpresak. Dagoe-nik ere ez dakit. Ez dut sekula ezagutu. Nagikeria sano bat, igarotako egunen nostalgia bat, iraila nota onarekin gaindituko ote dudan zalantza; hori bai, baina sindrome-rik? Jaurларitzako lehen bilera Miramar jauregian, haurrak eskolaratzeko prestakizunak, euskal jaiak nonahi, Donostiako estropadak, eta horien guztien gainetik, igarotako egunetako bizipenak entzungo dituen pazientziadun bat aurkitzea dira lanera itzultzen garen hileko gertaera nagusiak.

Ez da faltako intransigentziaren eredu bihurtu den Honda-rribiko alardearen yin-yang konpon ezina. Etsipengarria da, neska edo mutil gazteak *Betiko alardea* dioten pankartak eskuan, betikoan parte hartu ezin eta bere alardeaz disfruta-tu nahi duten gizon-emakumeen jarduna oztopatzen ikustea.

J. Cortazarrek, *Rayuela*-n, bestea konbentzitu nahi eta kon-trako iritzia inoiz ez onartzeko ohitura espainiar-argentinarra aipatzen du. Ez dago urruti joan beharrik gure inguruan adibide franko ikusteko. Hondarribikoa nabarmenena izanik, beldur naiz ez ote den Oñatin horrelako zerbait gertatzen ari jaietako danborradaren inguruan.

Ez dut gaia ezagutzen eta ez dut inoiz interes txikiena ipini danborradan. Iritzia emango banu ez nuke gauza onik esango, ez orain artekoaz, ez honen orde z egingo den beste desberdin batez. Azken batean, desfileak beti desfile izango dira.

Donostiako piraten eta Bilboko konpartsen arrakastak hiru elementutan oinarritu dira: herritarrak, parte-hartzaileak, plu-ralak. Eta irudimena eta berritasuna. Gauza desberdinak sortzea.

Sasoi batean, Bizkaiko kostako herri batean bi danborrada egoten omen ziren. Ez da herri baten bizikidetzarako eredu one-na. Herritarrak, parte-hartzaileak eta pluralak izango diren irtenbideak proposatzea beste aukerarik ez dago, baina jarrera espainiar-argentinarrak albora utzi behar dira. Hala uste dut.

USTEAK USTE


TXOMIN MADINA | tmadina@goiena.com

Sortzaileekin dugun zorra

Tarte hau idazteko gai bila nenbilela, konturatu naiz Deba-goienean sormena pil-pilean dagoela. Edu Muruamendiaraz bergararrak zuzendutako *Geltokia* dantza ikuskizuna eskai-niko dute gaur Bergaran. John Andueza arrasatearrak beste liburu bat, *Prime time*, argitaratuko du. Arrasateko Iñigo Arregiren eskulturak Arantzazuko *Amets-kabi* erakusketan ikus daitezke. Aitor Arregi oñatiarra da Donostiako Zinemaldiko Sail Ofizialean parte hartuko duen *Loreak* filmaren gidoilarietako bat. Zerrenda luze bateko adibide bakan batzuk dira horiek; zenbakiek eta estatistikek, botereak eta berau lortzeko grinak agintzen duten mundu grisari kolore apur bat emateko lan egiten dutenak.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Eta behelainoaren artean, zu, Maroto

Eneko Barberena
blogak.goiena.eus/barberenea/

"Dana lanbroute ikusteot" esan zuen poetak eta nik, ba zer esan, ez dakit maite ditudan lainoek ezkutaturikoak.

Pablo Berastegiren hizkuntza gaitasunen gaiak azkonarrak, ardiak eta azeriak bereizi dituen honetan betiko definizio ezan nago ni, ez baitakit noiz izan euskararen misiolari (noiz joko dinat larrua hirekin Miren modelo B?) edo taliban jator.

Kandelak jartzea Arantzazun eta San Andresko Whiskerian ekidistantziari eginiko oda gisa uler liteke. Daitort.

Baina zer esango dizuet ba, nola egin sutu banau Berastegiren euskara ezagutza ezak baina onbera banaiz Sabino Cuadra, Jorge Oteiza edota Periko Solabarriarekin.

Mediku ona behar Donostia 2016ak, hortaz zer edo zer jakingo du Txapelak, baina kalte pediatria

euskaldunak eskatzeko kanpainari. Bullshit.

Arrasaten ere ez ei dira betiko garai onenak.

Nik betidanik ezagutu dut herrigintza gainbeheran, *o tempora o mores*, eta orain ere batzuek badiote mitoa dugula gure erregai bakar.

Ez dakit nola amaituko dugun liseritzen Fagorrena, horren gurea den der Untergang-a, orain justiziak kaltetuetako batzuk errudun gabe utzi dituenean.

Hor ere lokatza eta kritika errazak gehiegi aukeran, analisi borobilik ez.

Baina gainbehera honetan irailean badira Uribarriko jaiak, Bizipoz eguna, Elkartasun doinuak, baserritarren azoka eta moxal okelaren aldeko kanpaina, Erromeriak, abesbatzen urteurrenak...

Akaso gure errua da ez ulertzea herri batek ez badu twitter armadarik ez dela deus.

Ez esan ezetz, ez esan ezetz.

Eta politika deitzen diogun horri buruz ba zer esan.

Eskoziakoak itxura ona

duela, ondo bideratua dute argudio aldetik eta plazera da ingelesak beldurturik ikustea.

Ikuspuntu interesgarria Owen Jonesek hemen.

Katalanak ere victus, eta gure mobilizazio gaitasuna bere tamainan kokatzeko, gu baino pauso zehatzagoak emanez.

Eskerrak gure lanbroan baden gauzak argi dituenik, Javier Maroto kasu.

Berari esker, argi dut arrazakeria eta xenofobiaren aurka borrokatzea dela herri honi egin diezaiokegun ekarpenik handiena kapitalaren aurka eta gure etorkizunaren alde.

Edo uste duzue Green Capitalean guardia zibilaz gain beste inork lekua duenik?

Osasun gaixobera

Bixente Serrano Izko
berria.eus/blogak/bixente/

Gaixobera da, berez, osasuna, eta, bapo jartzeko bazkari batek bezala, guztion sasoi onak jaki gaixoberak ere eskatzen ditu.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantzabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Eredaktore burua Uliane Madera
Sailetako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09
publi@goiena.com

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Zumarragako
Arcelor Mittal: lan
baldintzak
okertzeari ez!**Ibon Artola**(Euskal Herria Sozialistako kidea)
Bergara

Arcelor Mittalek lan-turnoak malgutzea lortu du CCOOK, UGTk eta ELAk sinatutako akordioari esker, lantegia aldi baterako "ez ixtearen truke". Zerbaitetarako balioko du akordio honek? Ez zen beharrezkoa sindikatuek xantaiari eta eraso berriari ezetz esatea eta beharrezkoa izanez gero langileak borrokara deitzea? Orain dela urte bat baino gehiago langileen soldatak %12 jaitsi eta lanorduak handitu ziren (CCOOK eta UGTk sinatutako akordioaren eraginez). Ez dago azkeneko sakrifizioirik, enpresak beti aurkitzen du langileen lepoa estutzeko arrazoi berriren bat. Arcelor Mittalen planteamendua estrategia konkretu baten barruan dago: plantillaren soldata eta lan baldintzak

okertzea, lortutako eskubideak amaitzea eta, azkenik, enplegua suntsitzea, lanean geratzen direnek ordu gehiago sartzeko, erritmo altuagoekin eta soldata baxuagoekin. Horregatik, CCOOK, UGTk eta ELAk sinatutako akordio hau ikaragarritzko akatsa da, ez du balioko enpresaren erasoak geratzeko, etorkizunean are gehiago ekartzeko baizik.

Ezin da utzi multinazionalaren mehatxu edo erasorik erantzunik gabe. Egia da borrokak ez direla errazak, enpresak gogor doazela eta langileak asko jokatzen ari direla. Baina enpresak ez dira ahalguztidunak, langileok indarra dugu, asko, ondo erabiltzen bada. Enpresariak zatiketa eta beldurra erabiltzen badituzte, langileok batasunaren eta elkartasunaren alde egin behar dugu apustu. Egoera honetan, Urola Garaiko langileen borroka bateratua antolatzea aurrerapauso handia litzateke.

Oso zaila da lan baldintzak eta lanpostuak enpresaz enpresa defendatzea. Arazo berdinen aurrean, langileen indarra biderkatu egiten da mobilizazio bateratu eta koordinatuekin. Batasuna da

Urola Garaiko langile eta beren familien aurka antolatzen ari diren eraso guztiak atzera botatzeko modu onena. Eginkizun honetan eskualdeko sindikatuek, nahikoa indar eta baliabide baitituzte mobilizazio kanpaina indartsu eta bateratu bat antolatzeko, funtsezko papera jokatu behar dute.

AEKoadrilari

Ignacio Etxebarria Gonzalez
Arrasate

AEKoadrila:

Bi urte, bi perfil. Ez da gutxi elkarrekin lan eginez lortutakoa, e koadrila? Lan gogor egin dugu, bai, eta barre asko ere bai. Nik, behintzat, benetan gozatu dut zuekin eta nire klasekideekin euskara ikasten; eta gozatuz ikasi dut euskara, oraindik asko falta izan arren.

Aitorpen bat egin behar dut: duela bi urte edonork HABEko bigarren perfila oparitu izan balit, han bukatuko zen nire harremana euskararekin, nire lanerako behar nuena lortuta.

Gaur, ordea, gutun hau idazteko, egunkaria euskaraz irakurtzeko edota lagunekin

hizkuntza zoragarri honetan berbetan aritzeko gai izateak harro jartzen nau. Horregatik, datorren urtean Arrasateko AEKra itzuliko naiz gaitasun hori hobetzera eta euskararekin gozatzera.

Hori gutxi balitz, beste bost arrazoi dauzkat itzultzeko, eta izen berezia daukate: Oskar, Olaia, Maite, Tito eta ene Marisa; AEKoadrila, irakasle onak, pertsona ederrak.

Badakit eskerrak emango dizkidazuela hitz hauengatik, baina ez zenukete egin beharko; zuei esker zuen hizkuntza (beldurgarria zena niretzat) erraz, geure hizkuntza bihurtu delako. Euskara eman didazue eta horregatik nik neuk beti eskerrak emango dizkizuet.

Laster arte, *urrian egongo ga.*

Psikiatra
euskalduna**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Zoritzarrez, psikiatriaren munduan nago, eta hemen gaudenok ez gaude gustura, ematen dituzten farmakoak

–gaizki deituak, sendagaiak– ez ditugulako gogoko gehienok. 19 urte daramatzat. Alacanteko Fontcalent espetxe-psikiatrikoan hamar urte eman nituen, guardia zibil bati ebaki bat egin bainion eskumuturrean aizkorarekin. Etxetik egotzia telebista puskatzeagatik (ez baitut batere gogoko telebista), diru apurra xahutu, eta deliberamendu oker hori egin nuen; ez nuen eskale izan nahi.

Euskara maite dut, eta euskaradun psikiatra nahi dut. Euskal mentalitatea eta idiosinkrasia duena, ni bezala. Iaz lehendakariari idatzi nion, inork ez baitzidan jaramonik egiten. Gerenteak erantzun zidan itzultzailea jarriko zidatela, ez baitzen posible ekartzea euskaldun bat. Baina psikiatra, espainola bera, umiliatua sentitzen da eta gogortzen du bere mediku jarrera. Horrela ez da posible. Eskatu nion Osakidetza trasladoa, psikiatra euskalduna izateko, eta jaramonik ez. Berririo idatzi nion lehendakariari eta erantzun zidaten Osasun Sailera pasatu zutela trasladoaren kasua. Jaramonik ere ez. Itotzen ari naiz erdararekin, noiz arte? Dagokionari.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakararekin erantzun beharko dio.
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

**ONDO
PASA
SAN
MARTINETAN!****UGARTE**
ARROZTEGIA - ALTZARIAK**ALTZARI DENDA**
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630**ARROZTEGIA**
San Juan 1a
Tel.: 943 765491**BERGARA**
aroztegia@ugartearoztegia.comProiektuak · Koltxoak · Horma-Armairuak
Altzariak neurritara · Ateak · Eskailerak · Leihoak · Tarimak · Egur lanak



IRAILAK 21 ARRASATE BIZIPOZAREN



PIRRITX, PORROTX ETA
MARIMOTOTS · ANE ETA
PIRATEKIN PARRANDAN ·
KIROL EGOKITUAK ·
KAXOI TAILERRA · TXAKUR
ERAKUSTALDIK · HAZI
LANDAKETA · DANTZARIAK ·
ABESBATZA · ERRALDOI
ETA KILIKIAK HERRITIK
ZEHAR · SERIGRAFIA ·
PUZGARRIAK · APAR FESTA ·
AURPEGI MARGOKETA ·
LUDOKETA TXOKOA · ESKULANAK ·
KARAOKEA · BERRAMESTEN
TAILERRA · BAZKARI HERRIKOIA...



WWW.BIZIPOZA.ORG

SARRERAK SALGAI

- Elkar Dendak:
Arrasate eta Bergara
- Arrasateko Gazte Bulegoan
- Egunean bertan



SARRERA: Banakakoa: 5 € · Gurasoak DOAN · Irrien Lagunak txarteldunak: DOAN
BAZKARIRAKO TXARTELA: 5 € · Egunean bertan erosi ahal izango da

ANTOLATZAILEA



ELKARTEAK

AFESTTA · ASPANOI · KALE DOR
KAYIKO · GKEF · CHERNOBILEN
LAGUNAK · BEROA · PAUSOKA ·
UME ALAIA · BANAIZ BAGARA ·
ARNASA · ETIOPIA UTOPIA · AURRERA
ATERA · GURE SEÑEAK · BOCALAN
BIAK BAT · GIZAKIEN LURRA · AMPGYL ·
GEHITU · GURE NAHIA ELKARTASUNA

LAGUNTZAILEAK

EKIN EMAKUME TALDEA · PORTALOI KULTUR
ELKARTEA · ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSA ·
ARRASATEKO GAZTETXEA · MARITXU KAJOI ETA
SANTAMAS KOMISIÑUEK · ARIZMENDI IKASTOLA ·
ARRASATE HERRI ESKOLA · ASPACE · BAGARA
HERRIGINTZAN · TXIKITXU-ARROSTAITZ DANTZA
TALDEA · EREINDAJAN · SEXOLOGIA ZERBITZUA ·
AED ELKARTEA

BABESLEAK



Gainera, eskaintza berezi hau!

Irailaren 21ean Irrien Lagunak Gizartegintza Elkarteak antolaturik Arrasaten ospatuko den Bizipoza Jaiaren (BPJ) harira, eta Goiena Komunikazio Taldearekin elkarlanean, eskaintza hauek egin nahi dizkizuegu bi elkarteok.
Irailaren 30era arteko eskaintza da.

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



1. eskaintza Goiena Klubeko Harpidetza + IRRIA aldizkaria Harpidetza

- Irrien Lagunak motxila*
- BPJ kamiseta*
- BPJ familiarentzako sarrera

60€



2. eskaintza Goiena Klubeko bazkideendako

- IRRIA aldizkaria harpidetza
- BPJ kamiseta*
- BPJ familiarentzako sarrera

30€



ZATOZ GOIENAKO EGOITZARA IZENA EMATERA, IRAILAREN 30A BAINO LEHEN: Arrasateko Otalora Lizentziaduna 31n gaude.

*Izakinak agortu arte.

Ikerne Badiola | Kultura, Gazteria eta Kirol diputatua

"Pablo Berastegi da Donostia 2016k behar duen zuzendaririk onena, euskaraz ez jakin arren"

- Ika-mika sortu da, beste behin, Europako Hiriburuaren proiektuaren gainean
- Erakundeen arteko adostasuna lehenetsi dutela dio Diputazioko Kultura arduradunak

ENeko AZKARATE | ARRASATE

Hautsak harrotu ditu Donostia 2016 proiektuaren zuzendari nagusiaren izendapenak, euskal hiztuna ez izatearren. Gipuzkoako Diputazioa da Donostia 2016ren fundazioa osatzen duten erakundeetako bat. Ikerne Badiola Kultura diputatuak aditzera eman duenez, hautagairik onena da Pablo Berastegi.

Berriro ere polemika Donostia 2016 dela-eta, Pablo Berastegi zuzendari berriak euskaraz ez dakielako. Proiektuko kideok aho batez hautatu dugu Pablo Berastegi, hautagai onena delako. Eta, ondoren etorri den polemika ez dugu harriduraz hartu, lehiaketako baldintzak onartu genituenean hau gertatzea posible zelako.

Zergatik onartu zenituen baldintzak modu horretan? Donostia 2016ko proiektuan bizi izan ditugun ika-miken ostean, eta, batez ere, apirilean, azken zuzendari nagusi Itziar Noguerasek dimisioa eman ostean, lehenetsi genuen erakundeen arteko adostasuna bultzatzea, goberna ezina bilakatzen zebilelako proiektua. Hori horrela, Europatik zetozen gomendioak lehenetsi genituen eta, hizkuntzaren kontuan, zuzendari nagusi berriaren aukeraketan lehentasuna eman genion ingelesa jakiteari. Uste dut zuzendari nagusi ona daukagula, hautagairik onena, nahiz eta euskaraz jakin ez.

Euskara bigarren mailan geratu zen, hortaz? Esandako moduan, erakunde publikoen arteko ika-mikak saihestearren hartu genuen erabakia.

Ze erakunde daude Donostia 2016 proiektuaren fundazioan? Donostiako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Espainiako Gobernua. Juan Karlos Izagirre Donostiako alkatea da presidentea.

Zein da polemika honetan Gipuzkoako Diputazioaren iritziz ofiziala? Jakina, nahiago genuke euskaraz hitz, bizi eta lan egiten duen zuzendari bat. Egia da, halere, arriskuaz hitz egin dugula luze Diputazioan. Azken aukeraketa hiru hautagairen artean egin zen eta hiruretatik inork ez zekien euskaraz. Pablo Berastegi izan da onena. Proiektuaren balioak ondoen ordezkatzeko dituen da.

Kordoba izango balitz Europako Kultura Hiriburu 2016an, onartuko lukete aukeratzea gaztelania ez dakien zuzendari nagusi bat? Seguruen, ez. Egia da hemen gauzak askoz ere zailago ditugula. Bestetik, lan asko egin da eta

egiten ari gara euskararen normalizazioan, baina asko daukagu egiteko oraindik. Ordezkaritikoetatik hasi behar dugu normalizazioa bultzatzen eta Donostia 2016ko zuzendari nagusiaren izendapen honek ez dio normalizazioari mesederik egiten.

Bilduk euskara bigarren mailan utzi du? Inondik inora ez. Bilduk arau batzuk adostu ditu beste erakunde eta beste alderdi batzuekin batera, eta arau horiek aintzat hartu eta errespetatu ditu azken erabakia hartzerakoan.

Zelako harremanak dituzue fundazioa osatzen duzuen erakundeon artean? Harremanak onak, normalak dira, lan saioetan. Ez gara lagunak, baina lan egiteko gauza gara. Eta, alde horretatik ere hobetu egin dugu, hasieran okerrago edo zailagoak ziren-eta. Egia da, halere, behin ateak irekitzen direnean, gauzak, sarritan, nahastu egiten direla. Politikaren jokoak dira.

Zigor Etxeburua Diputazioko Euskaraz zuzendariak zer dio? Sarri hitz egin dut harekin eta ez dago gustura, normala den moduan. Arduratuta dago.

Pablo Berastegik berak esan du ahaleginak egingo dituela euskara ikasteko. Aita euskalduna zuen. Arbizukoa da. Euskal Herria, euskara eta euskal kultura ez zaizkio arrotz, nahiz eta gaztetatik Madrilera egin zuen.

Zergatik aukeratu duzue? Proiektu garrantzitsu askoren buru izan delako, besteak beste: Madrilgo Matadero ko koordinatzaile izan da, puntan utziz... Nazioarte mailako eskarmentua ere badauka eta une honetan Donostia 2016k behar duen zuzendaria hura da.

2016 hor bertan dago: ondo ailegatuko da Donostia, Gipuzkoa? Ez daukat zalantzarik. Pablo Berastegik berak lanean diharduen taldearekin elkartzeko aukera izan zuen eta harriduraz hartu du zenbat ezkutuko lan egin den. Uste zuen proiektua ez zegoela horren garatua.

Zela igarriko dugu Debagoienera? Lurralde osoak eta Euskal Herri osoak igarri beharko luke. Proiektu zaila da. Ez delako horren begien bistakoa, beste proiektu batzuekin alderatuta. Alde horretatik ez da horren ikusgarria. Ezberdina da. Proposamen eta egiteko modu berriak aurkeztuko ditu. Elkarren arteko bizikidetza bultzatuko du, bakea oinarri dituen balioak. Hori guztia



Ikerne Badiola oraingo astean Arrasaten. | ENeko AZKARATE

"Bilduk arau batzuk adostu ditu beste erakunde eta beste alderdi batzuekin"

"Berastegik uste zuen proiektua ez zegoela horren garatua"

"Agintaldia amaitu aurretik UNEDen egoitza berriko lanak hasiko dira"

zaila da nabarmen edo denon begien bistako egitea. Sarritan begietara so egiteko arazoak ditugu, baina, pixkanaka-pixkanaka, zirimiria bezala, guztiok zipriztinduko gaitu.

Eskualde honetan antolatuko dira ekitaldiak? Bai. Eta, esaterako, Bergarako Udalak pare bat proiektu aurkeztu dizkio Donostia 2016ri. Oraindik ez daude onartuak, baina oso interesgarriak dira eta ekarpenak ondo etorriak dira. Barneratu behar ditugu herri bakoitzak izan ditzakeen proiektuak Donostia 2016ri begira.

Zinemaldia ere ate joka dugu. Aurreten toki nabarmena izango du euskarazko produkzioak... Bai, hala da. Historikoa izango da, lehen aldiz euskara ekoiztu, sortu eta emandako film bat lehiatuko da-eta sail ofizialean Urrezko Maskorraren bila: *Loreak*. Sail ofizialean, euskarazko beste film bat ere izango da, lehiaketatik

kanpo: *Lasa eta Zabala*. Inoizko parte hartze edota protagonismo handiena izango dute euskarazko filmek aurtengo Zinemaldian. Alfonbra gorria baino askoz ere gehiago da. Zinemaren industriak Zinemaldian presentzia handiagoa izan dezan asko egin da lan azkenaldian.

Euskarazko zine produkzioa sustatu eta laguntzen du Diputazioak? Bai, esaterako, aipatu ditudan Zinemaldiko bi film horiez gain, *Asier eta biok* ere bai.

Beste kontu bat: Txillida-leku. Irekiko da berriro ere? Ez dut galdutzat ematen eta Donostia 2016rako aukera paregabea da. Guztion nahia izango litzateke hango ondare izugarria herri-terrendako ikusgai jartzea, baina ez dugu ahaztu behar Txillida-leku familiarena dela. Gure ustez, erakundeon lehentasuna ez da ondare hori erostea. Baina prest gaude Txillida-leku irekitzeko edozein harreman egiteko.

Bergaran aurki irekiko dute Errege Seminarioko zientzia bildumaren zati bat erakutsiko duen museoaren Errekalde jauregia. Zenbateko garrantzia dauka museo horrek eta non kokatzen da lurraldearen museoaren mapan? Berebiziko garrantzia dauka. Museo guztiak batek besteekin elkarlanean jardun behar dute. Eta pozgarria da Bergarak, behin-goz, erakutsi ahal izango duelako Errege Seminarioko zientzia bilduma hori, altxor hori.

Errege Seminarioa aipatu dugunez, azkenean akordioa lortu da UNED unibertsitateari kokapen berria emateko. Noizko ikusiko dugu UNED eraikin edo egoitza berria, Arrizuriaga jauregia? Irailaren 17an batuko da Bergarako UNED fundazioko patronatua Bergaran eta orduan zehaztuko da egutegia. Arrizuriagako proiektua egina eta gaurkotuta dago. Hortaz, erabakia hartu ostean erakunde guztien adostasunaz, bideratuta dago kontua. Oso pozgarria da Errege Seminarioa Bergarako Udalak berreskuratzea eta, bestetik, UNEDek ganorazko egoitza bat edukitzea. Agintaldia amaitu baino lehen Arrizuriaga-ko lanak hastea espero dugu.

Tabakalera aurrera doa? Bai, bai, bide onetik doa eta datorren urtean, udan, zabalduko da zati bat. Ekainetik aurrera.

Elkarriketa osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



DUELA 10 URTE

2004-09-16

AP-1 autobideko lanak Arlabanen

AP-1 autobidearen zati zailena egiten hasi ziren; hain justu ere, 10,5 kilometro luze izango zituen Arlaban eta Eskoriatza arteko zatia. Tarte hori egiteko 200 milioi euroko aurrekontua zegoen aurreikusita; besteak beste, bost zubi eta bi tunel egin behar ziren: Zarimuzko tunela, 400 metrokoa; eta Isuskitzakoa, 3.380 metrokoa. Eskumako irudian, Gipuzkoako eta Arabako diputatu nagusiak, lehen harria jartzen.



Ahaldun nagusiak kutxa lurperatzen. | ZVM

2004-09-23

Arrasaten 100 etxebizitzaren zozketa

Babes ofizialeko ehun etxebizitza zozketatu zituzten Arrasateko Uarkape pilotalekuan. Guztira, 907 lagunek hartu zuten parte zozketan, bost kupotan banatuta: zailtasunak zituztenak; guraso bakarreko familiak; antzinakotasunaren arabera Etxebiden ize-na eman zutenak; 35 urtetik beherakoak; eta kupo orokorra. Zerrajera inguruan eraikiko ziren etxeak 60 eta 90 metro karra-tu bitartekoak ziren.

DUELA 5 URTE

2009-09-17

Aramaioko jolasparkea

Aramaion hasi zituzten 3 eta 6 urte bitarteko umeendako jolasparkea berritzeko lanak. Bi zatitan banatu zuten gune hori: kultura etxe ondoko gunea 0 eta 3 urte bitartekoendako eta aldameneko zatia nagusiendako. Hain justu, azken gune hori berritu zen. Obra horietarako 55.881 euro bideratu zituen Udalak.

ESKORIATZA

HERRITARRAK

Jabi Corbal Familiarekin egotea, kirola egitea, saskibaloia partiduak ikustea eta irakurtzea du gustuko; baina jakin badaki Eskoriatza Kirol Elkartek ez diola denbora libre askorik uzten | MIRIAN BITERI

"Ez dut mugarik, liburu batekin hasten naizenean ez dut uzten amaitu arte"

Eskoriatza Kirol Elkarteko presidentea da Jabi Corbal. Agian, elkarte horretan egiten duen lanagatik da ezaguna Corbal. Baina kargu horren atzean, urrian 41 urte beteko dituen "eskoriatzar petoa" dago. Datozen lerroetan, geratzen zaion denbora libre gutxian dituen zaletasunak azaltzen ditu, besteak beste.

Nor da Jabi Corbal?

Eskoriatzar bat, beste edozein bezala. Kasu konetan, Eskoriatza Kirol Elkartean zaletasunez sartuta dagoen herritarra naiz; besterik ez.

Eskoriatza Kirol Elkartean zaletasunez zabilatzala diozu; baina lan asko emango duen zaletasuna izango da, ezta?

Bai, hala da. Zaletasuna da, baina presidente kargua hartu nuenetik, lana ere bada, noski. Nire zaletasuna saskibaloia entrenatzailea da; eta kirol elkarteko presidente kargua lan moduan definituko nuke.

Gogoan duzu zelan sartu zinen elkartean?

Zehatz-mehatz zenbat urte diren ezin dizut esan, baina orain dela 20 bat urte izango zen. Saskibaloia entrenatzaile moduan sartu nintzen, kadete mailako neskena. Handik bi urtera, gazte mailako mutilekin hasi nintzen; eta horren ondoren, emakumeak entrenatzearekin nion ostera.

Ez dago zalantzarik, saskibaloia duzu gustuko.

Hala da. Oso gustuko dudana kirol jardura da, eta gaur egun, gutxiago bada ere, jarraitzen dut. ACB ligako partiduak ikustea gustuko dut; baina gura baino gutxiago ikusten ditut azkenaldian. NBA ere jarraitzen dut, eta baita beheko kategoriak ere, jakina. Hain justu, horixe da dibertigarriena niretako: beheko kategorietan kolaboratzea.



Jabi Corbal, Eskoriatza Kirol Elkartean bulegoan, Gabez Takarraran-en jasotako oroigarria eskuetan duela. | MIRIAN BITERI

"Saskibaloiko Kopa Txapelketa ikustera noa urtero; datorren urtean Kanarietara"

"Txoko kutunena: Atxorrotz, zalantzarik barik; berezia da niretako"

Elkarteko presidente kargura itzuliz, ez da samurra izango Manolo Muñoz zenaren ondoren horrelako kargu bat betetzea, ezta?

Manolok lan egiteko sistema erakutsi zigun; lan asko egitea funtsezkoa dela irakatsi zigun; eta baita elkartearen familia moduan maitatzea ere. Pertsona eta profesional paregabea zen. Guk ahal duguna egiten dugu.

Oraingo zuzendaritzak ere ondo gidatzen du elkartearen, 50 urte bete dituzue-eta aurretik...

Bai. Dena dela, helburua ez da urteak betetzea, herrian kirola sustatzea baizik. Egia da 50 urte ez direla urtero betetzen, baina osasun ona daukagu, eta baita lantalde ona ere. Esan beharra dago ni naizela elkartean aurreko zuzendariaren aurpegi ezaguna, baina atzean 40 lagunek osatutako talde ezin hobea dagoela. Herria eta elkartearen maitasuna, eta horrek aurrera jarraitzea ahalbidetzen du.

Kirol elkartean gain, izango duzu bestelako zaletasunik...

Denbora librean familiarekin egiteko aprobetxatzen dut. Lehen, horrez gain, kirola ere praktikatzen nuen: mendira joaten nintzen eta urrian astebete gordetzen nuen Pirinioetara joateko edo, besterik gabe, bidaiatzeko. Orain, hori guztia ezinezkoa da. Hori bai, saskibaloiko Kopa Txapelketa ikustera noa urtero; aurretik Malagan izan naiz, eta dagoeneko badauzkat hartuta datorren urteko txartelak ere. Kanarietara noa datorren urtean.

Irakurtzea gustuko duzula ere badakit...

Izugarri. Denbora nuenean asko irakurtzen nuen, baina orain, uda partean, gehienez, bizpahiru libururik irakurtzen ditut. Ez dut mugarik, liburu batekin hasten naizenean ez dut uzten amaitu arte; eta emaztea, batzuetan, haserretu egiten da.

Eskoriatzaz ere egingo dugu berba. Zelan ikusten duzu herria?

Oso ondo. Bestalde, kanpotik datorren jendea harrituta gertatzen da antolatzen diren ekintzekin, bereziki uda partean. Astebururako dago zerbait, eta ez naiz kirol jardueraz bakarrik ari; Amuska eta Aitzorrotz elkarrekin edo unibertsitateak, esaterako, askotariko ekintzak gertatzen dituzte. Dena dela, esan beharra dago, Debagoieneko gainerako herrietan bezala, jendeak alde egiteko ohitura duela asteburuetan, eta, agian, zerbait egin behar genuke hori ekiditeko.

Amaitu aurretik, beste norabait joango zinateke bizi izatera? Herriko txoko gustukoena?

Ezta pentsatu ere. Eskoriatzar petoa naiz, ez nuke Eskoriatza utziko. Herri txikia da, eta denok ezagutzen dugu elkar. Eta txoko kutunena: Atxorrotz, zalantza barik. Berezia da niretako.

NIRE HERRIAN

SEMAFORORIK EZ IZATEA

Herrigunean semafororik ez izatea ona dela uste du eskoriatzarrek. Horren harira, honakoa aipatu du: "Oso arraroa da 4.000 herritar inguru dituen herri batean semafororik ez izatea. Horiek behar ez izateak esan gura du gai garestia pazientzia izateko eta lasaitasunez bizi ahal izateko. Eta hori oso garrantzitsua da".

GAUZAK GUTXI ZAINDUTA

Herria oso gutxi zaintzen dela dio: "Ematen du guztiona dena apurta egin daitekeela, eta norberarena dena ez; eta horrek ez luke horrela izan behar. Azkenaldian, apurketa asko egon dira pilotalekuan edo erdiko loreontzietan. Ez dauka zentzurik. Hormak margotzea ere ez dut ondo ikusten; muralak egiteko guneak jarriko nituzke nik".

HERRIAK

ARRASATE

Bizikletei bide emanaz, herri iraunkorragoan

- Martitzenean hasiko da aurtengo Arrasateko Mugikortasun Astea
- Mugikortasun Mahaia eratuko da bizikleta bideen jarraipenerako

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Iraunkortasunak udal egutegian beretzat duen aste berezia da datorrena. Mugikortasun Asteak, Agenda 21 delakoaren barruan, martitzenean hasi eta datorren astelehenera arte iraungo du, baina, ohiko bizikleta azokaz eta erakusketaz gain, herritarren partaidetzan sakondu gura da aurtengo. Udalak, bizikletaren erabilpena sustatzeaz gain, hitza ere eman gura die asmo dituen bizikleta-bide berrien proiektuei begira.

Sarea gauzatuz

Sarea zatika eta tarteka dabil gauzatzen Arrasaten. Garapen fase

eta egoera desberdinetan, baina asmoen barruan daude Atxabalpe eta araztegiainoko zatia –ia osaturik, moldaketa batzuekin– Arimazubitik Aretxabaletarako ardatza –laster zati baten lanean hasteko ak– eta, azkenik, Etxaluze-Musakola ardatza. Azken hori da herritarrekin kontrastatu gura duten zatia, “denon artean diseinatutako herria” helburu, Josu Pereda Ingurumen zinegotziak eguazteneko aurkezpenean aginduzue.

Bide, bizikleta, oinezko eta autoen elkarbizitzan asmatu gura dute Udaletik. Mugikortasun Plana berraztertzen dihardute eta

bizikleta bideek, ezin bestela, atal garrantzitsua osatzen dute. Foru Aldundiaren ardurapeko dira herrien arteko zatiak eta herri barrukoa udalerrinari dagokio. Lehenasunez kotzat ditu orain Arrasateko Udalak Etxaluze-Musakola ardatza eta Takolo-Goiru tartea.

Erakusketa eta azalpenak

Irailaren 22an zabalduko duten erakusketan, Etxaluze eta Musakola arteko bizikleta bideak eskaintzen dituen aukerak erakutsiko dira. Ibilbide osoa, zatirik zati, bere ezaugarri eta aukerei buruzko informazioarekin azalduko da

eta edozein zalantza han egongo den udal teknikari batekin argitu ahal izango da. Herritarrek begiratu, galdetu eta iradokizun zein dudak idatziz utzi ahaliko ditu. Alternatiba praktikoa eta seguruenarekin jo gura du Udalak, herritarren aholkuarekin. Erakusketako informazioa udal webgunean ere jasoko da atal berezi baten eta Internetez ere egin ahaliko da partaidetza. Iritzi horiek jasoko ditu Udalak eta alboan izango du gaia lantzeko eratu gura duten Mugikortasun Mahaia, azkenik. Ingurumen Saila harremanetan jarri da bizikletaren erabilerekin zerikusia duten talde eta inplikatuak eta jarraipen talde moduko

MUGIKORTASUN ASTEKO EKINTZAK

IRAILAK 20, ZAPATUA

11:00 - 15:00 Bigarren eskuko bizikleta azoka Mondragones kalean.

11:00 - 13:00 Mugikortasun tailerrak eta jolasak, Biteri plazan.

11:00 - 15:00 Emisio txikiko ibilgailuen erakusketa, Biteri plazan.

IRAILAK 21, DOMEKA

11:00 Bizikleta bira, Monterondik Zubillagara.

IRAILAREN 22TIK 29RA

17:30 - 20:30 Erakusketa: Etxaluze-Musakola bizikletaz egiteko alternatibak (Kulturate).

bat osatuko dute. Lehenbailehen hasi gura dute lanean, irail amaierarako gertu egon gura dute-eta; taldea osatzeko, interesa duen edonork ateak zabalik dituela gogorazten dute Ingurumen Sailetik.



lazko bigarren eskuko bizikleta azoka. | GOIENA

Bigarren eskuko azoka

Guztia gertu du Udalak datorren martitzenean Mugikortasun Astea hasteko. Aste osoan hiribusa doan erabiltzeko aukera egongo da, eta, astean zehar, zapatuan egingo den bigarren eskuko bizikleta azokarako materiala batzen ibiliko dira. Ibai-Arteko merkatariek ere bat egiten dute astearekin eta produktu otzaren zozketak egiten dihardute irailaren 1a ezker.

Materiala noiz utzi

Udal Azokan batuko da bigarren eskuko azokan salgai ipiniko den materiala. Zapatuan, irailak 13, 11:00etatik 13:00etara egongo da aukera eta aste barruan, martitzen eta eguenean, egingo da batuketa 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara.

Udaletik zehazten dutenez, egoera onean dagoen edozein material jasoko da. Edozein motatako bizikletak hartuko dira, eta baita bizikletarekin lotuta dauden mota guztietako materialak: gorpilak, kaskoak, eskularruak, maillotak... Bizikletez gain, triziklo, patin eta patineteak ere onartuko dituzte. Udaletik eskatzen dute materiala garbi eta egoera onean egon dadila.

OMEGA
urban
Service

24h



945 290 308
www.igogailuak.com
debagoiena@omegaurban.com

Birgaitzeak
Modernizazioak
Ordezkapenak
Zero Kotarako Jaitsierak
Igogailuen
Mantentze-lanak



Aurkezpena Kulturaten egin osteko talde argazkia, Seber Altube plazan. | JOKIN BEREZIARTUA

Euskal presoen aldeko elkartasun uholdea izango da bihar Arrasaten

Badator Elkartasun Eguna, egun osoko egitarauarekin; aurtan, disko berezia eta bideoklipa kaleratu dituzte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Dena dago gertu euskal preso, iheslari eta errefuxiatuen eskubideen aldeko Elkartasun Egunerako. Bihar izango da, adin guztiendako eta egun osoarako egitarauarekin. Martitzenean Kulturaten egindako agerraldi jendetsuan, herriko euskal preso, iheslari eta errefuxiatuen egoera zein den gogora ekarri zuten. Era berean, adierazi zuten elkartasuna "hitz potoloa" dela eta herri

honek ondo ezagutzen duela haren esanahia: "Herri honek ondo daki elkartasuna hitzaren esanahia. Betidanik adierazi du anaiarekiko, beste herriekiko eta espetxean zein herritik urrun aurkitzen diren senide zein lagunetikiko elkartasuna".

Herritarren inplikazioa beharrezkoa dela gaineratu zuten: "Guztion artean egin behar dugu lan, sare sendoak sortu eta fitxa mugitu behar dutenei fitxa mugi-

tzera behartu", uste du antolakuntzako kide Maier Urangak.

Egitarauko ekintza guztietan parte hartzeko gonbidapena egin dute; nobedadeen artean dago eguerdirako kontzertuak antolatu dituztela bost tabernatan.

'Hainbat ohe huts' diskoa

Bederatzigarren edizio honetako beste nobedade bat da *Hainbat ohe huts* izeneko diskoa kaleratu dutela, eta diskoak biltzen duen

abestietako batekin bideoklipa egin dute. *Norantza bakarra* du izenburu abesti horrek: "Abesti esanguratsuena da. Marixol Iparragirrek eta Mikel Antzak espetxetik bidalitako kanta bat da eta guk hitzei musika jarri genien", adierazi zuen antolakuntzako kide Oier Beitia musikariak.

Diskoarekin duela bi urte hasi ziren lanean eta zortzi kantu ditu. Besteak beste, Arrasateko Des-kontrol, Enboskada eta

Dirty Brothers taldeen kantuak ditu. Bada, CDa dagoeneko salgai dago Dat, Amaiur, Irati eta Iluntz tabernetan.

Diskoaren helburua argia da, Beitiak azaldutakoaren arabera: "Lagunartean hasi ginen diskoa lantzen duela bi urte, ideia finko batekin. Hau da, euskal preso, iheslari eta errefuxiatu politikoei eta euren senideei elkartasuna adieraztea eta, ahal dugun neurrian, laguntzea".

BIHARKO EGITARAUA

11:00 Umeentzako tailerrak eta jolasak. Grafitia herriko artistekin, musika, pintxoak... Biteri plazan.

13:00 Kontzertuak bost tabernatan.

14:30 Bazkaria Biterin.

17:00/18:00 Kontzertuak hamalau tabernatan.

20:00 Manifestazioa euskal preso, errefuxiatu eta iheslarien eskubideen defentsan, Herriko Plazatik.

22:00 Kontzertuak gaztetxean; sarrera 5 euro:

► RPL

► Los Galerna

► Elkartasun Taupadak

► The Potes

Zerbait aldatzen ari da ARRASATEN

Aukera berriak!

Izan haien berri gure webgunean

www.sukia.com

ONGI
ETORRI

Bista ederrak
Atikoak 198.000 €-tik
hasita

Zatoz eta hitz
egingo dugu

600 902 224



UTE URIBARRI
sukia GEDI



Irrien Lagunetako, Txatxilipurdiko eta Arrasateko Udaleko ordezkariak umekin, jaiaren aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

Bizipozaren Jaian egitarau oparoa

- Familia osoarendako jai solidarioa irailaren 21ean
- Goienak eta Irrien Lagunek eskaintza berezia dute

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Porrotx eta Ane Pirata Arrasatera etorri dira martitzenean Bizipozaren Jaia nongatik nora-koak azaltzeko asmoz, eta neska-mutikoek ez zuten galdu argazkiak ateratzeko aukera. Irrien Lagunak Gizartegintzarekin batera Arrasateko hainbat taldek eta eragilek, Goiena barne, antolatutako jaia da irailaren 21ean, domekan, Arrasaten ospatuko dena. Aurkezpenean, Porrotxez eta Ane Pirataz gain, Txatxilipurdiko Eneko Barberena eta Arrasateko alkate Inazio Azkarraurizar egon ziren.

Jai solidarioa da; izan ere, Irrien Lagunak Gizartegintza hainbat elkarteri laguntzeko sortu zuten pailazoez; adibidez, Aspanogi, Pausoka edo Etiopia Utopia. Porrotxek azaldu zuen moduan, haur gaixoei laguntzera doazenetan, "eman baino gehiago" jaso egin ohi dute. Aurten, gainera, Ziburuko ikastolaren tzako dirua batzeko jolas bat egingo dute. Egun osoan egongo da zer egin, 10:00etan hasi eta 18:00ak artean lau gunetan. Alkatetarako, berriaz, azpimarratu nahi izan zuen oso pozgarria dela herriko horrenbeste taldek bat egin izatea, eta Txatxilipurdik 20 urte betetzen dituela ekarri zuen gogora Porrotxek.

Lau gune

Lau gune egongo dira eta Biteri plazakoa izango da gune nagusia; beste hirurak doakoak izango dira. Biterin emango diote hasiera jaiari, eta bertan, pailazoak, tailerrak, magia, abesbatzak eta beste hainbat ikuskizun egongo

dira. Tailerrak Txatxilipurdikoek, Ereindajan elkartekoez eta Arrasateko gaztetxeek eskainiko dituzte; besteak beste, serigrafia, hazi landaketa eta eskulan tailerrak egongo dira.

Bestalde, Azoka plazan herri bazkaria egingo dute, Seber Altube plazan puzgarriak jarriko dituzte eta Jokin Zaitegi plazan, oster, apar festa egingo dute, 16:00etan.

Sarrerak salgai

Gune nagusirako sarrera 5 euro izango da, gurasoak doan sartuko dira eta Elkar dendetan eta Gazte bulegoan salgai daude. Sarrera, baina, ez da edonolako, bururako zapi bat izango da, eta Arrasate zapiz betetzea izango da helburua.

Horrez gain, Goiena Komunizazio Taldeak eta Irrien Lagunek elkarlanean osaturiko eskaintza ere zabalik dago, sarrera eta harpidetzaz gain opari ederrak

EGITARAUA

10:00: Gunearen irekiera.
10:00: Kirol egokituak eta txakur erkustaldia.
10:30: Harrera instituzionala.
11:00: Abesbatza.
12:00: Pirritx, Porrotx eta Marimotots.
15:00: Karaokea.
15:00: Kaxoi tailerra.
16:00: Apar festa (Jokin Zaitegin).
16:00: Txakur erakustaldia.
17:00: Ane eta piratekin parrandan.
Goizean: Erraldoi eta kilikiak, eta dantzariak, herrian barrena.
Egunean: Eskulanak, tailerrak, serigrafia, ludoteka...

jasotzeko aukeraz. Goiena Klubeko eta Irrien Lagunak Klubeko bazkidetza, erdi prezioan (60 euro) eta hainbat opari. Informazioa: Goienaren Arrasateko egoitzan.

Gogoetarako kilometroak egingo dituzte domekan

J.D. | ARRASATE

Domekan egingo dute, urtero bezala, Arantzazura erromesaldia Arrasateko fededun askok. Ohiturak agintzen duen moduan, Arantzazuko Amaren egunaren osteko hurrengo domekan egingo dute erromesaldia, eta autobusez zein oinez igoko dira santutegira.

Autobusez doazenak 09:00etan irtengo dira Garibai-ko geltokitik; dagoeneko autobus bat bete dela esan du Argarate parrokoak, baina beste bat betetzea espero dute. Oinezkoak, ordea, 06:30ean irtengo dira Kontezino kaletik. Bertan elkar-tu ostean, Bedoñara egingo dute

martxa, hortik Urkulura eta Gesaltzara. Han, autobusean joango diren erromesekin elkartuko dira eta guztiok batera oinez egingo dituzte azken kilometroak. Argarate esan du azken urteotan jende asko autoz igotzen dela.

Meza eta banderari agurra

Argarate parrokoaren arabera, erromesaldiaren azken hiru kilometroak izan ohi dira berezienak, fededunek kantuan eta gogoeta giroan egiten dituzte-eta.

Arantzazura helduta, meza egingo dute; amaitzeko, Arrasateko banderari agurra egingo diote txistulari eta dantzariak.



JAGOBA DOMINGO

Zumbaren arrakasta kiroldegian

Zumba, body balance, K-stretch eta aquarunning kirolak zer diren ikusi eta ikasteko aukera egon da martitzenetik eguenera Musakolako kiroldegian, eta arrasatearrek ez dute aukerarik galdu. Ehun pertsonatik gora animatu dira kiroldegian modalitate horiek probatu eta datorren ikasturteko agendan zereginak apuntatzeko.

Ikasturteari hasiera emango diote Besaide Mendi Elkartekoez

Besaideko Oroimen Eguna ospatuko dute irailaren 21ean, zapatuan, mendiak eraman dituen mendizaleen omenez. Besaiden 10:30ean elkartuko dira. Irailaren 28an, bestalde, Opakua portutik hasi eta Zior-diaraino joango dira, Arabako lautada integralaren lau-garren etapa osatzeko.

Hiru autobus irtengo dira Iratxera Abaroak antolatutako irteeran

Abaroa erretiratuen elkar-teak Nafarroara irteera antolatu du urriaren 15erako. Iratxera joango dira; aurretik, baina, Cava Mainegro upategira bisita egingo dute. Bazkaria Iratxe hotelean egingo dute eta ostean bingoa eta dantzaldia izango dituzte. Urriaren 8a da izena emateko eguna.

MERENDERUE

MARITXUTARAKO MENU BEREZIAK

27 € eta 35 €

AUTOBUSA BARNE

Lekua hartu irailaren 28a baino lehen

943 77 15 86

BIODANTZA 626 66 12 92

astea IRAILA 15-29

ELKARTASUN GUNEAK IREKIZ

ARRASATE

- Asteazkena, 17. Arrasate Yoga Elkartea. 19:30-21:30.
- Osteguna, 25. La Merced ikastetxea. 18:30-20:30. (Euskaraz)
- Astelehena, 29. La Merced ikastetxea. 19:30-21:30.

ELORRIO

- Ostirala, 19. Txintxirri ikastola. 18:00-20:00.

BERGARA

- Astelehena, 22. Mariaren Lagundia ikastetxea. 18:30-20:30.

NAFARROAKO PIPERRAK

Arrasaten egosita

Eroski hipermerkatuaren parkingean gaude

609 21 00 62

Udala, moxal okelaren kontsumoa sustatu guran

Lehen sektorea bultzatzeko egitasmoaren barruan kokatzen da kanpaina

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Lehen sektoreari bultzada berezia emateko egitasmoaren barruan, moxalen hazkuntza eta moxal okelaren kontsumoa sustatu guran dabil Udala. Hainbat neurri hartu dituzte dagoeneko eta sensibilizazio kanpaina abiatu dute herritarrengan okela horrek dituen abantailen berri emateko.

Udalak gogora ekarri duenez, duela 30 urtera arte Arrasaten eta inguruan ehunka moxal edo txiko hazten ziren. Batez ere, Anboto-Tellamendi eta Udalatz tarte horretan behor talde ugari izaten zen. Gainera, Ingurumen teknikari Pello Garaik azaldu du Arrasaten bertan bazela moxal okela saltzen zuen harategi bat, oso ezaguna zena, Iturriotz kalekoa. Horrek guztiak esan gura du, Garairen arabera, garai batean hemen moxal ugari zegoela, eta Arrasaten bazela moxal okela jateko ohitura. Egun, ordea, ia

ez dago moxal hazkuntzarik Arrasaten. Gainera, Frantzia eta Italia aldera esportatzen da.

Pintxoak baserritarren azokan Bertako moxal okela jateko ohitura galdu izana ulertzeko hiru arrazoi eman ditu Garaik: lehena, moxalak mendian libre modu naturalean egoteak errepidera irtetea eragin duela, eta haien hazkundera galarazi; bigarrenik, uda partean egoten den ur faltak moxalak ur bila kanpora joatea; eta, azkenik, okelaren gaineko ezagutza falta.

Hiru arrazoi horiei aurre egiteko neurri zehatzak hartu ditu Udalak. Batetik, itxiturak, igarobide kanadarrak eta atakak jarri dituzte, moxalek alde egin ez dezaten. Era berean, ur faltarik ez egoteko ur-askak jarriko dituzte udazkenean, eta, azkenik, moxal okela ezagutzera emateko sensibilizazio kanpaina bat abia-

tu dute. Izan ere, Garaik azaldu duenez, moxal okela dastatzea merezi du: "Modu naturalean hazi eta elikatzen dira. Gainera, ikerketek diote oso osasuntsua dela; gantz gutxi, kalitatezko proteinak eta burdina asko dauka. Umeendako, nagusiendako eta kirolariendako gomendagarria da, erraz digeritzen dena". Horrez gain, herriko zenbait harategitan "oso prezio onean" saltzen dela adierazi du Ingurumen teknikariak. Herritarrei begira, irailaren 20ko baserritarren azoka izango da lehen geldialdi garrantzitsua. Azokan bertan moxal bat erreko dute, eta 700-800 bat pintxo prestatu. Era berean, sei bat moxal, lau edo bost behor eta zaldi bat ekarriko dituzte azokara, herritarrek ikus ditzaten.

Hori bai, Garaik argi utzi gura izan du azoka ez dela erakusleio bat izango, "erosi eta saltzeko" plaza bat baizik.



Moxal bat Kurtzetxiki gaineko larrean bazkatzen. | GOIENA

Barrenatxo errotaren aztarna arkeologikoak nabarmentzeko proiektuaren lanak esleitu dituzte



Barrenatxo errotaren egungo egoera. | JOKIN BEREZIARTUA

J.B. | ARRASATE

Uribarri auzoan dagoen Barrenatxo errota dela-eta erabaki garrantzitsua hartu du asteon Udalak. Izan ere, errotaren aztarna arkeologikoak mantendu eta nabarmentzeko lanak Construcciones Etxaide enpresari esleitu dizkio. Lanen aurrekontua 4.719 euro izango da.

Barrenatxo errotaren inguruko lehen aztarna idatzia XV. mendekoak dira, eta, besteak beste, bidezainen biltegia, ganaduerendako pentsuaren lantegia eta okre-koloreko pintura lantegia izan da. Egun egoera kaxkarrean dagoen arren, Arrasaterendako balio handikoa dela diote Arrasate Zientzia Elkartekoek: "Arrasaten ez dago hain eraikin zaharrik. Halakoak finkatu egin behar dira behin betiko; erreferentzia moduan hartu behar dugu".

Uribarri-Erguingo festak izango dira asteburuan

Gaur hasi eta etzira arte, askotariko ekintzak; gaur, Los Zopilotes Txirriaos taldeak joko du

J.B. | ARRASATE

Uribarri-Erguin auzoa jaietan murgilduko da aste bukaeran. Oraindik ere mantentzen diren jaiak izan arren, auzo alkatezak jakitera eman du festak gainbeheran daudela: "Batez ere auzotarren parte-hartze ezak kolokan jarri du aurten festak antolatzea. Norbera ere ilusio faltarekin eta bestelako lanekin ari denean zaila egiten da festak antolatzen jartzea; hala ere, egitaraua aurrera ateratzea lortu dugu azkenean", dio auzoko alkate Kristina Zeziagak.

Gainera, bihar euskal pre-soen aldeko Elkartasun Eguna izateak auzoko jaiak "zuzenean" eragingo diela uste dute: "Zapaturako ez dugu kontzerturik antolatu Elkartasun Eguna delako. Horregatik egubakoitzean eta domekan izango da zuzeneko musika".

Goi mailako kontzertuak gaur

Gaur bi kontzertu izango dira. Batetik, bertsoa eta musika nahasten dituen Bi Bala taldea eta bestetik, Los Zopilotes Txirriaos talde nafarrak musika dantzagarriaz eta umorez jositako zuzeneko eskainiko du.



Los Zopilotes Txirriaos. | L.Z.T.

JAIETAKO EGITARAUA

GAUR, EGUBAKOITZA

17:00 Umeendako eta gaztetxoendako tailerrak Txatxilipurdiren eskutik, Usaetxe ludotekan.

19:00 Suziri jaurtiketa.

19:30 Boloa, buruhandiak eta erraldoiak Usaetxen.

22:30 Bi Bala eta Los Zopilotes Txirriaos taldeen kontzertua Usaetxe plazan.

BIHAR, ZAPATUA

10:00 Diana.

11:00-14:00 Tirolina, ohe elastikoa, arku tiroketa, skatea, *frontoning*-a eta patin pista Iturripen.

11:00-14:00 Haurrendako puzgarriak Iturripen.

14:30 Auzokoendako bertso bazkaria Larrea plazan. Txartelak salgai Hilarion jatetxean.

16:30-19:30 Tirolina, ohe elastikoa, arku tiroketa, skatea, *frontoning*-a, patin pista eta puzgarriak Iturripen.

ETZI, DOMEKA

10:00 Diana.

11:00 Azoka Arimazubin, Eskuartean taldeari esker.

12:00 Globoflexia.

17:00 *Magalikin ametsetan* ipuin kontalari saioa Hilbera tabernan.

19:00 Rojo Cancionero Y Banderas Rotas taldearen kontzertua.

Herri palestinarrari zuzendutako anestesia-makina lortzeko 2.000 euroko laguntza emango du Udalak

Aldundiak eta Donostiako Udalak abian jarritako kanpainarekin bat egin du Arrasateko Udalak. Kanpainaren helburua da palestinarrendako anestesia-makina bat erosi eta Gazara bidaltzea. Makina horren kostua 30.000 euro da eta Udalak asteon onartu du tokiko gobernu batzarraren bidez 2.000 euroko laguntza ematea. Zisjordaniara bidali ostean, Palestinako Osasun Ministerioa eta Gurutze Gorria arduratuko dira Gazara eramateaz.

Ibai-Artek 100 otzara zozketatuko ditu bezeroen artean, Merkataritza Berdearen astearen barruan

Datorren astean izango den Merkataritza Berdearen astearen harira, 100 otzara zozketatuko dituzte Ibai-Artekoek elkarteko kide diren komertzioetan hilaren 19ra bitartean erosketak egitegatik. Sarituak izan diren bezeroek irailaren 20an jaso behar dute saskia San Frantzisko eliza inguruan (13:15), hileroko baserritarren azokaren barruan. Banatzen ez diren otzarak Elikagai Bankura bideratuko dira.

Maila ona Kulturete Akustikoa ixteko

The Fakeband, Joana Serrat eta Arcana Has Soul, asteburuko proposamenak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udaleko Kultura Sailak antolatutako Kulturete Akustikoa ekimenaren seigarren edizioa aste bukaeran amaituko da. Musika eskaintzan sumatzen zuten hutsune bat betetzeko sortu zen musika zikloa: "Dagoen eskaintza osatzea eta Kultureteko areto nagusiari bestelako erabilera bat ematea ditu helburu gaur egun ekimenak", dio Kultura teknikari Karmelo Alberdik. Honako hauek dira kontzertuen ezaugarri aipagarrienak: formatu txiki-kiko emanaldiak, 150 bat ikusle-erendako edukierarekin eta eserita entzutekoak, eta akustikoak gehienetan, nahiz eta proposamen batzuk elektrikoagoak diren. Kontzertuak 20:00etan hasten dira.

Getxoko The Fakeband gaur

Gaur, Getxoko The Fakeband taldea izango da gonbidatua: "Smile taldearen lehengusua dira; Smilek duela bi urte jo zuen Kulturaren eta txapela kentzeko moduko kontzertua eskai-

ni zuten. Ikusle bat baino gehiago etorri zitzaidan kontzertu ederra izan zela esatera", gogoratzen du Alberdik. Bihotza ukitzera heltzen den musika da, bizia eta zirrargarria, eta eragin klasiko garbia duena -folk-rocka, Amerikako 1970eko hamarkadako mendebaldeko kostaldeko popa eta country-rocka.

Serraten ahots gozoa bihar

Biharko proposamena da Joana Serrat katalanaren musika amerikarra. Popa, folka eta rocka ditu oinarri: "Ibilbide luzea darma, baina orain gutxira arte ez du arrakasta handirik izan. Hala ere, azken urtean izena hartu du, askoz gehiago mugitu da eta Primavera Sound jaialdira gonbidatu dute. Geroago eta gehiago entzuten zaio eta oraindik ere ibilbide oparoa izango duela espero da".

Zenbait urtez bakarlari moduan ibili arren, musika taldearekin dator Kulturetera eta haren ahots gozoari esker bihotza

ukitzera heltzen diren abestiak interpretatuko ditu: "Elkartasun Eguna da zapatuan eta beste urte batzuetan ez dugu kontzerturik antolatu izan egun horretan. Baina zapatuan Joana Serrat ekartzeko egun bakarra zenez, aurrera egitea erabaki genuen", argitu du kultura teknikariak. Biran dator, Galiziatik.

Arcana Has Soul etzi

Domekako gonbidatua izango da Saguntoko (Valentzia) Arcana Has Soul. Kultura Saila iaz ekartzan saiatu zen, baina ez zuten lortu. Askotariko doinuak eskainiko dituzte: soul, blues, pop, folk, jazz eta swing doinuekin etorriko dira. Hala ere, instrumentazio aldetik ukitu berezia dute; ukelelearekin, mandolina-rekin, biolinarekin eta biolontxeloarekin datoz, besteak beste: "Abeslariak oso ahots indartsua dauka eta euren zuzenekoek ospe handia dute".

Sei edo zazpi lagun igoko dira Kultureteko agertokira.



Pablo Gartzia, iazko memorialean, jokalariei aginduak ematen. | GOIENA

'Pitxi' Herreroaren omenezkoa asteburuan

Ford Mugarrik Hondarribiaren aurka jokatuko du bihar (18:00); finala domekan izango da (12:15)

J.B. | ARRASATE

Jesus Mari Herrero *Pitxi*-ren omenezko txapelketa jokatuko da aste bukaeran Iturripe kiroldegian, aurten hamargarren urtez. Hasteko, bihar goizean kadete eta gazte mailako taldeek jokatuko dute; bi mailetan, arrasatearrek Bergarako taldea izango dute aurkari. Gero, zapatu arratsaldean hasiko dira Lehen Nazional mailako taldeen arteko lehiak. Urdanetaren eta Elgoibarren artekoa 16:00etan hasiko da eta etxeko taldeak, Ford Mugarrik, 18:00etan jokatuko du Hondarribiaren aurka. Domekan, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko 10:30ean eta finala 12:15ean.

Txapelketa zaila, ligaren isla

Txapelketara lanak guztiz amaitu barik heltzen direla dio tal-

deko entrenatzaile Pablo Gartzia: "Itxura hartzen ari da taldea. Oraindik falta zaigu, baina liga hasierarako ondo helduko garela uste dut". Aurkari dagokienez, "guztiak zailak" direla uste du entrenatzaile onatiarrak: "Ligako talde gehienek fitxaketak egin dituzte eta oso maila altua espero da aurten. Beraz, aste bukaera honetako partiduak ligarako aperitibo moduan har ditzakegu. Izan ere, ligan oso zaila izango da partiduak irabaztea".

Lehen Nazional mailako denboraldia datorren aste bukaeraren jarriko da martxan, eta, Gartziaaren arabera, mailari eustea izango da helburua: "Gero, iaz gertatu zen moduan lehen partiduetan puntuak ateratzen baditugu, ikusiko dugu beste zerbait egin daitekeen".



Getxoko The Fakeband zuzenean; gaur joko dute Kultureteko areto nagusian, 20:00etan hasita. | ARRASATEKO UDALA

Ziburuko ikastolari dirua emateko ekintza Bizipozen jaian

Irailaren 21eko Bizipozen jaian jolas ekintza egingo dute Ziburuko (Lapurdi) ikastolaren alde dirua biltzeko: "Ziburuko Kaskarotenia ikastola dagoen tokitik kanporatu nahi du Guy Poulou auzapezak, eta, ondorioz, hamabi haurrak kale gorrian utzi, beste inolako alternatibarik eman gabe", adierazi du Seaskak.

OHARRAK

1952AN JAIOTAKOAK

Urriaren 18an irteera egingo dute Zumaiara eta Zarautzera. 1952. urtean jaio eta parte hartu gura dutenek 70 euroko ordainketa egin beharko dute Laboral Kutxaren kontu korronte zenbaki honetan: 3035 0001 51 0010128714. Izena ematen dutenak 09:15ean irtengo dira Garibaiko geltokitik. Izena emateko azken eguna urriaren 11 izango da.

1958AN JAIOTAKOAK

Azaroaren 8an irteera egingo dute Arabako Errioxara. 60 euro ordaindu behar dira urriaren 27a baino lehen, 3035 0001 59 0011144438 kontu zenbakian.

1979AN JAIOTAKOAK

Urriaren 25ean ospakizuna egingo dute Bergarako Tartufon. 40 euro ordaindu behar dira 3035 0001 53 0010128677 kontu zenbakian, irailaren 30a baino lehen.



PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALA

URRIA - MAIATZA / Hasiera: Urriak 6

1. maila: Asteazkena 19:30

2. maila: Astelehena 18:00

Dantza-txokoak: astelehena / asteazkena

Informazioa eta egitarauak: www.herrixadantzan.com

IZENA EMATEKO EPEA: Irailak 26

AED: 943 77 12 28 / GAZTE BULEGOA: 943 25 20 65
HERRIXA DANTZAN: herrixadantzan@gmail.com

Antolatzailea:



Laguntzaileak:





Iaz bezala, alde zaharreen egokituko dute biharko fruta, barazki eta gazta azoka. | IMANOL SORIANO

Aukeran dantza taldeak abiatuko ditu gaur San Martin jaiak

Libre gunea egokitu dute Bideberrin eta ekintza ugari egongo dira han

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Dagoeneko iritsi dira San Martin jaiak. Gaur, barikua, hasi eta martitzenera arte, ekitaldi ugari egongo dira.

Edu Muruamendiaraz dantzari eta koreografo bergararrak zuzendutako *Geltokia* dantza ikuskizunarekin hasiko dira gaur. Udal Pilotalekuan izango da emanaldia, 22:00etan –informazio guz-

tia 31. orrian–. Bihar, berriz, urteroko fruta, barazki eta gazta lehiaketa egongo da. Alde zaharra bultzatzeko ahaleginean ari da Udala azken urtetan, eta, testuiguru horren baitan, azoka San Martin, Munibe, Ariznoa eta Monzon plazetan egongo da, iaz bezala. Osterantzean, ohiko ekitaldiak egongo dira asteburuan, ondoko tautan ikusten denez.

Aldaketak danborradan

Nagusien danborrada astelehenean 22:30ean izango da. Berrikuntza bi egongo dira aurten: batetik, ez da heriotzaren errepresentaziorik egongo azken bi urteetan bezala; izan ere, zenbait kideren senitarteko baten heriotza dela eta, ezin izan da entsegurik antolatu. Bai egongo dena da amaierako Nagasaki 1597 dan-

tza. Bestetik, 68 gazte berri aterako dira danborradan; batzuk Artekaleko Pizzeriakuak izeneko konpainia berrian aterako dira; beste batzuk, gazteen konpainian. Hori horrela, aurten, guztira, bederatzi konpainiak osatuko dute danborrada: Artatse, Aritze, Barrikak, Danbor-joleak, Zuloa, Urdinak, San Joxepe, Gazteak eta Artekaleko Pizzeriakuak.

Umeen danborrada martitzenean, San Martin Eguna, izango da, 18:30ean, ohi bezala.

Gaztetxean ere ekintzak

Gazte Asanbladak ere antolatu ditu zenbait ekitaldi. Gaur, egubakoitza, azken asteetako auzolana eta obrak direla-eta, 17:00etan garbiketa tailerra egongo da. Ondoren, egubakoitzeroko batzarra egongo dute. Bihar, zapatua, bestalde, 01:00etan hasita, Sasi DJ txapelketa egongo da, iaz egindako moduan. Ordenagailu bidezko txapelketa izango da eta musika USB giltzan eroanda nahikoa izango da. Nork bere ikuskizun propioa gertatu ahal izateko izena eman behar da. Horretarako, *bergarakogaztetxia@gmail.com* helbidera idatzi behar da, edo gaztetxera bertara joan. Horrez gain, astelehenean, 19:00etan parodia egongo dute herriko kaleetan, eta, danborrada ostean, suzko erroberak jaurtiko dituzte gaztetxe ingurutik.

Informazio gehiago eta astelehen eta martitzeneko egitarauak:

Informazio gehiago:

eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



ASTEBURUKO EGITARAUA

EGUBAKOITZA, 12

22:00 Aukeran dantza taldearen *Geltokia* emanaldia, Udal Pilotalekuan.

ZAPATUA, 13

10:00 Barazki, fruta eta gazta lehiaketa, alde zaharreen. 13:30ean, sari banaketa.

10:30 Gazta lehiaketa, San Martin plazan.

11:00-13:30 Bergarako trikitilariekin kalejira.

11:30 Bergarako odolosteen dastatzea, San Martin plazan.

12:00 Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldearekin kantu-jira.

14:30 Txomingero bazkaria, Irala kalean. Euria eginez gero, Seminarioko karpan izango da. Udalak 160 lagunendako mahai eta bankuak jarriko ditu.

17:30 Gaztetxoendako zezentxoak eta poneyak Seminarioan.

18:30 Bergarako erraldoi, kiliki eta buruhandien konpartsaren kalejira.

19:30 Bergarako saskibalo taldearen aurkezpena.

20:00-21:30 eta 23:00-01:00 Joxpe taldearekin erromeria, San Martin plazan.

DOMEKA, 14

09:00 Ageriko pintura lehiaketa Beartek antolatuta. Sari ematea, 14:30ean, udaletxean. Aurkeztutako lanekin erakusketa egongo da irailaren 22tik urriaren 5era, udaletxean, astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara.

11:00-14:00 eta 16:00-19:00 Umeendako jolasparkea, San Martin plazan.

Libre gunea izango da jaietan bideberri

Aitziber Plazaola bergararrari eta hilaren 22tik aurrera Segiko kide izatea leporatuta epaituko dituzten gainontzeko 27 auzipetuei elkartasuna adierazteko Libre gunea antolatu du Bergara Libre Bideberrin. Atzo, eguna, hasi eta astelehenera bitartean, ekintza ugari egongo dira; txosna eta agertokia egokitu dituzte, gainera. Bihar, zapatua, kalera laranjaz jantzita ateratzeko dei egin dute, auzipetuei babesa erakutsi eta epaiketaren aurkako adierazpen moduan.

EGUBAKOITZA, 12

14:00 Ikasleen bazkari laranja.

17:00 Umeendako txokolate-jana, jolasak, globoflexia eta ipuin kontaketa.

Gero, *Bertsolharitza* emanaldia, Errotalde parkean, Ibai Esosainen eskutik.

22:30 Zurraia eta DJ Loro.

ZAPATUA, 13

10:30 Taloak, Munibeko txosnan.

14:00 Txomingeroen bazkaria Sei Pistols Eta Trabuko Bat taldeak

alaituta, Irala kalean. Eguraldi txarreakin, Seminarioko karpan izango da.

Gero, kalejira laranja.

20:00 Ekitaldia Bideberrin.

23:00 Ttan Come On eta Fly Shit.

01:00 Sasi DJ txapelketa, gaztetxean.

DOMEKA, 14

10:00 Autobusak Gernikako ekitaldi nazionalera.

19:00 Antzerkia.

ASTELEHENA, 15


12:00 Paella lehiaketa egongo da. Oinarrizkoa antolatzaileek jarriko dute –sua, lapikoak eta kozinatzeako oinarritzko elikagaiak–. Osagai bereziak behar izanez gero, norberak eraman beharko ditu. Parte hartzeko nahikoa izango da gunean bertan agertzea.

14:00 Bazkaria. Paella-jana egongo da.

17:00 Herri kirolak.

00:00 DJ Pistoletak.

ESPOLON



School of English

BERGARA

Ibargarai 31. Barruko Plaza
Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65

ANTZUOLA

Errekalde auzoa
Tel.: 943 76 03 53 • 943 53 29 65

espolon@euskalnet.net

INGELES
KLASEAK

Goizez, arratsalde eta eguerdiz

- Maila guztiak
- Adin guztiendako

Cambridgeko azterketetan izan dituzuen emaitza onengatik, gure ikasle guztiei ZORIONAK!



IXAUN
Jatetxea

Elosu auzoa 6 - Bergara
Tel.: 680 77 69 33

Gosariak
•
Bazkariak
•
Afariak
•
Sagardotegiko menua
•
Eguneko menua
•
Plater konbinatuak
•
Karta
•
Ogitartekoak
•
Pintxoak
•
Enkarguak

UGARTE
AROTEGIA - ALTZARIAK

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Udalbatzak berretsi egin du trukea, EAJ kontra egon arren

Jeltzaleek uste dute herriak eraikin bat galduko duela; Udal Gobernuak, aldiz, bi eraikinak konponduta eta herritarren erabilpenerako egongo direla diote

IMANOL GALLEGO | BERGARA
Bergarako udalbatzak –gobernu taldearen eta PSE-EEren aldeko botoekin– martitzenean berretsi zuen Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko permuta. EAJ oso kritiko azaldu zen, eta, proiektuaren hainbat punturekin ados ez egoteaz gainera, Bergarak eraikin garrantzitsu bat galduko duela azpimarratu zuen.

Joan den astean Bergarako Errege Seminarioaren eta Arrizuriaga jauregiaren arteko trukeak aurrera egingo zuela jakin ostean, gobernu taldeak ezohiko osoko bilkura deitu zuen martitzenerako, erabakia berresteko. Deialdiak, baina, ez zuen udal talde guztien onespena jaso. EAJk gaia hobeto aztertzeke denbora luzeagoa behar dela uste du, eta halaxe eskatu zuen bilkuraren hasieran.

Jeltzaleen ustez, "garai batean bezala" bi eraikinek bergararren ondare eta "hauen esku" egon beharko lukete. Jaione Isazelaia alkateak oso iritzi ezberdina dauka: "Arrizuriaga ez dago egoera onean; Errege Mintegia, egindako lanei esker, hobeto dago. Permutarekin bi eraikinak bergararrok erabiltzeko moduan eta guztiz konponduta izango ditugu".

Aintzane Oiarbide bozeramaile jeltzaleak gobernu taldeari egotzi zion trukea aurrera eroan izana, "burugogorkeria politikoa-gatik eta erakunde bati kapritxoa emateagatik". Jaione Isazelaia



Udalaren eskuetara pasako den Errege seminarioa. | GOIENA

alkateak esan zuen trukea sakon hausnartutako proiektua dela eta Bilduk udal hauteskundeetarako aurkeztutako konpromisoe-tako bat dela; azaldu zuen trukeak onura handiak ekarriko dizkiola herriari: "Museoa eta UNEDeko proiektu guztia gauzatzeaz gain, Errege Seminarioko elizan erabileraz askotariko kultura espazio bat ere egingo da".

Trukearen zenbakiak

Trukearen aurrekontuak ere eragin zuen eztabaida. EAJk uste du aurkeztutako zenbakiak ez direla ongi ulertzen eta garatu beharreko proiektuaren zenbatekoa ere ez dela ongi jasotzen. Isazelaia alkateak puntu hori azaldu zuen: "Diputazioak aurreratu duen dirua Patronatura

pasako da eta Arrizuriaga konpontzeko balioko du. Gero, Aldundiak ordaindu beharreko zatitik kenduko da kopuru hori".

EAJko zinegotziek, informazio-rik eza salatzeaz gain, Udal Gobernuak herriko ondarea ez errespetatzea egotzi zioten alkateari, eta jauregiarekin batera lorategietako zati bat eman beharra ere gogor kritikatu zuten. Alkateak, berriz, argi utzi gura izan zuen trukeak ez duela lorategiaren erabilpen publikoa kolokan jarriko: "Lorategiaren zati bat permutaren barruan sartzen den arren, Arrizuriaga parkeak publiko izaten jarraituko du".

Eztabaida luzeen ostean, sozialisten eta gobernu taldearen botoe-kin trukea berretsita geratu zen; jeltzaleek kontra bozkatu zuten.

Gure Esku Dago eguneko argazki erakusteka bihar zabalduko dute

I.G. | BERGARA
Ekainaren 8an egin zen giza katea, eta bertan jasotako argazkiekin osatutako erakusketak bihar irekiko ditu ateak. Hori antolatzeke, ekainaren 8an ateratako argazki ugari batu dituzte antolatzaileek.

Bada, argazkien aukeraketa egin ondoren, 300 inguru inprimatuko dituzte, "herritar guztiek beraiena aurkitu ahal izan dezaten".

Eguraldiaren arabera

Erakusketa Irizar jauregiko lorategian ikusi ahal izango da. Bertan, soken eta pintzen laguntzarekin, argazkiak eskegiko dituzte. Dena den, eguraldiak

ez badu laguntzen, antolatzaileek erakusketa udaletxeko arkupeetara eroango dutela aurreratu dute.

Kokapen batean zein bes-tean, giza katean egon zirenak, laguntzaileak eta, orokorrean, jende guztia gonbidatu nahi dute egun horretako pasarteak ikusi eta gogoratzera.

Gero, osoko bilkuren aretoan

Zapatuko estreinaldiaren ostean, astelehenetik egubakoitzera bitartean osoko bilkuren aretoan egongo da erakusketa. Hortaz, bihar hura ikusteko aukera ez dutenek datorren aste bukaerara arte izango dute denbora nahikoa.



POL-POL

Pol-Polekoak Pirinioetan

Pol-Pol Mendizale taldeak Pirinioetara irteera egin zuen aurreko asteburuan. "Eguraldi ederra" izan zuten eta 40 lagunetik gora elkartu ziren bi mendi irteera egiteko, zapatuan eta domekan. Lehen egunean, Fiscaletik irten eta Pico Cancias egin zuten; eta bigarrenegun, Ordesako parke naturaletik abiatu eta Tozal del Mallora, Faja Racon-etik. Bi mendi irteerak Huescako Pirinioetan izan ziren.

OHARRAK

1944KOEN KINTADA

1944an jaiotakoek, aurten 70 urte betetzen dituztela eta, irailaren 27an Urdaibai eskualdean egun osoko ibilaldia egingo dute, urteurren borobil hori behar bezala ospatzeko. Izena eman daiteke Ana Mariri (943 76 21 86) edo Floritari (943 76 10 32) deituta, eta baita Sanchez ile-apaindegian ere (943 76 23 70).

KATALUNIARA IRTEERA

Bidaia horretara joateko izena eman dutenek autobus geltokian izango dute irteera irailaren 17an, 08:00etan. Horrez gain, Katalunian martxan dagoen lege berri bate-gatik, lau izarreko hoteletan igarotako gau bakoitzeko euro bateko tasa ordaindu behar da. Bakoi-tzak, hotelean bertan, 6 euro ordaindu beharko ditu.

Ingelesko klaseak • , Azterketa ofizialean prestaketa Eskolen errefortzua

Informa zaitez konpromiso gabe!

Tel.: 943 54 09 12 - Burdiñate 5 behea, BERGARA

UDAZKENEKO ESKAINTZA BEREZIAK

5.000 eta 9.500 euro arteko DESKONTUAK!

Etorri Ford Mugarrira!

ORAIN, BERGARAN ERE BAGAUDE

MUGARRI AUTOAK

Amillaga 5, Bergara
Araba etorbidea z/g, Arrasate

'El borracho burlado' herrian berriz ere, 250 urte geroago

Peñafloridako kondeak idatzitako libretoa elebiduna zen arren, herrian euskara hutsean antzeztuko da

IMANOL GALLEGU | BERGARA

1764ko irailaren 11n estreinatu zuten Bergaran euskaraz kantatutako lehen opera, Peñafloridako kondeak idatzitako *El borracho burlado*, eta, urteurren borobil hori dela eta, Miguel Angel Elkoroberezibar eta Valen Moñux bergararrek bultzatuta, beste moldaketa bat prestatzen dabilta martxoaren 15ean emateko.

Moldaketa horrek, jatorrizkoarekin alderatuta, hainbat desberdintasun izango ditu: hasteko, elebiduna izan beharrean, euskaraz izango da osorik. "Peñafloridak berak euskaraz idatzi nahi zuen, baina, azkenean, elkarrizketak gazteleraz egin zituen; kantuak, aldiz, euskaraz. Oraingo honetan, libreto osoa itzuli egingo dugu", argitu du proiektuaren bultzatzaileetako bat den Elkoroberezibarrek. Egiten dabilta itzulpen horrek, gainera, balio handiagoa emango dio kondearen lanari; izan ere, aditu askoren ustez, maila jasoan eta errespetuz euskaraz sortutako lehen lan lirikoa da.

Miguel Angel Elkoroberezibarren eta Valen Moñuxen ekimenez, datorren urteko udaberrian berriz ere antzeztuko dute, estreinaldia egin zen leku berean. Oraingo honetan, baina, kondeak lortu ez zuen berezitasun bat izango du lanak: parte-hartzaile guztiak Bergarakoak izango dira, eta "hogei kantarik eta bost musikarik soilik hartuko dute parte; oraingo honetan, guztiak herrikoak izango dira", dio Moñuxek.

Dagoeneko prestatzen hasi diren ganbera-opera horrek ukitu klasikoa izango du, duela mende laurden sortutako lanaren muina eta testuingurua ere errespetatu egingo dute-eta.

Irakaspendun opera Ilustrazioaren espirituari jarriki, lan liriko horretan herriko mozkor bati lezio bat ematen saiatuko dira pertsonaiak. Orain bezala, duela 250 urte, kondeak Udalen babesa izan zuen lana aurrera ateratzeko.

Irakaspendun opera

Martitzenean egin zuten aurkezpena, eta bertan, Udaleko ordezkariak eskerrak eman zizkieten proiektuaren bultzatzaileei. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko presidente Juan Bautista Mendizabalek, bestalde, gogoratu zuen elkartearen berrantzeko ideia *El borracho burlado*-ren estreinaldian sortu zela.



Martitzenean aurkeztu zuten opera. | TXOMIN MADINA

Herriko etorkinak euskarara hurbiltzeko ikastaroa urrian

Euskaltegian emango den ikastaroa 60 ordukoa izango da

I.G. | BERGARA

Udal Euskaltegiak etorkinen-dako euskara ikastaroa antolatuko du, iaz egindako moduan. Aisa programaren bidez, euskara ikasi nahi duten Bergarako etorkinengana heldu gura dute. Harrera ikastaro horretan, Euskal Herrira etorri berriei egokitutako metodologia eta materiala erabiliko da.

Ikastaroaren prezioa 10 euro da; edozelan ere, ikastaroa amaitu ondoren, euskaltegiak itzuli egingo du kopuru hori, ikasleak gutxienez %85eko asistentzia izaten badu.

Irailaren 30era arte

Arduradunek 60 orduko ikastaroa egin gura dute: urriaren 7tik aurrera. Irailaren 30ean izen-ematea bukatzean, ikasle kopurua aztertu eta taldeak antolatuko dituzte. Aste bakoitzean lau ordu emango dituzte bi egunean banatuta. Dena den,

ikasleen premiak ezagutu eta ordutegiak antolatzen laguntzeko, izena ematean egunak eta orduak aukera daitezke. Hala ere, ordutegi zehatza eskariak jaso eta gero erabakiko dute.

Ikastaro horren helburua da etorkinak euskarara hurbiltzea. Etorkin askok urteak daramatate eta beharrezkoa zaie euskara ezagutzea: seme-alabei etxeko lanetan laguntzeko, lagunekin berba egiteko, erosketak egiteko... Ikastaroari esker, gutxieneko maila hori lortzeko aukera izango dute.

Interesatuak irailaren 30a arte eman dezakete izena. Horretarako, bi bide dituzte: 943 76 44 53 telefono zenbakia edo euskaltegiara joanda 09:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 18:00etara, hain zuzen ere.

Udal Euskaltegitik dei berezia egiten diete herriko etorkinei harrera ikastaroan parte har dezaten.

Udal Euskaltegiak dituen ikastaroetarako matrikulazio epea zabalik dago hastear dagoen ikasturterako

Euskaraz Blai lelopean, Udal Euskaltegiak aurkeztu du aurten go eskaintza akademikoa. Herriko euskaltegiak, afalbetatze maila guztiak eskaintzeaz gainera, EGA prestatzeko ikastaroa ere aurkeztu du. Ohiko eskolak ez ezik, mintzaira lantzeko taldeak, euskalkian sakontzeko mintegiak eta autoikaskuntza bidez euskara ikasteko aukera ere emango dute. Matrikula Irizar jau-regian bertan, 943 76 44 53 zenbakian edo berg.eusk@udal.gipuzkoa.net helbide elektronikoaren bidez egin daiteke.

PREZIOAK

HANKAZ GORA JARTZEN DITUGU

OBRA BERRIA BUKATUTA "SAN LORENTZON"

2 LOGELAKO 2 ETXEBIZITZETAN BAKARRIK APLIKAGARRIA.

Informazioa eta salmenta

943 424 430 • 637 726 522

Ormak

www.ormak.es

Iluntzean aurkeztuko dute danborradako batzorde berria

Azken bi urteetako danborradaren eredu bera izango du aurtengoak

MIREN ARREGI | OÑATI
Gaur, egubakoitza, egingo da aurtengo danborrada antolatuko duen batzordearen aurkezpena, 20:00etan, kultura etxean. Aurretik, 19:00etan, elkartuko dira eta zehaztuko dituzte aurtengo entsegu egunak eta orduak, besteak beste. Azken bi urteotako danborradan atera diren konpainietako ordezkari bana egongo da batzorde berrian. Horiez gain, Acesmakoe ere hartuko dute parte. Eredua azken bi urteotako bera izango da.



Kultura etxeko erakusketa gelan egin zen eguazteneko bilera | MIREN ARREGI

Ateak zabalik
Udaleko ordezkariak eta azken bi urteotako danborradan atera diren konpainietako kideak batu ziren eguazteneko bileran eta han erabaki zuten, ezadostasun guztien gaintetik, nagusien danborrada antolatzea.

Ereduez egin zuten berba, baina denbora faltagatik eztabaida alde batera uztea erabaki eta aurtengo danborrada antolatzeari eman zioten lehentasuna. Hala, azken bi urteotako ereduari eutsiko zaio aurtengoa. Gaur, egubakoitza, egingo dute aurkezpena eta batzorde hori osatuko dute azken bi urteotako danborradan parte

hartu duten konpainietako kideek –danborra jotzen ez duten sukaldariak erabaki dute aurtengoa parte ez hartzea.

"Pozik" agertu da Udala eguazteneko bilerak emandakoekin. "Zurrunmurrak guztien gaintetik jendeak erakutsi du danborrada antolatzearen nahia eta horrek asko poztzen gaitu", dio Nerea Zubiak, Kultura zinegotziak. Eta gaineratu du: "Deia luzatzen diegu antolakuntzan edo aurtengo danborradan parte hartu gura duten herritar guztiei. Ateak zabalik

daude". Acesmak ere Oñatin bizi diren etorkin guztiei dei egin gura die parte hartzeko.

Udalak, era berean, eskerrak eman dizkio azken urteotan danborrada antolatzen aritu den lan-taldeari. "Lan oso ona egin dute eta hori eskertu beharrean gaudela", azaldu zuen bileran Mikel Biain alkateak. Aurrerantzean ere danborrada herritarrek antolatutako ekitaldia izatea gura du Udalak, eta horretarako beharrezko den baliabide eta laguntza guztia emateko prest agertu da.

Oñatiko Sarek hasi du presoen eskubideen aldeko ibilbidea

O.E. | OÑATI
"Euskal preso eta iheslarien aferra konpondu beharra dagoela" uste dute Oñatiko Sare osatu duten herritarrek. Zapatu goizean egin zuten batzarra Eteon, eta hantxe hasi zen Sare Oñatiren ibilbidea.

Hasierako sarreraren azaldu zuten moduan, "euskal preso eta iheslarien eskubideak behin-goz errespetatuak izatea" gura du Sarek, eta "ikurrak alde batera utziz oñatior guztioi tokatzen zaigu protagonista izatea". Helburuak ere finkatuta ditu: dispersioa betiko bukatzea, gaixo larrien etxeratzea, bizi osorako zigorra ahalbidetzen duten legeak bertan behera

uztea eta 70 urtetik gorakoena nahiz zigorraren 3/4ak edo 2/3ak beteta dituztenen etxeratzea.

Sarreraren ostean, taldeka batu ziren eraikineko geletan, eta gaiari heldu zioten talde dinamikan lan eginez. Lagun Lekuko kideek kafea, pastak eta pintxoak prestatu zituzten atsedendian, eta, goizak emandakoaren laburpena egin ostean, Egoitz Aizpururekin bertso bat osatu eta elkarrekin abestu zuten topaketa bukatzeko.

Bilborako autobusak

Hilaren 20an Bilbon egingo den ekitaldirako autobusak ere antolatu dituzte. Arrano edo Oñati tabernan eman behar da izena.



Zapatu goizean elkartu ziren Eteon. | SARE OÑATI

Intzidentzia gutxi jaso dituzte udan Udaltzaingoan

Bi auto istripuren berri jaso du Udaltzaingoak udan, baina biak izan dira arinak

OIHANA ELORTZA | OÑATI
Udako oporretako bi hilabeteetan bai Udaltzaingoan eta bai Ertzaintzan jaso dituzten salaketa gehienak bizikleta eta poltsa lapurretenak izan dira. Etxebizitza batean lapurreta saiakera egin izanaz salaketa bakarra jaso du Ertzaintzak. Udaltzaingoan ez dute horrelakorik jaso.

Eserlekuan ahaztuta

Idoia Lazpita udaltzainburuak emandako datuen arabera, hamar

salaketa –askotariko arrazoiengatik– jaso dituzte uztailan eta abuztuan Oñatiko Udaltzaingoan, erdiak uztailan eta beste erdiak abuztuan.

Uztailan Udaltzaingoan egin dako salaketetako hiru bizikleta lapurretagatik izan ziren. Beste bat kreditu txartelaren bitartez egindako diru lapurretagatik eta bosgarrena, taberna batean poltsa osteagatik.

Abuztuan hiru salaketa jaso zituzten poltsa lapurretagatik.

Horietako bi eserleku batean ahaztuta utzi zutelako eta hirugarrena, taberna batean. Abuztuko beste bi salaketak kreditu txartelaren bidez dirua kendu zitelako izan ziren.

Ertzaintzan jaso dituzten salaketei dagokienez, berriz, kutxazainetik dirua ateratzerakoan dirua lurrera erori eta ohartu ez zen lagun batek salaketa jarri zuen galdutako dirua berreskuratzeke. Bestalde, takilla batzuetatik dokumentazioa zuen kartera lapurtu zioten herritar baten salaketa jaso zuten abuztuaren bukaeran.

Salaketez gain, bi istripu txikiren berri ere izan dute Udaltzaingoan udan. Uztailan izan zen bat eta abuztuan bestea. Biak izan ziren auto istripuak, eta biak arinak.

'El niño' filmarekin hasiko da nagusien zinema denboraldia

OIHANA ELORTZA | OÑATI
El niño filmak emango dio hasiera, asteburu honetan, nagusien zinema denboraldiari. Gaurtik astelehenera bitartean emango dute, eta, jaietan emanaldia etengo badu ere, datorren udaberriara arte egongo da nagusien zinema eskaintza asteburuetan. Haurrendako filmak eta zineklubekoak herriko jaiak pasatakoan hasiko dira ematen.

Ikuslearen eguna

Gaur, egubakoitza, hasiko da denboraldi berria. 22:30ean emango dute, lehen aldiz, Daniel Monzonek zuzendu duen *El*

niño. Bihar, zapatua, ordu berean ikusteko aukera egongo da; domekan, 19:00etan eta 22:30ean eta astelehenetan, berriz, 19:30ean. Ordutegia joan den denboraldiko bera da eta ikuslearen eguna ere astelehena izango da. Hala, filma ikusteko sarrerak 4,50 euro balio du; astelehenetan, berriz, euro bat gutxiago.

San Migel eta Errosaixo jaietako bi asteburuetan ez da zinema eskaintzarik egongo. Jaiei ostean, baina, indartuta bueltatuko da eskaintza, umeendako filmak eta zineklubekoak ere emango dituzte-eta.



PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA



BIDEBARRI
Enplegu Zentrua

Tel.: 943 71 64 79
bidebarri@terra.com
iurrutia.bidebarri@gmail.com

ZAINZTAILE ETA FAMILIEN ARTEKO BITARTEKARITZA LANAK

ADMINISTRAZIO LANAK

- Kontratu egitea.
- Gizarte Segurantzaren alta ematea.
- Nominak egitea.

HAUTAGAIEN AZTERKETA

- Enpresako konfiantzazko langileak.
- Esperientziadunak.

Iparragirre Oñatin egon zenekoa antzeztuko du Olaitturri elkarteak

27 lagunek hartuko dute parte eta bi emanaldi egingo dituzte irailaren 27an Santa Ana antzokian

IRATI GOITIA | OÑATI

"1880ko San Migel jaietan Oñatin egon zen kantuan Joxe Mari Iparragirre. Bere lagun Zubiriarekin etorri zen, Oñatiko jaiak alaitzera, Oñatiko Udalak gonbidatuta. Eta pasadizo hori izango da antzezlari honetan irudikatuko duguna", adierazi du Joxe Mari Anduaga gitarra jotzaileak.

Herri antzerkia

Irailaren 27an egingo dute Olaitturri Kultura Elkarteak *Iparragirre Oñatin* herri antzezlana. Olaitturri Kultura Elkarteak herriko hainbat talderen laguntza izango dute antzezlari horretan. Eurekin batera egongo dira, esaterako: bertso eskola, parro-

kiako korua, Ganbara abesbatza, Jose de Azpiazu musika eskola, Oñati abesbatza eta Pale Lekuko kideak.

"Oñatiko musika inguruan dabilen lehen mailako jendeak hartuko du parte. Denek onartu dute parte hartzeko gonbidapena. Beraz, herritarren izenean egingo dugu Iparragirreren omenaldia", azaldu zuen eguaztenean Iñaxio Irizarrek, antzezlariaren testuaz eta zuzendaritzaz arduratu denak. 27 lagun igoko dira taula gainera, baina prestakuntza lanetan 40 inguru dira.

Kantu asko

Antzerkiak bi ezaugarri nagusi ditu: batetik, Iparragirreren bio-

grafia irudikatuko dute; eta bestetik, Iparragirrek idatzitako kantuak abestuko dituzte. Joxe Mari Iparragirreren hamalau abesti, hamalau agerralditan banatuta. Amaitu, baina, kanta herriko batekin amaituko dute. Antzezlana ostatu batean izango da, horixe izango da dekoratua.

Irailaren 27an izango da herri antzerkia eta bi emanaldi egingo dituzte Santa Ana aretoan: bata 19:30ean eta bestea 22:30ean. Txartelak Txokolateixan daude eskuragarri; sarrera doakoa da. "Sarrera horiekin tokia ziurtatuko du jendeak. Ez dute zenbakirik eta norberak gura duen eserlekua aukeratu ahal izango du", zehaztu du Iñaxio Irizarrek.



Herri antzerkian parte hartuko duten batzuk, eguaztenean. | IRATI GOITIA

Julian Sagastaren zigilua ere atera du Ceca Oñatik

Herriko ospetsuei eta gertakariei buruzko zigiluak eta txanponak ateratzen ditu 1991tik

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Julian Sagasta musikariari eskainitako zigilua atera du Oñatiko filatelia elkarteak. Egin duen azken lana da, baina elkarteak kideek badituzte proiektu gehiago. "Esate baterako, Francisco Esnal Anso eta Mariano San Miguel Urzelai ditugu egiteko, epe batera. Dena dela, bitartean ospakizun bereziren bat suertatuz gero, bada, horren ingurukoa ere egingo genuke", adierazi du Oñatiko filatelia elkarteak kide Luis Mari Maiztegik.

Gertakari historikoak

1991ko uztailaren 31n sortu zen Ceca Filatelia eta Numismatika Taldea Oñatin, eta harrezkero dabil lanean. 2007an atera zituen, esaterako, lehen bi zigiluak, "Aita Madina jaio zela 100 urte bete ziren urte hartan, eta hari buruzko bi zigilu egin genituen", azaldu du Maiztegik. Bidaurreta Monasterioko obren hasieraren 500. urteurrena, Madalena auzoan egon zen Francisco de Borja jaio zela 500 urte pasa izanarena, Julian Zelaia organo jotzailea eta parrokiako abesbatzako zuzendariarena, Jose de Azpiazu gitarra jotzailearena, Lope Agirrekoa konkistatzailearena eta Antonino Ibarondo Oleaga musikariarena ere atera dituzte.

Txanponak ere bai

Zigiluez gain, txanponak ere atera ditu Oñatiko Filatelia eta Numismatika Taldeak. "Oñatiko duroa moduan ezagutzen duguna atera genuen, esaterako, 1875. urtean, Lehen Karlistaldian, Carlos VII.a erregearen gorte garaian, La Minervan (gaur egun Hijos de Juan de Garay dagoen tokian) zilarrez-

ko txanponak egin ziren. Txanponaren balioa ez onartu arren, bost pezetako txanpon moduan erabili izan zen. 500 ale atera genituen, eta berehala agortu ziren", azaldu du Maiztegik. Horrez gain, beste bi txanpon atera ditu: bata, hirugarren miliurte aldaketarako Ulmak egindako eskaria betetzeko, eta bestea, Aita Madinaren urteurrenerako. Egin dituzten txanpon guztiak zilarrezkoak izan dira eta ontza bateko pisukoak, gutxi gorabehera.

Turismo Bulegoa

Egindako lanak Turismo Bulegoan egon ohi dira salgai. Julian Sagastaren omenezko zigiluak ere bidalko dituzte. Erabilpenari buruz, zigilu horiek posta normala bidaltzeko erabil daitezkeela adierazi du Maiztegik, 20 gramorainoko pisurako. "Beste gauza bat da halako ospakizun berezietarako atera direnak erabili behar diren edo ez. Kontuan izan zigilu berdinak aurtan 0,38 euroko kostua duela", gaineratu du.

Julian Sagasta musikaria Arrasaten jaio zen, baina oraindik ez dakite hara zigiluak bidalko dituzten edo ez.



Julian Sagastaren zigilua | Ceca Oñati

Hasiberriendako yoga ikastaroa emango du datorren astean Oñatiko Yoga Eskolak

Hastapeneko yoga ikastaroa prestatu du Oñatiko Yoga Eskolak datorren astetarako. Hasiberriendako da eta izen-ematea zabalik dago. Zortzi eguneko ikastaroa izango da, irailaren 15etik 18ra eta 22tik 25era. Astelehenetik eguenera bitartean izango dira eskolak eta ordu eta erdiko iraupena izango dute, 19:30etik 21:00ak arte, hain zuzen ere. Informazio gehiago behar izanez gero edo izena emateko, hauexek dira bideak: 610 95 37 94 telefono zenbakia edo yogaonati@gmail.com helbide elektronikoa.

Hondakinen informazio bulego ibiltaria Olakua auzoan egongo da datorren astelehenean

Hondakinen informazio bulego ibiltaria Olakua auzoan egongo da zabalik astelehenean. Olakua, San Lorentzo eta Ugarkalde auzoetako bizilagunei hondakinen kudeaketa informazio bulegoaren zerbitzua gerturatzeko asmoz jartzen dute bulego ibiltari hori Olakua auzoan. Hautsitako ontziak aldatu eta poltsa konpostagarriak erosteko aukera ere egoten da. Olakuako dorreko beheko solairuan egongo da zabalik, 10:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara. Kale Zaharreko bulegoa itxita egongo da.

Ederki pasa dute Trauti elkarteak Urbian

Hamazortzi lagun elkartu ziren joan den domekan Urbian, Trautik antolatutako irteeran. Zaldunotik bueltan joan ziren Urbia, eta hango Fondan bazkaldu zuten elkarrekin. 17:00 aldera jaitsi ziren, "trumoi hotsak entzun eta puntuko, badaezpada ere", azaldu du Trautiko kide Rafael Kortabarriak.



MARIAN GONZALEZ



Gaur San Martin auzoko jaietan izango den Discipulos de Dionisos taldea kontzertua eskaintzen gaztetxean . | GOIENA

San Martin auzoko jaiak egingo dituzte lehen aldiz

Arantzazun eta Zañartun ere auzoko festak ospatuko dituzte asteburuan

I.RATI GOITIA | ONATI

San Martin auzoko gazte talde bat elkartu, eta auzoko festak ospatzea erabaki dute. "Jaiak, ondo pasatzeko aukera izateaz gain, auzotarron arteko harremanak estutzeko eta umeek elkarren artean hobeto ezagutzeko aukera paregabea direla pentsatzen dugu", adierazi dute jai batzordetik. Hala, hainbat ekintza antolatu dituzte gaurko eta biharko. Etxafuego jaurtiketarekin eta Martintxo txerriaren *subidoia*-rekin ekingo diete festei. Orduan egingo du eztanda jaiak eta hainbat izango dira ume zein helduentzako ekintzak. Izango dituzte, besteak beste: 19:30ean, txorimaloak gazte-txoenentzako; eta 20:00etan, pintxo-poteoa txosnan eta estanpazio tailerra umeendako. Gauerako

Summertime Fest antolatu dute Discipulos de Dionisos, Ez!, Beneh eta Marianitoz Blai taldeen emandiek. Kontzertuen ostean, festarekin jarraitu nahi duenak aukera paregabea izango du San Martingo gaztetxe zaharrean. Izan ere, DJ Iñaki Cerqueirak eta DJ Mikel Gilek goizaldera arte luzatuko dute parranda.

Biharko, umeendako lasterketa prestatu dute, 11:00etan; triki-bertsio-poteoa, 13:00etan, Bogan hasita; eta auzoko bazkaria bertsolariek girotuta, 14:30ean. Maider Arregi, Urko Arregi eta Gonzal Belategi bertsolari onatiarrak arituko dira kantuan. Arratsaldean umeendako jolasak eta txokolate-jana izango dituzte eta 20:10ean amaituko dira jaiak Martintxo txerriaren *bajonazua*-rekin.

Arantzazu eta Zañartu

Beste bi auzotan ere ospatuko dituzte jaiak: Arantzazun eta Zañartun.

Arantzazun egitarau oparoa antolatu dute. Gaur ekingo diete festei tortilla lehiaketarekin, auzetxean, 19:00etan. Ondoren, mus txapelketa jokatu dute. Biharko, BBT zeharbidea (9:00), triki-poteoa (13:00) eta auzo bazkaria (14:30) prestatu dituzte. Domekan izango dituzte meza (12:00) eta auzoko presoei omenaldia eta herri kirolak (13:00).

Zañartun domekan soilik egingo dituzte ospakizunak. 12:00etan meza izango dute auzoko ermitan. Ondoren, luntxa egongo da, bertsolari eta trikitilariak girotuta. 14:30ean, berriz, auzo bazkaria egingo dute.

Antixeneko gaztetxearen bigarren urteurrena ospatzeko jaia bihar

'Ez goiaz etxera!' lelopean egingo dituzte umeendako jolasak, poteoa eta bazkaria

I.G / A.A. | ONATI

Joan den egubakoitzean, irailaren 5ean, bete ziren bi urte Antixeneko etxea herriko gazte batzuek okupatu zutela. Ospakizunak, baina, bihar egingo dituzte *Ez goiaz etxera!* lelopean. Egun erdiko jaia antolatu dute. "Hasierako asmoa egun osoko jaia antolatzea zen, baina egun horretan Oñatin zein Debagoieneko beste herri batzuetan ere askotariko ekitaldiak daudenez, egun erdiko egitaraua antolatzea hobetsi genuen, gaztetxeko ospakizunetan parte hartzen dutenek ere trabarik izan ez dezaten beste batzuetara hurbiltzeko", esan dute Asanbladako kideek. Hala, haurrentzako jolasak egingo dituzte Foruen

plazan, 10:00etan hasita; 12:30ean, gazteen lokal-poteoa gaztetxetik abiatuta; eta 14:30ean, urteurren bazkaria Kale Zaharrean. "Bi urte hauetan zehar gaztetxea aurrera ateratzeko lan egin duten guztiak eta hemendik aurrera egingo dutenak daude gonbidatuta bazkarira", adierazi dute gazteek. Bide batez, gaztetxeko tabernan asteburuetan lan egitera animatu nahi dituzte kuadrillak. "Dagoeneko gaztetxean dago txandak antolatzeko taula", diote.

Bestalde, urteurrenerako kamiseta berriak atera dituzte, Arrasateko gaztetxeko laguntzarekin. Aurrealdean leloa daramate eta atzean Antixeneko gaztetxearen irudia.



Antixeneko etxea okupatu zuten eguna. | GOIENA

Sexu aholkularitzak egubakoitzero eskaintzen du aurrez aurreko zerbitzua gaztelekuan

Gaztelekuan ematen du aurrez aurreko sexu aholkularitza zerbitzua Desira enpresak. Egubakoitzetan izaten da, 17:30etik 19:30era. 12 urtetik gorakoendako da, baita guraso eta irakasleendako ere. Telefonoz (943 71 60 94), posta elektronikoz (*txan-txiku.sexu aholkularitza@gmail.com*) eta sare sozialen bidez ere egin daiteke gura den kontsulta.

Oraindik email e ez direnak ere gonbidatu gura dituzte gaur egingo den iraileko odol ateratzera

Udako oporren ostean, gaur, egubakoitza, egingo dute iraileko odol ateratzea, Oñatiko Odol Emailen Elkartek deituta. Ohiko tokian eta orduan izango da; hau da, Txantxiku ikastolako aretoan, 17:30etik aurrera. Hara joango da mediku eta osasun arloko beste profesional batzuek osatutako lantalde bat, Donostiatik. Ohiko email e ez ezik, oraindik email e ez diren herritarrendako deia ere izatea gura du elkarteak.

Dardo txapelketa bi egingo dira asteburuan gaztelekuan, topalekuan bata eta kuboan bestea

VI. dardo txapelketak egingo dituzte asteburu honetan gaztelekuan. Gaur, egubakoitza, topalekuan egingo dute, 18:30ean. Bigarren txapelketa bihar, zapatua, izango da, kuboan, 17:00etan. Txapelketa jokatzeko behar diren dardoak eta dianak gaztelekuan egongo dira, ez da ezer eraman behar. Parte hartzeko izen-emaitea txapelketa hasi baino minutu batzuk lehenago egingo dute gaztelekuan.

Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak 33. edukiontzia bidaliko du Argentinara

I.G. | ONATI

Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak 33. edukiontzia bidaliko du Argentinara datorren astean. Arropak, oinetakoak, jostailuak, eskolarako materia, pinturak... batu dituzte hara bidaltzeko. Zehazki, Jose C. Paz herri-eramatzen dute batutakoaren %80 eta gainerakoa herrialdeko iparraldera, Jujuyra. Bertan parroikia dute agustindarrek eta euren bitartekaritzarekin egiten dute lan. Hermansoloñako kide Jose Antonio Urteagak adierazi du jaitsei egin dela batzen duten material kantitatea. "Lehen, hiru edu-

kiontzi bidaltzen genituen urtean; aurten, bi". Hala ere, eskerrak eman nahi izan dizkie herritar guztiei, Oñatiko Udalar, Ulmari eta erakundearen zein Argentinan lanean aritzen direnei. Martitzenean eramango dute edukiontzia Bilbora eta irailaren 28an irten-go da portutik.

Laguntza Kubara

Hilaren amaierara arte Hermansoloñaren edukiontzian batzen dena Kubara bidaliko da Acesmaren bitartez. Ibis Rodriguezek, Acesmako kideak, esan du ia prest dutela guztia, baina hainbat



Bilketarako edukiontzia. | O. ELORTZA

tramite egin behar dituztela materiala bertara bidali ahal izateko.

Urteagak zehaztu du materiala Argentinara bidali nahi dutenek euren lokalean utz dezaketela.

Ezetza jaso du Nafarroa kaleko tanatorioak

Donostiako Auzitegiak eman dio ezetza; orain, errekurtsua aurkezteko epea dute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Tanatoriorik ez dute egingo Nafarroa kalean. Halaxe esan du Donostiako Administrazio Auzitegiak, eta horren berri eman Ana Bolinaga alkateak, auzokideak lasai egon daitezten. Hala ere, behin-behineko erabakia dela argi utzi gura izan du, errekurtsua aurkezteko epea zabalik dago-eta hilaren 17a arte: "Oraingoz, ez dugu inongo errekurtsoren berririk; horren zain egongo gara. Horregatik, auzokideek oraindik ez dezatela xanpain botilarik zabaldu, ez delako behin betiko sententzia".

Industria erabilera

Aretxabaletako Tanatorioa SL enpresak 2012an egin zuen eskaera tanatorioa jartzeko. Nafarroa kaleko 6. eta 8. atarteen artean



Nafarroa kale inguruko bizilagunek jarritako kartela orain dela bi urte. | M.A.

jarri gura zuen, supermerkatua-ren eta jatetxea izandako lokalaren artean. Auzokideak, hori jakin zutenean, aurka azaldu ziren, sinadurak batu zituzten eta udaletxean aurkeztu. Aurka egotearen arrazoirik nagusiena zen etxe artean kokatuta egongo zela: "Denda dago bertan, etxe mordoa inguruan... Zelan jarriko dute hemen industrialdean hainbeste lokal daudenean hutsik? Beste herri batzuetan kanpoaldean daude", zioten orduan.

Udal Gobernu batzordeak, berriz, baimenik ez ematea erabaki zuen. Eta enpresak epaitegira jo zuen orduan. Bi urteren ostean iritsi da sententzia, eta atzera botatzearen arrazoia azaldu du Jose Mari Segoviak, Udaleko Hirigintza teknikariak: "Arrazoi urbanistikoa honako hau da: tanatorio zerbitzua ez da komertzio, ekipamendu edo antzeko erabilera duen zerbitzua; industria erabilera duena baizik".

Hala, tanatorioak industria erabilera duela dio sententziak eta Aretxabaletako arau subsidiarioek diote ezin direla batera egon bizileku erabilera duen gunea eta industria erabilera duena. Ondorioz, eta horren arabera,

etxez inguratuta dagoen Nafarroa kalean ezingo da tanatorio zerbitzurik jarri.

Erabaki horren berri irailaren 2an eman zuen Donostiako Auzitegiak, eta Aretxabaletako Tanatorioa SL enpresak hamabost eguneko epea du sententzia horri errekurtsua aurkezteko.

ESANAK

"Oraingoz, ez dugu inongo errekurtsoren berririk, zain egongo gara"

ANA BOLINAGA | ALKATEA

"Sententziak dio tanatorio zerbitzuak industria erabilera duela"

J.M. SEGOVIA | HIRIGINTZA TEKNIKARIA

Uda sasoiko produkturik onenekin dator Ixadebalde

Aretxartek antolatutako IX. merkealdien azoka da eta Mitarte kalean egingo dute, eguraldi ona bada

M.A. | ARETXABALETA

Ixadebalde bederatzigarren merkealdien azoka egingo dute bihar, irailak 13. Eguraldi ona bada,

Mitarte kalean izango da -euria bada, Iturrigorri pilotalekuan-, eta egun osoko jaia iragarri dute: 10:00etatik 20:00etara.

Aretxarte merkatarien elkarteko hamaika dendek jarriko dituzte postuak. Hona: Amaia umeentzako produktuen denda; Kilima haur jantzi-denda; Asensio jantzi-denda; Haurrak jantzi-denda; Belar Meta gazteendako arropa-denda; M5 kirol-denda; Titare; Martin Oinetakoak; Zubia Oinetakoak; Kioskoa; eta Gertu janari-denda. Horiekin batera izango da Brasileña kafe-etxea askotariko kafeak eta bestelako jeneroa eskaintzen eta Akorde taberna, mokadutxoekin eta edatekoarekin. Horiez gainera, Aretxabaleta Kirol Elkarteko ordezkariak ere ibiliko dira, aurtengo bazkide-txartelak banatzen.



Mitarte kaleko postuan M5 kirol dendako Nerea Lete. | JOSETXO ARANTZABAL

Merkatariek eskaintza paregabeak izango dituztela iragarri dute. Jantzi-dendek eta oinetako-dendek udaberri eta uda sasoiko jeneroa eroango dute, gura beste jenero: soinekoak, barruko arropak, pijamak, sandaliak, zapatilak... Eta 5 eurotan hasita eskainiko dute, hau da, %70erainoko beherapenekin kasu askotan. Gainerako komertzioek ere, Kioskoak eta Gertuk, esaterako, eskaintza politikak izango dituzte, merke eta kalitate onenekiko jeneroa.

Puzgarriak eta jolasak

Titare dendako Nerian Tejeiro da azokaren arduradunetako bat, eta egun osoko jaia izango dela iragarri du: "Egun osoan egongo dira puzgarriak, eta arratsaldean umeendako jolasak ere bai". Bezeroendako zozketa egingo dute azoka bukatu baino lehen: "Erosketa bakoitzarekin txartel bat banatuko da eta gero zozketa egingo dugu. Saria da 280 euroko balioa duen opariz betetako otarrea", dio Tejeirot.

Jon Díaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

**ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA**

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

ESANAK

"280 euroko baliodun otarrea zozketatuko dugu bukaeran"

NERIAN TEJEIRO | ARETXARTEKO KIDEA

Amaia-Berri S.L.

Iturgintza

Berokuntza instalazioak eta mantentze-lanak
Gas instalazioak
Energia berriztagarriak
Aire erauzketa eta aireztapen instalazioak
Irsgarritasuna

Otalora 18 - ARETXABALETA
Tel.: 943 77 06 49
www.amaiaberri.com
amaiaberri@amaiaberri.com

PENSOS SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behe
ARETXABALETA
Tel.: 943 77 00 33 / 943 79 42 56

Lekaixoka bertso-eskola bigarren ikasturtea hasteko gertu dago

Ikastetxeetara doaz gaur eta martitzenean eskola irekia egingo dute Arkupen

BEÑAT ZAMALLOA AKIZU | ARETXABALETA
Lekaixoka bertso-eskolak urrian ekingo dio bigarren ikasturteari. Horretarako, dituen asmoak eta eskaintzak ezagutarazten ariko da asteen hasi eta iraila bukatu bitartean. Lehen ikasturtean bezala, gaztetxo, gazte eta helduentzako ikasturte osorako bertso-eskolak antolatu ditu, bigarren hau gehiago gozatzeko gogoz.

Ikastetxeetan aurkezten

Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara arteko gaztetxo eta gazteen bertso-eskolak dinamizatzeaz Xabier Arenaza (Aretxabaleta, 1989) eta Martin Berrizbeitia (Aretxabaleta, 1992) bertsozaleak arduratuko dira. Helduen taldeko kideak ere badira biak. Arenazak iaz gaztetxo eta gazteekin gogotsu indartutako bidea oraindik gehiago sendotuko dute Berrizbeitiak eta biek elkarlanean. Hala, gaztetxoek eta gazteek astean ordubetez bertsozaletasuna eta ahozkotatasuna deskubrituz gozatu ahaliko dute, aisialdian. Bi dinamizatzaileak arduratu dira ikasturterik erakargarriena eta gozagarriena lantzeaz. Iaz bezala, eskoletan parte hartzeko nahikoa da nahi izatea. Eta aurten ere eskolak Arkupen izango dira.

LHko 4. mailatik DBHko 4. mailara arteko eskaintza ezagutarazteko eta bertso-eskolako giroa azaltzeko, Kurtzebarri eskolan eta Arizmendi ikastolako Almen gunean gelaz gela saio labor zoro samarrak egingo dituzte gaur goizean dinamizatzaileek eta bertso-eskolako hainbat kidek. Horretaz gainera, bertso-eskola nolakoa den jakiteko adin tarte horretarako bertso-eskola irekia antolatu du Lekaixokak: datorren asteartean, hilaren 16an, 17:30ean, Arkupe kultur etxean.

Bestalde, 17 urtetik gorako gazteekin gazte taldea osatu gura du lehen aldiz Lekaixokak. Adin jira horretako gazteentzako eta helduentzako eskaintzaren azkenak zehazten ari da ikasturterik erakargarriena eta gozagarriena izateko. Eskaintza zehazten asteen bukatuko du, eta datorren astean



Bertso-eskolako kideak gazteendako ikasturtea antolatzen. | BEÑAT ZAMALLOA AKIZU

ezagutaraziko ditu gazteei eta helduei dagozkienak. Gazte horientzat eta helduentzat ere bertso-eskola irekia egingo da hilaren 24an, 19:00etan, bertso-eskola ezagut dezaten.

Izen-ematea astelehenetik

Iaz bezala, izen-ematea 50 euro izango da urtean, eta epe bakaurrean ala bi epetan ordaindu ahaliko da. Ordainketa lehen hilean igarotakoan egingo da, bertso-eskolak zertan datzan ikusi ostean. Irailaren 15etik irailaren 26ra arte eman ahaliko da izena Arku-

pe kultur etxeko harreran. Eskolen egun eta orduak partaideen artean erabakiko dira. Inork edozelako zalantzarik edo proposamenik izanez gero, Arkupeko harreran edota lekaixoka@gmail.com helbidean argituko dira. Ikasturtea urriarekin batera hasiko da.

Elkarlana eta elkartasuna

Lekaixoka bertso-eskolako gozamenaz ez da eskoletara bakarrik mugatzen. Izan ere, aurreko ikasturtean, eskolez haragoko 18 ekintzatan ere gozatu genuen: saioak, irteerak, egun bereziak, ekitaldiak, neurriko lehiaketak... Horietako batzuk bertso-eskolako guztiak elkarrekin gozatu genituen, eta beste batzuk, ekintzak hala eskatzen zuenean, zegokion adin taldeetan. Aurten, gainera, aurreko ikasturtean egituraketa lanetan jarritako indarra ekintzak indartzen eta berriak sortzen jarri ahaliko dugu. Izan ere, Lekaixoka bertso-eskolak bertsozaletasuna herrian bertan garatzeko aukerak ere sortu gura izan ditu, eta lan horretan gogotsu jarraituko du oraindik gehiago gozatzeko.

Ekintza horietako asko herriko erakunde, elkarte eta eragileekin elkarlanean eta elkartasunean antolatu ditu. Horixe jarri zuen helburu iaz, eta aurten, horretan indar egiten gogotsu jarraituko du elkarlanerako eta elkartasunerako bideak zabalduz eta bideak ahalik zabalenak izan daitezen bermatuz.

LHko 4. mailatik DBHko 4.era artekoei egin diete eskaintza

17 urtetik gorako gazteekin taldea osatu gura dute

Iaz, eskolaz haragoko 18 ekintza ere egin zituzten

'ArientzaRock' emanaldia Agorreko Andramaixetan

M.A. | ARETXABALETA

Astelehenean, Andramari egunean, hasi zituzten jaiak Arientza auzoan tantaia jaso eta Martin Kabarrixa pertsonaia ekarrita auzora. Aste bukaeran emango diete jarraipena jaiak, eta aurten, gainera, ezusteko eta guzti datoz: *ArientzaRock* emanaldia.

Kanpai hotsek emango dute jai giroaren berri gaur ilunkean, eta 20:30ean afaltzeko elkartuko dira auzotarrak. Dantzaldia ere izango dute afalostean. Egun handia, baina, biharkoa da. Txistulariek egingo diote egunari ongietorria eta meza izango dute gero, Basotxo erretiratuaren elkarteko kantu taldeko kideek lagun eginda (12:00). Mokadutxo egongo da ostean auzoko produkturik goxoenekin eta trikiti doinuek girotuta.

Areantzako musikariak

Areantzako musikariek *ArientzaRock* emanaldia eskainiko dute primizian. Auzokoak eta auzokoen seme-alabak eta ilobak elkartu dira, talde dotorea osatu, eta bihar eguerdian estreinaldia egiteko gertu daude. Emanaldi horren aurrerapentxo bat dagoeneko Youtuben dute zintzilikatuta.

Kontzertu ostean 29. jinkana jolasa egingo dute (13:45) eta arratsaldean, Areantzako jolasak eliza ondoan.

Domekan, ostera, Kurtzebarri eguneko ekitaldiekin egingo dute bat: 09:30ean irten auzotik eta 12:00etan argazki ofiziala atera tontorrean. Jaiak bukatzeko, mokadutxo bat jan (13:30) eta aste osoa tantaian pasatu duen Martin Kabarrixa etxeratuko dute.

Kurtzebarriko gurutzearen 86. urteurrena ospatuko dute etzi

M.A. | ARETXABALETA

Iraileko bigarren domekan, etzi, Kurtzebarriko eguna ospatuko da, ohi legez, Murruxiko mendizale elkarteak deituta. Gurutzea jarri zutenetik 86 urte pasatu dira dagoeneko eta herriko mendizaleek horixe izango dute gogoan.

Batzuek Aretxabaletatik bertatik ekingo diote ibilbideari eta beste batzuek, Mendiolatik. Handik gora guztiek egingo dute bat,

eta 10:30ean tontorrean direnendako salda izango dute Murruxiko kideek. Meza 11:00etan izango da, eta ostean, mokadutxo eskainiko diete elkartutako guztiei: txorizoa eta gazta, sagardoak eta xanpainak lagun eginda. Etxera bidean, 13:00 inguruan, geldialditxo egingo dute Mendiolan bermuta hartzeko.

Antolatzaileek iragarri dute eguraldi txarra eginez gero egitaraua aldatu egin dezaketela.

UDaren futbol eskolan izena emateko epea zabalik dago eta entrenamendu saioak hasiko dituzte

Datorren astean jarriko du abian futbol eskola Aretxabaleta kirol elkarteak. Astelehenean, irailak 15, elkartuko dira neska-mutiko gaztetxoak; bi talde: 2005ean jaioetakoak, 16:45etik 18:00etara; eta 2006an jaioetakoak, 18:00etatik 19:00etara. Eta eguaztenean, irailak 17, beste bi talde: 2003an eta 2004an jaioetakoak, guztiak 16:45etik 18:00etara. Bertan argituko dizkiete aurrera begirako hitzorduak eta lan funtzionamendua.

Entrenamendu saioak hasiko dituzte egun horietan; horregatik, arropa egokia eramatea komeni da, eta izena ere egunean bertan eman ahal izango da. Argibide gehiago gura duenak Ibarra futbol zelaira jo dezala edozein arratsaldetan.



ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK



IXADEBALDE

Aretxabaletako IX. merkealdi azoka

Irailak 13, zapatua. 10:00etatik 20:00etara Mitarte kalean.

- Puzgarriak egun osoan zehar egongo dira.
- Arratsaldean jolasak izango dira umeentzako.

Akorde Kioskoa
Martin oinetakoak
Amaia ume denda
Brasileña akeita etxea
Kilima
Asensio
Haurrak
Gertu
Belar Meta
M5
Titare
U.D.A
Zubia Oinetakoak

Ekitaldiz beteta dator 'Kaleak hobetzea, horra gure aukera' astea

Mugikortasun iraunkorraren Europako astearen barruan antolatu dituzte

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Mugikortasun iraunkorraren Europako astearekin egin du bat, beste behin, Eskoriatzako Udalak, zazpigarrenez dagoeneko, eta aurtengo leloa da: *Kaleak hobetzea, horra gure aukera*. Martitzenean, hilaren 16an, hasi eta 28a bitartean ekitaldiz betetako astea gertatu dute Ingurumen, Kirol eta Gazteria sailek elkar-lanean.

Goitibeherak egiten ikasi

Lehen egunean, martitzenean, erretiratuek eta ikastetxeetako umeez bat egingo dute zaharren egoitzan Debagoieneko trenaren gainean Badiharduguk egindako bideoa ikusi eta kontu kontari jarduteko. Eguaztenean, hilaren 17an, ostera, bi ikastaro izango dira plazan: "Goitibeherak egiten ikasteko, batetik. Horra doazenez, gainera, hilaren 21eko goitibehera lasterketan parte hartu ahal izango dute. Eta bestetik, bizikleta aparkalekuak egiteko, Udalak gordeta dituen apurtutako hesiak aprobetxatuta. Gero, herrian jarriko dira aparkaleku horiek", argitu du Saioa Altzuak Ingurumen Saileko kideak.



Saioa Altzua, Maider Etxaniz eta Rosa Lasagabaster kartelean. | M.A.

Egueneko protagonista bizikleta izango da. Islandian bizikletan egindako oporraldiaren berri emango du, batetik, Kepa Isasmendi eskoriatzarrak, eta Mikel Bringas donostiarrak, bestetik, bizikletan oporrak zelan antolatu azalduko du.

Gosari osasuntsua ikasleei

Egubakoitzean gosari osasuntsua emango dute ikastetxeetan. "Horrekin bultzatu gura dugu era aktiboan joatea neska-mutikoak ikas-

tetxera. Esnea, ogia, fruta eta york urdaiazpikoa banatuko dugu, eta azaldu zein garrantzitsua den ondo gosaltzea", dio Altzuak. Eta arratsaldean bigarren eskuko bizikleta azoka egingo da plazan. Horretarako materiala kiroldegian dabilta jasotzen.

Bukatzeko, bi bizikleta irteera izango dira: domekan, hilaren 21ean, Urkulura martxa. Eta 28an, Landara, urtegiari bira ematera. Azken horretarako aurrez eman behar da izena kiroldegian.

ASTEKO EGITARAUA:

IRAILAK 16, MARTITZENA

10:30 Bideo emanaldia eta tertulia: *Debagoieneko tren*. Zaharren egoitzan.

IRAILAK 17, EGUAZTENA

18:00 Tailerrak: goitibeherak eta bizikleta aparkalekuak. Plazan.

IRAILAK 18, EGUENA

19:00 Hitzaldia: *Oporrak*

bizikletan: Islandia. Kepa Isasmendi eta Mikel Bringas. Kultura etxean.

IRAILAK 19, EGUBAKOITZA

09:00 Gosari osasuntsua ikastetxera aktiboki joandakoei.

18:00 Bigarren eskuko bizikleta azoka. Plazan.

IRAILAK 20, ZAPATUA

17:00 Goitibehera lasterketa. Apotzaga auzoan.

IRAILAK 21, DOMEKA

10:00 Bizikleta martxa Urkulura. Irteera, plazan.

IRAILAK 28, DOMEKA

09:30 Landako urtegiari bira bizikletan. Irteera, unibertsitateko aparkalekuan.

Sei ikastaro eskaini ditu Amuskak ikasturterako

Ehoziri-lanak eta bainika, olio pintura, 'patchwork'-a eta antzerkia daude horien artean

M.A. | ESKORIATZA

Amuska emakume taldeak antolatu du ikasturtea, eta sei ikastaro eskaini. Urrian hasiko dituzte eskolak, baina izena emateko epea zabalik dago irailaren 23a arte.

Hauek dira eskaini dituzten sei ikastaroak: ehaziri-lanak eta bainika, astelehenean (20:30-22:30), baita eskulanak ere (18:00-20:00); martitzenetan, pintura olioarekin (10:30-12:30) eta *patchwork*-a (15:30-17:30); eta eguaztenean josten irakatsiko dute eta kakorratzekin lanak egiten (18:00-20:00).

Antzerki tailerra, ostera, zapatu goizetan izango da (11:00-13:00) eta jarduera horri urriaren 4an emango diote hasiera.

Urritik otsailera bitartean

Ikastaro horiek urriaren 12an hasiko dituzte (antzerkia izan ezik) eta otsaila arte iraungo dute; hortaz, 30 ordu izango dira guztira. Elkarteko bazkideek 40 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 60 euro. Amuskakoei iragarri dute izena ematearekin batera ordaindu beharko dela kopuru hori Laboral Kutxan. Hona zenbakia: 3035 0044 85 0441021091. Dirua sartzekoan, izen-abizenak eta ikastaroaren izena zehaztu beharko dira.

Argibide gehiago gura duenak Amuskako kideengana jo behar du. Hona bideak: *amuska-esko@hotmail.com* eta 699 78 66 84.

Udako argazki lehiaketara aurkezteko astebete geratzen da

M.A. | ESKORIATZA

Irailaren 19a dela udako argazki lehiaketara aurkezteko azken eguna gogorarazi dute Ibarraundi museoko kideek.

Eskoriatzar guztiei dago zabalik lehiaketa. Bakoitzak bi argazki aurkeztu ahal izango ditu, inon argitaratu bakoak. Museora bertara bidali behar dira (digitalizatuta); hona helbidea: *ibarraundi@eskoriatza.net*. Argazkiak bidaltzerakoan zera adierazi behar da: egilearen helbide elektronikoa, adina eta lanaren izenburua.

Erakusketa Ibarraundin

Argazkien artetik 30 aukeratu dituzte udal ordezkariak, eta horiekin erakusketa egingo dute Ibarraundin, irailaren 29tik urriaren 3ra bitartean. Irabazlea, ostera, udal ordezkariak eta herritarrek elkarrekin aukeratu dute. Hiru boto izango dira: bata, Garapen batzordeak emango du; bestea, herritarrek Ibarraundiko erakusketan; eta hirugarrena, Facebook eta Udalaren webgune bidez. Sari banaketa, ostera, urriaren 8an egingo dute.

Txotxongilo animazio tailerra egingo du Larraitx Iparragirrek eta izen-emate epea zabalik dago

Txotxongilo hastapen tailerra antolatu du Kultura Sailak irailaren 27rako. Larraitx Iparragirrek, La Charada teatro taldeko kideak, gidatuko du eta antzinako arte eszeniko horren oinarri diren animazio teknikak irakatsiko ditu. Hezitzaile, guraso eta interesa duen edonorendako antolatu dute ikastaroa, 10 euroren truke. Kultura etxean eman behar da izena: 943 71 46 88 eta *kultura@eskoriatza.net*. Azken eguna irailaren 24a da.

Elikatze kontzientearen gaineko tailerra antolatu dute Virginia Belategirekin

Saioak martitzenetan dira eta izen-emate epea zabalik dago irailaren 17a arte

M.A. | ESKORIATZA

Janariak bizitza-iturri moduan duen garrantziaz konturatzea eta jaten denak eta jateko erak norberaren bizitzan duten eragina ikusaraztea helburu duen ikastaroa antolatu du Udalak. Erain taldeko Virginia Belategi gidatuko du, eta antsietatea txikitze-ko teknikak eta era kontziente eta lasaiagoan jateko praktikak irakatsiko ditu.

Saioak sei martitzenetan izango dira irailaren 23an hasita (irailak 23 eta 30 eta urriak 7, 14, 21 eta 28) eta ordutegia, 18:00etatik

20:00etara. Izena emateko Gizarte Zerbitzu etako bulegora jo behar da (943 71 31 36); azken eguna eguaztena da, irailak 17.

Dieta osasungarriak

Landuko dituzten gaien artean daude: elikagai mota bakoitzaren ezaugarriak; gorputzaren premiak, mota bakoitzari dagokionez; gorputza garbitu eta orekatzen laguntzen duten dieta osasungarriak; janariarekiko eta gure buruarekiko errespetua; eta antsietate txikiagoarekin jateko eta bizi izateko teknikak.



Fruta eta barazkiak. | HEALTHY FOOD



Trenbide zaharra konpondu dute herritarrek auzolanean

Ondorengo egunetan hiru tuneletan argiak jartzeko dena prest dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Aspaldidanik buruan bueltaka zuten Jon Arangurennek eta Eñaut Urtzelaik Kaxeta eta Iturriotz arteko trenbide zaharra txukundu eta oinezkoendako egokitzea. "Antzuolan ez dago paseoan ibiltzeko aukera askorik. Ingu-ruotan aldapa besterik ez dago, eta umeein, korrika edo bizikletan ibiltzeko toki gutxi dugu Antzuolan. Horregatik, baba-jan batean berotu egin ginen eta kuadrilla mailan hartutako in-iziatiba izan da trenbide zaharra garbitzea. Pixkanaka, aurrera egin du, gainera, hasierako nahi horrek", dio Eñaut Urtzelaik.

Lehenengo lana lursaila garbitzea izan dute. "Sasiak eta belarrak kendu ditugu sasi-garbitzeko makinarekin. Tuneletan, aldiz, harriak zeunden. Makinak alokatu genituen horiek kentzeko eta terrenoa libratzeko", azaldu du Jon Arangurennek.

Baina, emaitzak ikusi ahala, hasierako proiektu xumeak, orain, beste dimentsio bat hartu duela kontatu dute: "Goizpe-

rrek diruz lagundu du gure proiektua. Horri esker, hiru tuneletan argiak jarriko dira. Argiak jartzeko zuloak eginda daude, gainera. Asmoa da lurra bota aurretik argiak ipintzea datozen egunetan. Gipuzkoako Diputazioak eta Udalak ere konpromisoa hartu dute, proiektuaren dimentsioa ikusita. Hala, lurra ahalik eta leunen uzten saiatuko gara euren laguntzari esker", gaineratu dute.

Herritarrendako erabilgarri

Kilometro batzuk gehiago lautadan egiteko aukera dute aurre-rantzean antzuolarrek.

Herritarrek gustura hartuko duten albiste izango dela uste dute Urtzelaik eta Arangurennek. "Beste lotura bat ematen du trenbide zaharraren ibilbideak. Urretxuraino edo Bergararainoko loturak ditu. Uste dugu bidea garbi egonda jendea animatuko dela erabiltzera. Bergararekin lotura zuzena dauka orain; etorkizunean Zumarragaraino bidea zabaltzea izango

litzateke asmoa". Galartza, Uzarraga, Lizarra, Irimoi eta Basalde auzoetan barrena pasatzen da trenbide zaharra, herria zeharkatuta.

Irimoin bihar auzolana

Bihar, zapatua, auzolana egingo dute Irimoi auzoan. Parte hartu gura duenak aukera dauka. Auzolanerako Irimoin goizeko zortzietarako egin dute deialdia.

Jauregiko tunela, urez

Lanik handiena Jauregiko tunelak eman diela diote Eñaut Urtzelaik eta Jon Arangurennek: "Guztiz itxita zegoen tunela; lurra bi aldetara zeukan erorita. Gure helburua hori libratzea izan da. Putzu handi bat ere bazegoen alderik alde; dena lokaztuta topatu genuen. Gainera, neguan egin genituen lanak, eta horri, eguraldi txarra ere gehitu behar zaio", kontatu dute.



Jauregiko tunela. | E.U.



Trenbide zaharra konpontzen ibili den mutil kuadrilla. | EÑAUT URTZELAI

Larrunera irteera senidetzearen urteurren festari hasiera emateko

Antzuola-Aiherra herrien arteko senidetzeak 30 urte bete dituela-eta, ekintza ugari antolatu dira

M.A. | ANTZUOLA

Ondorengo hiru hilabeteetan Antzuola eta Aiherra ospakizunetan murgilduta egongo dira. Izan ere, bi herrien arteko senidetzeak urteurren borobila bete du: 30. urteurrena, hain zuzen.

Ekitaldien aurkezpena Baionan egingo da hilaren 23an. Udalak aurreratu du, baina, irailean, urrian eta azaroan barrena ekin-tza ugariz gozatzeko aukera egon-

go dela, bai Antzuolan eta baita Aiherran ere.

Larrunera irteera

Irailaren 28rako, Arrola mendi taldeak eta Udalak, elkarlanean, Larrun mendira igoera antolatu dute. Ospakizunei hasiera eman-go dien lehen ekitaldia izango da. Udalak autobusa jarriko du, eta doakoa izango da. Izena udal-txean edo gaztetxean eman

beharko dute parte hartu gura duten herritarrek.

Bertan, aukera egongo da Beratik oinez edo trenean igotzeko Larrunera. Ondoren, mokadutxoa hartuko dute.

Askotariko ekintzak

Urrian eta azaroan hitzaldiak egingo dira. Eneko Bidegainek *Euskal Herria eta lehen mundu gerra* solasaldia eskainiko du; Xebax Christyk, aldiz, eusko monetaz berba egingo du.

Bestalde, Aiherran urteurren ospakizuna egingo da urriaren 25ean. Bertan, senidetzearen hitzarmen berria sinatuko dute.

Azaroan, aldiz, festa Antzuolara ekarriko dute eta bazkaria egingo dute, eta hitzarmen berria sinatu. Musika eta bertsolariak, besteak beste, ez dira faltako eguna borobiltzeko.



Zurrategin iaz ere arrakastaz egin zen Elkartasun Festa. | JABI ETXANIZ

Anelkarrek herritarrek tortilla ekartzera animatu gura ditu

M.A. | ANTZUOLA

Aurtengo Elkartasun Festa irailaren 19an egingo du Anelkarrek. "Hasiera batean, gaur egin nahi genuen, baina, Kalegoiko jaiak direnez, atzeratzea erabaki dugu", azaldu du Anelkarreko kide Jabi Etxanizek.

Zurrategin egingo da aurtengo Elkartasun Festa, 19:30ean hasita.

Herritarren tortillak

Anelkarretik herritarrei dei berezia egin nahi diete festan parte hartzeko eta tortillak egitera animatzeko. "Herritarrek egindako tortillak banatuko ditugu. Anelkarretik animatu gura ditugu antzuolarrek tortillak egitera. Guk egindako mar-

mitakoa dastatzeko aukera ere egongo da", dio. Aurtun, gainera, nobedadearekin dator festa: "Postre gisa Marokoko tea dastatzeko aukera egongo da". Marokoko bi emakumek egindako tea izango dela gaineratu du Etxanizek. Eta teari laguntzeko, pastak jarriko dituzte.

Dirua Kongo eta Senegalera

Anelkarrek Kongon eta Senegalen abiatutako proiektuak diruz laguntzea du helburu urtero antolatzen den festak.

"Tortillekin, marmitakoa-ekin, edariekin eta bestelakoe-kin lortutako dirua Kongon eta Senegalen ditugun proiektuak indartzeko eta mantentzeko bideratuko ditugu".

Udalak zabor bilketarekin lotutako jarrera desegokien erreklamazioa egitea eskatu du

Udalaren oharra: "Puntu batzuetan herritar batzuek poteak lurrean lagatzen dituzte, zintzilikarioetan jarri beharrean. Honek kaleko garbitasuna oztopatzen du poteak jausi eta zabaldu daitezkeelako. Beste ohitura txar bat ere sumatu da: poteak iturri publikoetan garbitzearena. Hau ez da bat ere higienikoa. Gainera, poltsa birziklagarriak erabiltzeko aukera egonda, zentzu gutxi dauka. Badakigu jarrera desegoki hauek oso puntualak direla eta herritar gehienek modu egokian erabiltzen dutela zabor bilketa sistema. Hala ere, Udaletik eskatzen dugu gai hau zaintzea eta horrelako jarrerak ikusiz gero erreklamazioak udaletxean egitea".

Arrolak hilaren 21eko Finalista Egunean parte hartzera animatu gura ditu herritarrek

Aurtengo Finalista Eguna ospatzeko ibilaldia egingo du Arrolak. Hamabitakoa, berriz, Trekutzen egingo dute parte hartzen dutenek. "Nolabait, errekonozimendua egiteko modua da Finalista Eguna; modu ezberdinean, bi ibilaldi mota egiteko aukera izango dute animatzen direnek: oinez edo mendi bizikletaz. Mokadutxo bat jateko aukera ere izango da ondoren. Herritarrek animatu gura ditugu", azaldu du Arrola Mendi Taldeak.

OHARRAK

SAN KOPAIXO FESTAK

Kalegoienean gaur, 19:00etan, gorbatak jantzita pintxo-poteoa; ondoren, afaria eta suzko erru-berak. Bihar, ardo dastatze lehiaketa eta luntxa eguerdian.

AUZO-KONPOSTA: BILERA

Hilaren 17an bilerak egingo dira Orlanen: 10:30ean eta 19:00etan. Bilera informatiboak dira. Interesa dutenek izena eman dezakete.



Cristina Etxenhausia, Andra Mariko kanpandorrea atzean duela. | J. BEREZIARTUA

Cristina Etxenhausia | Andra Mariko lbabe kofradiako presidentea

"Andra Mariko Ama Birjinarekiko debozio handia dago herrian, baita gaur egun ere"

Etzi izango da urtero egiten duten ospakizuna: salda, meza, batzarra eta bazkaria egingo dute

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Ez dago ondo zehazterik noiz jaio zen Ibabeko Kofradia. XVI. mendean egon liteke haren sorrera; izan ere, 1562ko testamentu baten anaidiaren gaineko lehen erreferentzia idatzia dago. Aramaion bizirik geratzen den kofradia bakarra da, Andra Mari ermitan gurtzen den birjinarekiko egon den eta dagoen debozio handiaren erakusle. Cristina Etxenhausia da egungo presidentea, lehen emakumezkoa. Domekako ospakizunaz eta kofradiaren egungo egoeraz egin dugu berba harekin: "Kofradia herrian gehiago zabaltzea izango da erronketako bat", dio.

Nola heldu zinen kofradiako presidentez izatera?

Presidente izatea proposatu zidaten, beste barik. Neurri baten ezezkoa ematen ez dakidalako eta kofradiako emakumezko lehen presidentea izateko aukera nuelako, onartu egin nuen.

Zer prestatu duzue etziko? Badago

"Pozgarria da Velez de Mendizabalek kofradiaren gainean liburu bat egitea"

nobedaderik aurtengoan?

Hasteko, 11:00etan salda banatuko dugu eta 12:30ean, aurten hildako kofradiakideen aldeko meza egingo dugu. Aurten bi hil dira. Ondoren, 13:45ean, batzar nagusia egingo dugu eta 14:30ean, amaitzeko, 70 anaikiderendako bazkaria [134 kide dira egun].

Nobedade moduan, *catering* enpresa bat ekarri baino gehiago, garai bateko bazkaria berreskuratuko dugu: paella, biribilkiak eta moskatel mahatsa jango ditugu; bazkaria bertako produktuekin egindakoa izango da.

Ze helbururekin sortu zen? Eta egun ze betebeharrak dituzue?

1846ra arte *Hijosdalgo* titulu noblea frogatzen zutenak bakarrik sar zitezkeen kofradian. Andra Mariko Ama Birjinaren bidez Jainkoa gurtzeaz aparte, ermita eta haren ingurua zaintzea izan da arduretako bat. Gainera, hiltzen ziren anaikideak ehorzteko zerbitzua ere eskaintzen zen. Egungo ekintza aipagarriena, baina, iraileko bigarren domekako ospakizuna da. Ama Birjinaren eguna irailaren 8an ospatzen da, baina lehen domekan Marixekako ermitako jaia dagoenez, iraileko bigarren domekara pasa zen.

Andra Mariko Ama Birjinarekiko debozio handia dago gaur egun ere; herritar askok loreak eta kandelak ekartzen dizkiote.

Harremanik baduzue Udalarekin?

Harreman zuzenik ez, baina lursaila utzita dugu erabilera publikoa izan dezan. Udalak, aldi berean, hitzarmena du Diputazioarekin gunearen mantenuaz ardura dadin. Presidente moduan gustatuko litzaidake Udalarekin eta Diputazioarekin akordio batera iristea protokolo bat zehazteko. Protokolo horrek erabilera publikotik eratorritako gastuak nork ordaindu behar dituen zehaztuko luke. Izan ere, kontu hori ez dago araututa. Horrez gain, kofradia herrian gehiago zabaltzea da beste helburu bat, hots, belaualdi aldaketa bermatzea.

Ezer gaineratu nahi?

Josemari Velez de Mendizabal anaidiaren gaineko liburu bat ari da prestatzen eta hainbat bitxikeria jasoko ditu. Hori albiste oso pozgarria da guretako.

Excavaciones Arrasate atzo ezker lanean ari da Muru auzoan

Atzo hasi ziren ofizialki Muru auzoko hondakin urak saneatzeko –ur zikinen eta euri uren sarea berritzea– eta auzorako sarbidea egokitzeko lanak. Atzo goizean sinatu zuten obrei ekiteko beharrezkoa den hasiera-akta eta Excavaciones Arrasate enpresako langileek urtea amaitu baino lehen bukatu beharko dituzte obrak. Martitzenean helduko dira makinak, lanean hasteko.

Aurrekontua hasierako proiektuan aurreikusitakoa baino txikiagoa da: 290.946,46 euro, BEZa barne. Azken diru-laguntza ziurtatzeke, Arabako Diputazioak finantzatuko du lanen zati handiena.

Urrira arteko egubakoitzetan pilota izango da protagonista

Aramaio Pilota Elkarteak antolatuta, eskola arteko pilota partiduak jokatu dira urrira arteko egubakoitz guztietan: "Arabako federazioak antolatutako eskola arteko denboraldia ez da urrira arte hasten eta haur zein gaztetxoak gelditu egon ez daitezke, proposatu genien irailean zehar partiduak jokatzeko. Ondo iruditu zitzaizkion", adierazi du pilota taldeko Josu Olaizolak. Hortaz, datozen egubakoitzetan benjamin, infantil eta kadete mailako pilota partiduak izango dira protagonista. San Martin Pilota Txapelketa deitu dute eta Araba osotik etorritako pilotarien arteko lehiak 18:00etan hasi eta 21:00 aldera bukatuko dira.

Genero indarkeria salatzen kanpaina berezia abiatuko dute

Azaroaren 25eko Emakumeen Kontrako Biolentziaren Aurkako Eguna begira sentsibilizazio kanpaina berezi bat abiatu gura dute Udalak, Alaiak erretiratuen elkarteak eta Itur-Zuri emakumeen elkarteak elkarlanean. Korratz-lana edo gantxiloa eta gurutze-puntua egiten duten herritarrei gonbidapena egingo diete herriko zuhaitzak artilez forratzeko.

Lehen bilera irailaren 18an egingo dute erretiratu elkarlearen egoitzan, 18:30ean hasita. Antolatzaileek eskatu dute aurrez izena ematea udal-txean, bileran zenbat lagun elkartuko diren jakiteko.

Four Friends taldearen zuzenekoa gaur Sastiñan

J.B. | ARAMAIO

Iraileko egubakoitzak musikatze ekimenaren barruan Bilboko Four Friends taldeak joko du gaur Sastiñan (20:00). Four Friends 1999ko azaroan sortutako taldea da, eta Deustuko Mr. Jam musika zentroa da taldearen abiapuntua. Egiten duten musikak hainbat esparru jorratzen ditu; swinga eta jazz nagusi badira ere, euren ibilbidean zehar erakutsi dute bes-

te estilo klasiko batzuetara ere irekiak daudela: bluesa, bossa nova, funkya, rockabillya eta popa, esaterako.

Beste bi kontzertu oraindik

Datorren egubakoitzean, hilak 19, Tolosako The Romanticos taldeak joko du Sastiñan; blues eta swing doinuak eskainiko dituzte. Irailaren 26an, amaitzeko, Algortako Wets Bluegrass Band taldeak joko du.



Four Friends musika taldea. | GAZTELUPEKO HOTSAK

NIRE USTEZ

XABI IGOA

Betiko potolokeria arina

gor Elortza bertsolariak asteen hurrengo idatzi du Twitter sare sozialean: "Betiko bertsolaritza", imajinatzen? Ba baztertzaila izateaz gainera, askoz pobreagoa, sosoagoa, tristeagoa eta txarragoa izango litzateke!". Eta betiko kazetari-tza? "baztertzaila, pobreagoa, sosoagoa eta matxistagoa" litzateke Iban Arantzabalaren aburuz. "Betiko" hitz potoloa da oso, baina asteen zehar maiz entzun eta irakurri dut.

Honezkero igarriko zenuten zein hari mutur tiratu nahi dudan gaurkoan, ezta? Txistuz bete zen astelehenez Hondarribia. Guda omentzeko den jaiak guda dakar urteak joan eta urteak etorri. Pertsonalki tris-

tetu egiten nau, lotsatu egiten naiz. Txistuak gutxienez badi-tu hiru adiera gure hizkuntzan, eta hirurak biltzen dira Alardearen bueltan, baina adiera bakarrenekin nahiko litzateke. Notekin datorrena da beharrezkoa hiru adieretan, besterik ez.

Ohitura zaharrak mantentzeko prest agertzen naiz neroni ere, zentzuzko diren bitartean, eta delako Alarde "tradizionala" ez zait iruditzen, edo ez behintzat horren defentsan plastiko beltzez herria janzten dutenen jarrera.

Emakumezko zein gizonezko berdintzat, pertsonatzat, dituen batek nola uler dezake urtero Jaizkibelpean gertatzen dena?

"Betikoa, tradizionala, geurea,...". Hitz potoloz beteriko argudio arinak.

"Guda omentzeko jaiak guda dakar urtetik urtera"

Aitor Arana mendizale aramaioarraren omenezko mendi martxa irailaren 27an egingo da

Orixol elkarteak antolatuta, Aitor Arana mendizale aramaioarraren omenezko 18. mendi martxa hilaren 27an egingo da. 07:30ean elkartuko dira kiroldegian eta 08:00etan irtengo dira urteroko ibilbidea egiteko. 30 kilometro inguruko irteera izango da, sei eta zortzi orduren artean egitekoa. Ibarratik irtengo dira eta honako ibilbidea egingo dute Ibarran bertan amaitu aurretik: Bolinburu, Murugain, Untzila, Asensio, Danborralde, Kurtzeta, Orixol, Zabalaundi eta Tellamendi.

ELGETA

Aldaketa oso gutxi, aurten ere, ikasturte berrirako eskaintzen diren jardueretan

Zabalik da izena emateko epea; jarduera gehienak urrian ipiniko dira martxan

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA
Ikasturtean zehar zein jarduera egin nahi dugun erabakitzeko unea izan ohi da iraila. Kirol jardueri dagokienean berrikuntza gutxi aurreikusten dira herri-tarrei aurkeztutako proposame-

nean. Mantendu egiten dira yoga, tai-txi, erretiratuendako gimnasia, mantentze-GAP eta spinning saioak. Umeendako, berriz, eskola kirola eta karate daude. Horrez gain aukera dago frontoia, sauna, squash pista edo gimnasioa erre-

serbatzeko. Interesatuak udaletxera jo behar dute, eta bertan eska daiteke hobarien gaineko informazioa ere. Unitate familiarren 2013ko errenta aitortpena hartuko da kontuan hobariak aplikatzeko, eta zaintza zerbitzuan familia bereko ume kopurua.

Eskolaz kanpoko ingelesa
Maala guraso elkarteak ingeles eskolak antolatuko ditu, aurten ere. Irakaslea berdina izango da eta irailean antolatuko dira taldeak umeen adinaren eta mailaren arabera. Azken orduko izenematerik balego interesatuak *elgetakogurasoelkatea@gmail.com* helbide elektronikora idatzi behar dute.

Biodantza
Mantendu egiten da, baita ere, biodantza saioen eskaintza. Iaz bost laguneko taldea sortu zen herrian, eta ikasturte osoan zehar burutu zuten jarduera. Mentxu Arjonilla irakaslearen esanetan, orde, zortzi bat laguneko taldea sortu beharko litzateke ekintzak aurrera egiteko. Biodantza egue-netan egingo dute, 17:00etatik 18:00etara. Kontaktua bi dira: 606 636 199 eta 626 661 292.

Ikasturteko eskaintza

- KIROL JARDUERAK**
- Yoga. Astelehenetan eta eguaztenetan, 19:00etan. 35 euro hilean.
 - Tai txi. Astelehenetan eta eguaztenetan, 19:00etan. 30 euro hilean.
 - Erretiratuendako gimnasia. Martitzenetan eta eguenetan, 15:45ean. 5 euro hilean.
 - Mantentze-GAP. Martitzenetan eta eguenetan, 18:30ean. 25 euro hilean.
 - Spinning. Martitzenetan eta eguenetan, 19:30ean. 25 euro hilean.
 - Eskola kirola 8-9 urte. Martitzenetan eta eguenetan, 16:30ean. 50 euro urtean.
 - Eskola kirola 10-11 urte. Martitzenetan eta eguenetan, 17:30ean. 50 euro urtean.
 - Karate. Eguaztenetan eta barikutan, 16:15ean. 22 euro hilean.
 - Biodantza. Eguenetan, 17:00etan. 25 euro hilean.

Irailean, bi ipuin kontalari saio liburutegian

L.Z. | ELGETA
Iazko neguan udal liburutegitik martxan ipinitako Ipuinen ordua ekimenak jarraitzen izango du ikasturte berrian. Boluntarioekin egiten dira ipuin kontalari saio horiek, eta hurrengo hitzordua hilaren 19rako finkatu dute. Hiru urtetik gorako umeendako saioa izango da, eta Lorea Larrañagak egingo du, 17:20ean, udal liburutegian. Egun berean, helduendako saioa egingo du gazteleraz Roman Marzana elorriorak, 22:00etan. Marzana ere boluntarioa da. Boluntario taldeak egunotan dihardu hurrengo hilabeteetarako egutegia zehazten. Ekimenean parte hartzeko interesa edukiz gero udal liburutegian jasoko duzue argibide gehiago.

Sagardo Eguna eta tortilla lehiaketa hilaren 19an

Iraileko hirugarren zapatua festa eguna izango da Elgetan. Goizerako baserritarren azoka, txorimalo lehiaketa eta Intxortako Igoera antolatu ditu Udalak. Aurten, umeendako igoera ere bai, Salbadorrera. Arratsalderako, bestea beste, tortilla lehiaketa eta Sagardo Eguna antolatu ditu gaztetxeak. Datorren astean zehaztuko dute egitarau osoa.

Urrian hasiko da Udala 2015eko aurrekontu-proposamena lantzen

Herriarrek egindako proposamenak jaso gura ditu Elgetako Udalak hurrengo urterako aurrekontua lantzen hasi aurretik. Hala, norbanakoei *danonartian@elgeta.net* helbide elektronikoa zein udalletxean egin ditzakete ekarpenak. Epea zabalik da urriaren 31ra arte.

Ludoteka eta gaztelekua

Astelehenean zabalduko ditu ateak ludoteka zerbitzuak. Zaintza eta ludoteka zerbitzua eskainiko ditu Udalak aurten ere. Haur hezkuntzatik aurrerako umeendako zerbitzua da, eta arduraduna Mireia Andreu izango da. Gazteleku zerbitzuari dagokionean urritik aurrerako aste bukaeretan egongo da martxan, zapatuetan eta domeketan, 16:00etatik 20:00etara. Arduraduna Eider Gisasola izango da.

Musika eskolak ere aukeran

Lorea Larrañagak astelehenean abiarazi zuen ikasturte berria. Hizkuntza musikala, eta piano zein gitarra eskolak eskaintzen ditu astean zehar kultura etxeko musika gelan. Interesatuak 943 76 80 66 telefono zenbakira deitu behar dute. Adolfo Jainagak, berriz, eguen arratsaldetan trikitixa eta pandero eskolak emango ditu Herri Eskolako ikasgeletan. Interesatuak 943 20 62 66 telefono zenbakira deitu behar dute.

Hondakinendako ekarpen-gune berriak egokitzen

L.Z. | ELGETA
Elgetako Udalak hasi ditu Galgorri gainean eta Artekalen kokatuko diren ekarpen-gune berriak egokitzeko lanak. Hondakinaren bilketa sistema berriaren ezarpenari buruz, orde, ezer gutxi ematen du ezagutzera. Mankomunitatearekin harremanetan diharduela. Eta auzo-konposta egin gura duten herriarrek ikastaroa egiteko aukera berria izango dute irailean, taldea sortuz gero. Izenematea zabalik da udaletxean.

Kokatzeko izan dira lehen eskola egunak

"Zein da gure irakaslea? Eta gure ikasgela aurten?...". Argitu dira ikasturte hasierako zalantza horiek guztiak eta astelehenetik martxan da ikasturte berria. Asteotan egokitzen ari dira bi urteko gelako 17 neska-mutikoa. Guraso elkarteak ere martxan da; ingeleseko eskoletarako taldeak antolatzea da lehentasuna.



L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Otxandiarrek girotu dute jaietako azken eguna

Bihar, oster, erretiratu eguna izango da eta bazkaltzeko elkartuko dira kultura etxean

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA
Otxandioko lagunak bisitarekin agurtu zituzten jaiak astelehen eguerdian. Eskolako neska-mutiko eta heldu mordoa elkartu

ziren herrian meza nagusia hasi aurretik. Asko etorri ziren, gainera, oinez, 15 kilometroko ibilbidea eginda. Andra Mari eguneko mezarekin eta herri kirolen

erakustaldiarekin bukatu zituzten jaiak, giro ederrean eta herriarren parte-hartze handiarekin ospatu diren jaiak.

Erretiratu bazkaria
Bihar, oster, erretiratu eguna da. Bazkaltzeko elkartuko dira kultura etxean, Udalak gonbidatuta. Eusebio Villarrek jardungo du sukaldari lanetan, eta hark gertatutakoa bazkaldu eta kontu kontari jardunda egun-pasa dotorea egingo dute.



Otxandiotik etorritako lagunak Gatzagara ailegatzten. | IMANOL GALLEGO

FUTBOLA

Ostikolariak, hastera doa liga!

- Bergarak, Aloña Mendik eta Aretxabaletak etxean jokatu dute ligako lehenengo jardunaldia
- Jon Muruamendiaraz eta Igor Serrano dira aulkietan izango diren nobedadeak, Antzuolan eta Oñatin

XABIER URZELAI | ARRASATE

Amaitu dira probak, amaitu dira udako torneo eta lagunartekoak. Asteburuan ohorezko erregional mailan liga txapelketa hasiko dute, eta maiatza bitartean taldeek 34 jardunaldi izango dituzte duten onena erakusteko. Hain zuzen, Aretxabaletak, Aloña Mendik eta Bergarak etxean jokatu dute eta Antzuolak etxetik kanpo egingo du estreinaldia, Ordizian. Bestalde, Gotzon Urzelaireren Mondrak astebete gehiago izango du erregional preferentean denboraldia prestatzeko.

Aurpegi berriak

Urtero moduan, aurpegi berri asko izango dira bailarako taldeetan, bai jokalarien artean, eta baita aulkietan ere. Gorka Vallek (Aretxabaleta) ondo irabazi zuen iaz taldean jarraitzeko eskubidea: "Iaz izandako bolada onari jarraipena eman nahi diogu". Vallek eta haren lantaldeak gozatu galanta hartu zuen iaz Aretxabaletak izan zuen bolada ikusgarriarekin, eta orain beste pauso bat eman nahi dute aurrera.



Denboraldi-aurrean hartutako lau irudi, talde bakoitzeko ordezkari bana. | IMANOL SORIANO ETA JOSETXO ARANTZABAL



Kontrara, Aitor Arratek (Bergara) iaz egindakoa hobetu nahi du. "Ez dugu horrenbeste sufritu nahi, hori izango da aurtengo helburue-tako bat", adierazi diote Goienari, udako torneoetan. Aurpegi berriak, oster, Antzuolan eta Oñatin izango dituzte. Jon Muruamendiaraz aspaldiko ezaguna da, Mondrako jokalarri moduan lehenengo eta entrenatzaile gero. Eta orain Antzuola zuzentzeko ardura hartu du Arrasatekoak; alegia, kategoria berrian egingo duten bigarren urtean taldea egonkortzeko ardura hartu du. "Taldea lanerako erakutsi duen jarreraz oso pozik nago", adierazi dio Goienari. Seguruenez, aurtan ere etxeko puntuei tinko eusten ahaleginduko dira Estalan.

Liga hasteko irrikan dagoena Igor Serrano da, Aloña Mendiko entrenatzaile berria. Jose Luis Agirrerren omenezkoan egin zuen berba Goienak Idiazabalgorekin. Iritsi berria da Azkoagainera, baina Oñatira etortzeko erabakia lehenagotik hartua zuen, eta horri esker azken hilabeteetan gertutik jarraitu ahal izan ditu txantxikuak: "Hainbat beteranok taldea utzi dute, baina gazte mailako jokalariek erakutsitako mailarekin oso pozik nago, eurek beteko dute hutsune hori".

Bada, Bergarak Zarautzen kontra jokatu du zapatuan (17:00), eta domekan, oster, Aretxabaletak Touring hartuko du (16:30) eta Aloña Mendik (16:30) Martuteneren bisita izango du. Antzuola, oster, Ordizian jokatu du bihar (16:30).

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK**BERNARDINO MAIZTEGI**

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER

ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
Faxa: 943 77 01 08
blasaga@conet.es

RAFAEL ARANBURU

BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL (ZENBAKI)

ARETXABALETA / Basabe ind. f-0-10-pab.
Tel.: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK**AIERDI AHOLKULARITZA**

BERGARA / Artekale 1
Tel.: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otolara Lizentziaduna 4
Tel.: 943 71 25 49
Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
Tel.: 943 71 21 12
Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTOAK**BIARK ARKITEKTOAK**

ARRASATE / Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

ARKITEKTO TEKNIKOAK**JESUS LASKURAIN PEREZ**

BERGARA / Zurradero 4
Tel.: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**

ARRASATE / Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
Faxa: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

ZIKLISMOA

Espainiako txapeldunorde izan da Koldo Lamikiz, beteranoen mailan

Lokatzakoak erakutsi du soka luzea geratzen zaiola, Murtzian

X.U. | BERGARA

Lokatza Ziklismo Eskolako ordezkari beteranoetako bat izango da Koldo Lamikiz (1948), baina Bergarakoa bizikleta gainean atzean uzteko gaztetasuna baino zerbait gehiago behar da. Joan den asteburuan Murtzian, Mazarronen, jokatu zituzten Espainiako beteranoen mailako ziklismo txapelketak, eta 65 urtetik gorakoen kategorian Lamikizek zilarrezko domina irabazi zuen. Lasterketan, gainera, hura baino 15 urte gazteagoak direnekin ibili zen lehian.

Palmaresa gizentzen

Beteranoen mailan Koldo Lamikiz bergararraren palmaresa haziz doa, asteburuan beste domina bat irabazi du-eta Espainiako Txapelketan, zilarrezkoa. 78 kilometroko lasterketan Bergarakoa bigarren izan zen Asturiasko Luis Benitoren atzetik (CDOviedo-Ciclos Fran). Eta podiumeko hirugarren koskan Cristobal Mayak (Galvesport) amaitu zuen.

Lasterketan zehar Cedacedo-ko gaina, Perin, Cuestako gaina eta Mazarrongo gaina igo zituzten, ez ziren desnibel handiko

mendateak, baina ziklistek etengabeko gorabehera izan zuten. Hala, lasterketaren gogortasunarengatik, txirrindularien artean alde handiak egon ziren. Luis Benito sei minutu lehenago iritsi zen, ihes egindako talde baten barruan kokatuta. Eta Lamikiz bigarren talde baten sartu zen.

Errekorra du Gorlan

Beteranoen mailan Gorla igotzen zuten garaitik Lamikizek zazpi ediziotan irabazi zuen jarraian, 1983tik 1989ra arte. Eta beste



Lamikiz —ezkerrean—, Murtziako podiumean. | RFEC

edizio baten bigarren izan zen, hain zuzen, Koldoren anaia Javier Lamikizek irabazi zuen urtean. Gaztetan bizikleta gainean lehia-tutakoa, ikasketak zirela-eta bizikleta alde batera utzi zuen, eta ondoren afizionatu moduan

itzuli zen. Txapel garrantzitsuenak, baina, beteranoen mailan irabazten dabil. Bada, negua iristeaz batera, Lamikizek bizikleta baztertu eta areto barruko arraunean jarduten du, eta hor ere sariak irabazi ditu.

TRIATLOIA

Mikel Muxika bergararra, Euskadiko txapeldunorde esprint modalitatean

X.U. | BERGARA

Joan den asteburuan egin zuten Zumaian esprint modalitateko Euskadiko Triatloi Txapelketa, eta bailarako ordezkariak lan aipagarria egin zuten —kuadrilla polita izan zen—. Gizonezkoetan, Jon Unanue izan zen onena, eta Bergarako Mikel Muxika sailka-

tu zen bigarren; Euskadiko txapeldunorde, horrenbestez. Bergarakoaz batera debagoiendar gehiago ere izan ziren lehian; adibidez, Mikel Ugarte oñatiarrak 5. postua lortu zuen eta, aldi berean, 23 urtez azpikoen artean atleta azkarrena izan zen. Antxintxika bigarren izan zen taldeka.



Mikel Muxika, Zumaiaiko podiumean, ezkerrean. | MIKEL MUXIKA

ESKALADA

Ikastaroak Arrasateko eta Aretxabaletako rokodromoetan

Debagoiena Eskalada Taldeak irailean hainbat eskalada ikastaro emango ditu Arrasaten eta Aretxabaletan. Informazio gehiago, astelehenetan eta eguaztenetan Arrasaten (18:00-19:00), eta ordu berean Aretxabaletan, martitzen eta eguaztenetan.

Euskaraz blai

UDAL EUSKALTEGIAK
euskara klaseak

14-15

IKASTURTEA
matrikula zabalik

Informa zaitez!

ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazubi plaza, 2
(Eskola Politeknikoaren ondoan)
Tel.: 943 79 70 77 / 943 79 77 88
Faxa: 943 79 91 43
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Barrenkalea, 33
(Irizar jauregia)
Tel.: 943 76 44 53
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

Nafarroa 2-4 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 21 68
Faxa: 943 79 92 62
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

Intxaurtxueta 10 Eskoriatza
Tel.: 943 79 21 68
leintzeuskaltegia@leintz.euskalnet.net

BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarrieta, 18-behea Oñati
Tel.: 943 78 24 96
Faxa: 943 71 82 96
euskaltegia@oinati.net

AUTOMOBILISMOA

Hilaren 21ean izango da Aramaion rallysprinta, eta azarora atzeratu dute Oñatiko eslaloma

X.U. | ARRASATE

Automobil-zaleei denboraldiko azken hitzorduak geratzen zaizkie, ofizialki urriaren 19an egingo dute-eta denboraldiko azken lasterketa, Urrakiko Igoera. Oraindik, baina, kontuan hartzeko moduko lasterketak geratzen dira. Esaterako, datorren asteburuan egingo dute Jaizkibelgo auto igoera -36. edizioa- eta irailaren 21ean egingo dute Aramaion bailarako azken pro-

ba, rallysprintaren 12. edizioa. Gainera, puntuagarria izango da Formula Libreko Euskadiko Txapelketarako, eta baita Abarth Punto Koparako ere.

Eslaloma, azaroan

Bestalde, Oñatiko Udana motor-zale taldeak oraingo astebururako antolatu behar zuen eslalom ikuskizuna atzeratu egin dute, eta azaroaren 22an izango da hitzordua.

ATLETISMOA

Dagoeneko izena eman daiteke urriaren 11n egingo duten Arrasate-Oñati lasterketarako

X.U. | ARRASATE

Gainean ditugu udazkeneko atletismo probak, eta dagoeneko zabalik dago Oñatiko Antxintxiketan taldeak antolatzen duen Arrasate-Oñati lasterketarako izenemate epea. Aurten urriaren 11n egingo dute lasterketa, eta oraingoan ere oñatiarrek Arrasateko atletismo taldekoei eta Bergarako Hanka Labanka roller taldekoei laguntza izango dute.

Lasterketari dagokionez, irteera Arrasateko Portaloian izango da, azken urteotan moduan (17:00) eta helmuga Oñatiko plazan. Hala, lasterka-

riek 12 kilometro inguru izango dituzte aurretik -patinatzaileendako lekua ere egongo da, horiek 5 minutu lehenago irten go dira. Antolatzaileek autobusak jarriko dituzte Oñatitik Arrasatera etortzeko, eta arropak Arrasatetik Oñatira eramateko zerbitzua ere egongo da. Aurrez eman beharko da izena, www.kirolprobak.com-en.

Azaroan, Antxintxika krosa

Arrasate-Oñatiri Antxintxika krosak hartuko dio lekukoa, azaroaren 2an. Horako, baina, irailaren 22an zabalduko dute izena emateko epea.



Uztailean koadrila polita batu zen Arrasaten egindako saioetan. | J. ETXEBARRIA

SASKIBALOIA

Eskoriatzan eta Bergaran teknifikazio saioak

X.U. | ARRASATE

Saskibaloia entrenatzaile eta monitoreei zuzenduta teknifikazio saioak egingo dituzte asteburuan bailarako hainbat herritan.

Gaur eta domekan

Gaur, egubakoitza, 19:30ean Eskoriatzan izango da lehenengo saioa (19:30ean, Manuel Muñoz kiroldegian). Azu Mugurutzak gidatuko du saioa, emakumezkoen EHU taldeko entrenatzailea da bera. Eta saioa gaztelaraz izango da. Mugurutzak planifikazioak duen garrantziaz egingo du bera. Domekan, ostera (17:00, Labe-garaieta) Jurgi Caminosek hartuko du erreleboa -Araberri

basket klubeko entrenatzailea- eta hau da saioaren izenburua: *Entrenamendua prestakuntza mailetan*. Hala, saio hori euskaraz izango da.

Elkarlanean egindako lana

Egungo klubak dituzten beharrak asetzeko -besteak beste, etxeko entrenatzaileak hezten joatea- ezinbestekoak dira halako teknifikazio saioak, eta azpimarratzekoa da saiook antolatzeko elkarlanean jardun dutela bailarako saskibaloia talde guztiek: Aloña Mendik, Bergarak, Eskoriatzak eta Ointxek. Bestalde, Debagoieneko Udak Kirol Zerbitzuen babes ere izan dute.

ESKUBALOIA

Lagun arteko torneoak Arrasaten eta Oñatin

X.U. | ARRASATE

Oraingo asteburuan hainbat eskubaloia torneo jokatu dituzte. Arrasaten Jesus Mari Pitxi Herreroen omenezkoa antolatu dute -10. edizioa izango da-, eta aurten ere maila nazionalen lehiatuko den Ford Mugarri Arrasatek maila oneko hiru kontrario izango ditu: Hondarribia, Urdaneta eta Forging Group Elgoibar. Bihar, zapatua, Urdanetaren eta Elgoibarren artekoa 16:00etan hasiko da eta etxeko taldeak, Ford Mugarrik, 18:00etan jokatu du Hondarribiaren aurka. Domekan, berriz, hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko 10:30ean eta finala 12:15ean (zapatu goizean kade-te eta gazte mailetako partidua izango dira).

Oñatin, Mikel Deuna saria

Oñatin, berriz, San Migel jaien bueltan lagunarteko bi partidua antolatu dituzte Aloña Mendiko lagunak, biak senior mailakoak. Bietan Leizaran izango da kontrarioa, emakumezkoek 16:30ean jokatu dute eta gizonezkoek, 18:00etan.

Ondo ondo pasau Bergarako San Martin Jaixetan!

San Martin Jaixak 2014

Irailaren 13, 14, 15 eta 16
BERGARA

Kayak

Azpeitxi

Etxagi

Irish Pub Galways

Bule

Euxebio II

Toki Ona Bodegoia

Usoa

Ariznoa

Pol-Pol



KULTURA

'Geltokia': bizitzaren gorabeherak, dantzaren hizkuntzarekin kontatuta

- Edu Muruamendiarek zuzendutako Aukeran dantza taldearen lana gaur Bergaran
- Euskal dantza tradizionalaren eta garaikidearen arteko nahasketa ekarriko du jaioterrira

A. A./I.G. | BERGARA

Bizitza tren bidaia batekin alde-ratu du Aukeran dantza konpainiako Edu Muruamendiarek Bergarako koreografoak, taldearen seigarren ikuskizuna den *Geltokia* lanean. "Trenak bezala, bizitzak ere hainbat geltoki ditu; geltoki bakoitzean jendea sartzen da bagoian, eta bakoitzaren bizitzan ere, jendea atera eta irten egiten da, harreman berriak sortuz eta zaharrak apurtuz. Maletak ere hor daude, istorioa josteko haria izan dira niretzako: bidaia-tzeko erabiltzen ditugu, baina, era berean, nork bere *bizitza-maleta* darama, eta bakoitzak bakarrik daki zer daraman barruan; batzuek maleta zabaltzen edo euren bizitzan sartzen uzten digute eta beste batzuek, berriz, ez", azaldu du Bergarakoak.

Orain dela bost urte izan zen Aukeran dantza konpainiarekin azkenekoz jaioterrian. Gaur, egubakoitza, Bergarako Udal Pilotalekuan (22:00) izango da, martxoan Donostiako Victoria Eugeniekin estreinatu zuten *Geltokia* lanarekin. Sarrera zenbakituak dira eta 16 eurotan izango dira lehiatilan (21:00etan zabalduko dute) edo 15 eurotan, Pikupe Produktzioak bulegoan aurrez erosiz gero.

Aukeran dantza konpainiaren *Geltokia* ikuskizuneko une bat. | AUKERAN**Puntako kolaboratzaileak**

50eko hamarkadako jantziak soinean dituzten konpainiako dantzariak dira taularen gainean protagonista nagusi. Euskal dantza tradizionala dantza garaikidearekin nahastuta kontatzen

dute istorioa, pantaila baten erakutsitako proiektzioak lagunduta.

Kasualitate asko izan ditu Muruamendiarek lan hori sortzeko orduan, eta, hala, izen handiko kolaboratzaileak batu dituela dio: "Iaz uztailan Miren Agur

Meabe idazlearekin topo egin nuen, eta, ezagutzen ez nuen arren, buruan nuena azalduta, gidoia egiteko proposamena egin nion. Abuztu amaierarako, asko gustatu zitzaidan gidoia bidali zidan idazleak".

Baina gidoia egiterakoan bakarrik ez, ikuskizunerako soinu banda egiteko orduan ere zortea aldeko izan zuela kontatu du Muruamendiarek: "*Balea* izeneko fadoa oso gustuko eta aproposa ikusten nuen *Geltokia* lanarako. Xabier Zeberio musikariarekin egin nuen, harekin ere kasualitatez, orduan topo eta ideia kontatu nion. Aurrez ezagutzen genuen elkar, Kepa Junkeraren ikuskizun batean elkarrekin egin genuen-eta lan. Sekulako soinu banda indartsua egin du", gaineratu du Aukeraneok.

Musika eta dantza koreografia osatuta, antzerki osagaia erans-teko nahia izan zuen, eta, beste kasualitate baten ondorioz, aurrez ezagutzen ez zuen Kike Santia-gorekin jarri zen harremanetan.

Ikuskizun familiarra

Askotariko ikusleentzako eta ordubeteko iraupena duen ikuskizuna da. "Betiko erritmoak sartu ditugu, hor daude, betiko fandango eta arin-arinak, baina ikuskizun berritzailea da. Oso pozik nago emaitzarekin eta harre-ra ona izan dugu aurreko bietan. Bergarako geltokia, baina, duda barik, geltoki berezia da niretzat", dio Bergarako koreografoak.

EDU MURUAMENDIARAZ | KOREOGRAFOA

"Ilusioz betetako maletarekin nator dantza egiten ikasi nuen jaioterrira"

Aspaldi eskegi zituen dantzarako abarkak; harrezkero, dantza arloan jarraitzen du, taularen gainean sarritan ikusten ez badugu ere.

Ibilbide bat kontatzen duzu lan berrian. Zurea ere luzea eta emankorra da oso.

Orain dela 43 urte hasi nintzen herrian euskal dantzak ikasten; lehiaketa askotan ere izan nintzen. Geroago, Donostiara joan nintzen, han beste era bateko dantzetan murgildu nintzen. Duela 17 urte sortu nuen Aukeran konpainia; eta gaur egun, beste etapa batean nago, dantzari moduan baino atzeko lanetan gehiago.

Urteetako eskarmentuarekin sortu duzu oraingo lana.

Bai, hala da; beste pauso bat eman dugula esango nuke, hau da, ikuskizun profesionalagoa egitea lortu dugula *Geltokia* lanarekin.

Zelako maletarekin etorri zara zure hastapenetako geltokira?

Ilusioz betetakoa, duda barik.

Koreografo lanetan jarraitzeko ideiarik geratzen zaizu?

Idea berriak asko daude. Ikusi egin behar, lehenengo, nola doan oraingoaren bidea. Horren arabera joango gara buruan ditugun beste proiektu batzuk gauzatzen. Egoera nola dagoen ikusi behar...



Edu Muruamendiarek koreografoa eta Leire Iruin, Kultura zinegotzia, martitzeneko aurkezpenean. | IMANOL GALLEGU

Manu Gomez | Zine zuzendaria

"Salaketa tresna erabilgarri moduan sinesten dut nik, zinemagintzan"

- Pantaila handian eta txikian lan egiten du eta zine irakaslea ere bada
- A3 telebista kateko 'Bajo sospecha' telesailean ari da egun lanean

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE

Eskarmentua du arrasatearrak zine arloan. Askotariko film labur eta luzeetan egin du lan. Azkenaldian sari asko jaso ditu *Das Kind* film laburrarekin. Ikasturte berrirako asmo handiak ditu.

Das Kind film laburrak errekor guztiak apurtu ditu.

Horrela da, bai, sekulako uda daramagu; dagoeneko mundu osoko hogeitaz baina gehiago eskuratu ditu. Horien artean aipagarrienak honakoak: Italiako San Germano Film Festival-en nazioarteko film labur onena; Islantillako Cineforum-en ere hainbat jaso genituen, besteak beste, film labur onenarena, gidoi onenarena, argazki onenarena; Argentinako zine eta bideo independenteen jaialdian ere nazioarteko film labur onenaren saria; Grezian eta AEBetan ere saritu gaituzte... Sari horiez gainera, aipatzekoak dira, era berean, nazioarteko 60 baino jaialdi gehiagotarako aukeratu izan gaituztela.

Sari guztiak dira ongi etorriak, baina zein duzu minena?

Akaso, oihartzun handiena izan duena orain gutxi jaso dugun Islantillakoa da; izan ere, film luzeekin lehiatzen ginen eta sorpresa etorri zen film onenaren saria, argazki onenarena eta zuzendaritza artistiko onenarena eskuratu genituela jakin genuen. Mundu osoko lanen artean zegoen gurea. Iowako Snake Alley jaialdikoa ere aipatuko nuke.

Jaialdiz jaialdi ibili zarete, beraz, udan. Nolakoak dira?

Orokorrean esanda, oso dibertigarriak izaten dira; egia esan, lana dela eta ezin izan dut gura besteetara joan. Jaialdi bakoitzak du bere nortasuna eta berezia egiten duena. Anekdotak, pila bat. Zine jardunaldiak afari on batekin bukatzen dira gehienetan, antolatzaileak eta lehiakide guz-



Manu Gomez Arrasateko zinegilea, zine jaialdi batetan. | MANU GOMEZ

tiak batzen gara horietan. Lehiaketa askotan elkartu izan gara lehiakide asko, eta, horregatik, horietako asko dagoeneko lagunak ditugu. Lekuak ezagutu eta tokian tokiko gastronomiaz gozatzeari niretzako *Das Kind* filmarekin egin ditugun bidaietako faktore erakargarrienak.

Labur esanda, zer kontatzen duzu?

Das Kind-en asmoa jaiotzaren giza poztasuna eta gizakiaren eraldaketaren etorkizuneko ikarra minutu gutxitan eta gertakari bakarrean kontatzea da. Madril filmatu nuen. Aktore protagonista New Yorkekoa da, beste aktore bat Suitzian bizi den galiziarra da eta hirugarrena, Bartzelonakoa. Dena alemanez izan zen; izan ere, XIX. mendeko Austriar dago giroa. Hala ere, alemanez filmatu arren, bikoiztu egin genuen gero.

Das Kind-en inguruan zerbait gehiago gaineratu gura baduzu...

Bai; irakurleei film laburra ikusteko proposamena luzatu gura nieke. Une honetan FIBABC Espainiako eta Hego Ameriketako *on line* jaialdi garrantzitsuek ari da lehiatzen. Jaialdiaren webgunean dago ikusi eta bozka emateko aukera.

Labean sartzeko beste bi proiektu ere badituzu esku artean; horietako bat behin-behineko izenburua duen *El mar de Nur y Abir* da.

Palestinako bi neskatilari buruzko istorioa da; itsasoa ikusteko duten ametsa bere gura dute. Mendebaldekoendako horren sinplea den ideia hori Gazan bizi direnendako, berriz, ia ezinezkoa eta oso arriskutsua da. Aktoreei buruz, esan, profesionalak ez diren Palestinako edo beste herrialde batzuetako arabiarrekin lan egiteko asmoa dudala, egunero telebista kate guztietako albistegietan ikusten dugun erreallitate gordin horren kontaketa

ahalik eta sinesgarriena egiteko helburuarekin. Salaketa tresna erabilgarri moduan sinesten dut nik, zinemagintzan, eta Israel Palestinarekin egiten ari denaren gaineko kontzientzia badugu, zaila da besoak gurutzaturik izatea. Istorio hori pantaila handira eramateko izugarritzko gogoia dut, zinemaren bitartez bada ere, nire harri-koskorra ekartzeko. Marokon errodatuko dugu, baina data oraindik guztiz zehaztu barik dugu, beste lan-konpromiso batzuen menpe dagoelako. Aurrez zuzendari-laguntzaile moduan errodatuko dut beste bat Buenos Aires eta Erroman; beraz, datorren urte hasieran espero dugu ekoizpena hastea.

Si me quieres escribir... da bestea.

Aurrez aipatutako *El mar de Nur y Abir* proiektuaren bidetik doa, salatzeiko dudaren obsesioarekin jarraitzen dudalako. Oraingoa, baina, errepresio frankistarekin eta gaur egun oraindik existitzen den legatuarekin lotuta. Film laburraren ikuspegiak izaera esperimentala du; ez da ohiko errodaia izango, Espainiako gerra eta gerraosteko egiazko irudien gainean egingo dugu eta lan. Aktorerik gabeko errodaia izango da baina oraindik zehaztu ezin dizuedan nazioarteko aktore entzutetsuen ahotsak izango dituen. Proiektuaren berezitasunak kontuan hartuta, *El mar de Nur y Abir* lanaren ostean egiteko asmoa dut.

Oditty Films produkzio-etxea ere sortu berri duzu Arrasaten.

Ilusio ikaragarria dut proiektu horretan, nire lanak nik ekoizteko aukera emango didalako, baina, bereziki, ezin delako familiarra izan. Antonio Cancelo, koinatua; Aitor Luna eta Jon Gonzalez lehengusuak eta Eneko Rufino ditut bazkide. Bulegoa Arrasaten, nire jaioterrian, kokatzeak bereziki motibatzen nau.



Iazko Haur Eguna. | GOIENA

Zazpiehun haur dantzari inguru batuko dira Oñatin

A. A | OÑATI

Herrikoiez gainera, askotariko herrietatik etorritako dantzari gazteen topaleku izango da Oñati, domekan egingo duten 44. Haurren Egunean.

Aurten hamahiru dantza taldek eman diote Oñatzeko gonbidapenari baiezkioa: Gipuzkoatik, Jalgi (Zarautz); Irrintzi (Zumarraga) Korosti (Legazpi), Itxaropena (Zestoa), Urrats (Soraluze) eta Deba-goieneko Lore Gazteak eta Txikitxu (Arrasate), Oinarin (Antzuola), Leizarra (Aretxabaleta); Nafarroako ordezkaria berriz, Lizarrako Ibai Ega taldea izango da eta honakoak Bizkaikoak: Berriztasuna (Portugalete), Salleko (Sestao) eta Gernikako Elai Alai.

Haur dantzariak etxeetan

Pozik daude antolatzaileak domekan haur dantzariak etxeetan bazkaltzeko deialdiak izan duen erantzunarekin. "Errekorra egin dugu aurten, eta benetan eskertzen dugu herriarren prestutasuna. Datozen dantzari guztiendako tokia egitea lortu dugu. Taldeetako ardura eta txistulariek elkarte gastronomikoetan bazkalduko dute" azaldu du Maite Irizarrek, Oñatz taldeko kideak.

Bazkaldu aurretik, baina, auzo eta kaleetan zehar dantza saio ibiltariak egingo dituzte, 12:00etan hasita; hau da, alkate txikiaren ongi etorriaren ostean. Arratsaldean, berriz, Foruen plazan alardea egingo dute (17:00). "Taldea guztietako mutilek, Txakarranko, Banakoa eta Jorrai-dantza egingo dute; segidan, Zinta-dantza, Arku-dantza eta Kaskarrotz dantzatzeko dute neskek. Amaitzeko, Esku-dantza, Zapatagin, Makil-jokoa, Saint Petit, Txulalari, Fandangoa eta Arin-arina dantzatzeko dute elkarrekin", gaineratu du Irizarrek.



Das Kind film laburreko errodaia. | M. G.



Gomez zine zuzendaria talde teknikoari azalpenak ematen. | M. G.



Herrixa Dantzan dantzaldi gidatua, Gure Esku Dago egunean. | JOSETXO ARANTZABAL

Ikasturte berrian ere, Debagoiena dantzan

Bergarako eta Arrasateko ikastaroetan edozein plazatan aritzeko prestatuko dituzte ikasleak

MAIALEN TORRES | DEBAGOIENA

Joan den ikasturteko arrakasta ikusita, berriro ere izango da plazan dantza egiten ikasteko aukera Patxi Monteroren eskutik. "Helduek plazan dantzatzeko ikaslea da helburua, eta, bide batez, plazetako dantzak sustatu eta berreskuratzea", dio Monterok.

Horrela, ikastaroetan "Euskal Herriko edozein plazatan dantzatzeko" trebatuko ditu ikasleak, ohiko arin-arin eta fandangoaz gain, mota guztietako dantzak landuko baitira ikastaroetan. Besteak beste, dantza lotuak

—pasodoblea, polka, boleroa...—, solteak, dantza jauziak, kontradantzak eta inongo generotan sartzen ez diren baina izen propioa duten dantza ezagunak.

Arrasaten urriaren 6an ekin-gio diote ikastaroari, eta taldeak bi mailatan banatuko dituzte. Lehen mailakoak asteazkenetan arituko dira 19:30etik 21:00etara eta bigarrenekoak, berriz, astelehenetan, 18:00etatik 19:30era. Bergaran astearteetan izango da ikastaroa irailaren 30etik aurrera, eta bi mailak egun berean arituko dira, 19:30ean hasita.

Horrez gain, bi herrietan "dantza txokoa" ere eskainiko dute, maila handiagoa dutenentzat.

Dena den, Monterok azpimarratu nahi izan du bere ikastaroak dantzan ikasteko bideetako bat baino ez direla, eta garrantzitsuenak plazak biziberritzea dela.

Herrixa Dantzan

Askotan eskutik helduta doazen arren, dantza ikastaroak eta Herrixa Dantzan ekimen independenteak dira. Gidatutako dantzaldiak erabat irekiak dira, dantzatzeko gogoia, zaletasuna edota jakin-mina duen edonori zuzenduak. Monterok dioenez, "dantza jolasa da, eta, Herrixa Dantzan ekimenaren bidez, modu sinplean herritarrek dantza dibertsiorako tresna gisa berreskuratzea da helburua". Dantzaldi gidatuak urrian hasiko dira, baina oraindik egutegiak lotu gabe daude.

John Anduezak bere lehen nobela beltza kaleratuko du

'Prime time'-k misterioz eta ezustekoz jositako detektibe istorioan murgilduko ditu irakurleak

M.T. | ARRASATE

Aurreko lanetako gaietatik urrunduz, detektibe istorio batekin datorkigu oraingoan John Andueza. Elgetan bizi den arrasatearrak bere laugarren eleberria idatzi du: *Prime time*. Anduezaren lehen nobela beltzak erritmo bizia izango du, autoreak telebistarako lanean emandako urteen erakusle. Haren hitzetan, istorioak "irakurlea adi mantenduko du bukaeraino", eta, hain zuzen, azken orrira arte itxaron beharko da misterioa argitzeko.

Prime time idaztea "prozesu luzea eta gogorra" izan dela aitortu du Anduezak, baina, era berean, emaitzarekin oso gustura agertu da. "*Prime time*-k erakusten du nire benetako izaera. Liburu honekin iritsi da nire momentua", dio idazleak. Izan ere, nobela beltza beti izan da berezia Anduezarrentzat, genero gustukoena bai-

tu eta idazle bezala "jolasteko aukera" ematen baitio.

Dagoeneko prest dauka, baina udazkenean aurkeztuko du *Prime time*, azaroaren 5ean, hain zuzen ere. Genero berri batera salto egiteak, ordea, merkatu berri batean sartzea ere badakar, eta, zentzu horretan, itxaropentsu agertu da Andueza: "Merkatu zabala eta lehiakorra da nobela beltzarena, baina nire lekua topatzea espero dut".

Gazteentzat idaztea gogoko

Orain arte, ordea, gazteentzako liburuak idatziz lortu du arrakasta Anduezak. *San Fermintan Lesakan* izan da argitaratu duen azken eleberria, *Larunbatean Bukowskin* liburuarekin hasitako bideari jarraituz. Genero hori "erosoagoa eta dibertigarriagoa" iruditzen zaio Anduezari, eta argi dauka ez duela alde batera utziko.

Donostiako Orfeoiazen kontzerturako sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko Amaia antzokiko leihatilan

Arrasateko Goikobalu abesbatzak 25 urte bete ditu aurren, eta, urteurrena ospatzeko, besteak beste, Donostiako Orfeoiazen kontzertua eskainiko du Amaia antzokian. Irailaren 20an izango da, baina dagoeneko sarrerak salgai daude Interneten. Atzo jarri zituzten salgai leihatilan, baina gaur eta bihar ere izango da sarrerak erosteko aukera, 18:30etik 20:00etara. Bertaratu nahi dutenek adi ibili beharko dute, eskuragarri zeuden 770etatik ia 500 saldu baitira dagoeneko.

EZAGUTU **MONDRAGONLINGUA**ren

hitz egiteko era berriak

Era berriak garai berrietarako, behar berrietarako, teknologia berrietarako, lan merkatu berrietarako...

Informa zaitez zure **MondragonLingua** zentroan:

Araba etorbidea 4, **Arrasate**. Tel. 943 71 20 55
Motxon kalea 7, **Oñati**. Tel. 943 71 60 00

CREATIVITY
IKASTEKO METODO NATURALA

CERTIFICATION
TITULAZIOAKO BIDERIK ZIURENA

FLEXIBILITY
MAGUTASUNA + TUTORIZAZIOA

ENGLISH, EUSKARA, FRANÇAIS, DEUTSCH
METODORIK AURRERATUENA

MATRIKULA ZAITEZ ORAIN!

eta munduko denbora guztia izango duzu, **ml PLUS** edo **ml ADAPTA** ikastaroan matrikulatzen diren ikasleek SMARTWATCH bikaina jasoko dutelako.

*Urriaren 11 arte edo dauden guztiak agortu arte balio du promozio honek. Bezero PARTIKULARRENTZAT.

QUALITY

Etengabeko berrikuntza eta hobekuntza txertatzen ditugu. "Kalitatearen Urrezko Q" duen Europako hizkuntza-zentro bakarra gara.

Europako zigilua atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan berritzeagatik.

%85

Ikasleen emaitzak dira gure bermerik onena, % 85ek baino gehiagok Cambridgeko azterketa ofizialak gaingitzen ditu.

Cambridge ESOL Exam Preparation Centre

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK

MondragonLinguaren hizkuntza-ikastaroak gomendatzen ditu.

MONDRAGON taldeko kooperatiba bat gara, eta eskaintzen dugun zerbitzuarekin % 100eko konpromisoa daukagu.

mondragonLingua



LANGILE ETA LANGABETUENTZAT IKASTAROAK

%100ean DIRUZ-LAGUNDUAK

	IKASTAROAK	ORDUAK	DATAK
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
FMEH0109 TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA			
MF0089_2	UF0876: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK. Planoen irakurketa	60	2014/09/29 - 2014/10/30
	UF0991: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIO-PROZESUETAKO KOSTUAK KALKULATZEA	40	2015/01/12 - 2015/02/03
MF0091_2	UF0882: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOAKO CNC PROGRAMA EGIAZTATZEA ETA OPTIMIZATZEA. TORNU FANUC	70	2014/09/29 - 2014/11/06
	UF0883: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ MEKANIZATUTAKO PRODUKTUA EGIAZTATZEA	30	2015/03/02 - 2015/03/24
	UF0877: LANEKO ETA INGURUMENEO ARRISKUEN PREBENTZIOA	30	2015/02/09 - 2015/02/26
MF0090_2	UF0880: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOKO FABRIKAZIO-PROZESU OSAGARRIAK. HIDRAULIKA	70	2015/04/13 - 2015/05/21
	UF0878: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOKO ERAGIKETETAN MAKINAK, TRESNERIA ETA ERREMINTAK PRESTATZEA. FRESAGAILU KONBENTZIOALETAKO MEK.	80	2014/11/03 - 2014/12/18
	UF0879: TXIRBIL-HARROKETA BIDEZ PIEZAK FABRIKATZEKO CNC PROGRAMAK PRESTATZEA. FRESA HEIDENHAIN.	80	2015/01/08 - 2015/02/26
FMEE0308 FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUEN DISEINUA			
MF0107_3	UF0453: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUETARAKO IRUDIKAPEN GRAFIKOA. SOLID WORKS	40	2015/01/12 - 2015/02/03
	UF0454: DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, FABRIKAZIO MEKANIKORAKO CAD-CAM PROGRAMAK ERABILIZ	90	2015/03/02 - 2015/05/07
	UF0455: FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKTUAREN DOKUMENTU-KUDEAKETA	30	2015/05/11 - 2015/06/01
FMEE0208 EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINERIAREN MUNTAKETA ETA ABIARAZTEA			
MF1263_2	UF0456: SISTEMA MEKANIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	70	2014/10/06 - 2014/11/13
	UF0457: SISTEMA MEKANIKOAK ABIARAZTEA ETA ERREGULATZEA	50	2014/11/17 - 2014/12/16
MF1264_2	UF0458: EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINEN SISTEMA ELEKTRIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	90	Zehaztu gabe
	UF0459: EKIPO-ONDASUNEN ETA INDUSTRIA-MAKINEN SISTEMA PNEUMATIKOAK ETA HIDRAULIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	90	Zehaztu gabe
KATALOGOZ KANPO			
	TORNO PREPARAZIO ETA PROGRAMAZIOA CNC. ARDATZ ANITZA	70	2014/11/10 - 2014/12/22
	EGIAZTAPEN TRIDIMENSIONALA. MCOSMOS	30	Zehaztu gabe
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA			
ELEE 0109 BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA			
	ONARRIZKO ELEKTRIZITATEA	40	2014/09/29 - 2014/10/21
MF0820_2	UF0884: ERAIKINETAN LOTURA-INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA	60	2014/10/27 - 2014/11/27
	UF0885: ETXEBIZITZA-ERAIKINETAN BEHE-TENTSIOKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	80	Zehaztu gabe
	UF0886: LANEKO ETA INGURUMENEO ARRISKUEN PREBENTZIOA INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEKO ETA MANTENTZEKO LANETAN	30	Zehaztu gabe
MF0821_2	UF0887: BARNEKO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA MANTENTZEA	90	2014/12/01 - 2015/02/05
	UF0888: LOKALETAKO, SALTOKIETAKO ETA INDUSTRIA TXIKIETAKO INSTALAZIOETARAKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA LANTZEA, BTEEAREN ARABERA	50	2015/02/09 - 2015/03/10
MF0822_2	UF0889: AUTOMATISMO ELEKTRIKOAK MUNTATZEA ETA KONPONTZEA	60	Zehaztu gabe
	UF0890: INSTALAZIO AUTOMATIZATUAK MUNTATZEA	90	Zehaztu gabe
	UF0891: INSTALAZIO AUTOMATIZATUAK KONPONTZEA	60	Zehaztu gabe
